



ESKARAZ EGIA

Jean Martin Hiribarren

Bertsio elektroniko honen egilea: Ales Bengoetxea. Donostia.
Iturria: *Eskaraz egia*, J.M. Hiribarren. E. Lasserre, 1858..

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiribarrenEgia.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ESKARAZ EGIA

Pater, Verbum, et Spiritus-Sanctus; et hi tres unum sunt.

Aita, Semea, eta Izpiritu-Santua; hirurak bat.

(S.I.^e I.ep. c. 5.7.)

BAIONAN,

E. LASSERRE, aphezpikutegiko liburu egilea baithan,

Orbeko karrikan, 20.

1858



Nous avons lu et examiné, par ordre de Mgr. L'Evêque de Bayonne, un opuscule intitulé: ESKARAZ EGIA, et nous n'y avons rien trouvé qui puisse en empêcher l'impression et la publication dans le diocèse.

Bayonne, le 27 septennre 1858.

HARAMBOURE
Vicaire-Général.

ESKARAZ EGIA

PROPRIÉTÉ DE L'AUTEUR,
L'ABBÉ J.-M. HIRIBARREN

AITAREN ETA SEMEAREN ETA IZPIRITU-SAINDUAREN IZENEAN

Izen hortan giristino zuhurrek hasten dituzte bere egun, lan, apairu eta loak. Deus ez da zuzenagorik. Izen hortan eginak gare: *Dugun egin gizona gure iduriko*, erran zuen Jainkoak hastapenean. Izen hori eman zioten argi Jesusek Apostoluei: *Zoazte ooren argitzerat Aitaren eta Semearen eta Izpiritu-Sainduaren izenean.*

Mintzaira hoitarik athera diteke Jainkoari darraizkola presuna bat baino gehiago. Hirureko izate bat da, edo badire hura baithan hiru presuna. Liburu Sainduek erakusten daukute Aita mintzo delarik bere Semeari: *Ene Semea zare zu... jar zaite ene eskuinean.* Jondoni Joannek zion: *Hiru dire lekhukotasun enaile: Aita, Semea eta Izpiritu-Saindua, hirurak bat dire*

Gizonak berekin du hiru presuna hoi en itxura: Ezagutza, juiamendu eta egintzek, arima berean, agur diote Trinitateari. Ezagutza Aita krea-tzaileari doako; juiamendua, ezagutza argitarat emana, Semeari; ezagutza eta juiamenduari darraikote eginbidea, Izpiritu-Sainduaren itzala. Deus onik egitekotz behar da ezagutza. Oro ezagutzen ditu Jainkoak, eta hartako da osoki ona, handia, argia. Ezagutza osoak ez duke eskasik. Deusen eskasik ez badu, presuna da; presunakoa denaz geroz izate deus gehiago ezin iratxik zaiokena. Bainan ezagutza osoa ungi guzien ithurria bada, hura behar da lehen presuna edo Aita. Ordean Aitak badaki bere izatea. Ezagutzak berekin du gogoeta, Semea bera iduria, Bere Jainkotasunarekin, eta bizkitartean izate berezia. Eskasik ez duke Jainkoaren haurrak. Badu beraz hark ere bere presuna. Aitak nahi edo ez maite du Semea, bere hitza eta haurra. Amodio hura osoa da, eta hartako behar du sortu bi aldetarik. Semeak maite behar du, Aitak bezala. Ethorkitik izanen da amodio hura. Berezia hargatik eta eskasik gabea: presuna. Aita-Semen amodio hori Izpiritu-Saindua da. Aitak ezagutzen du bere Semea bethidanik; beraz hura bezain zahar da Semea, ezagutzaren haurra. Bainan elkhar ere maite dute bethidanik; beraz Izpiritu-Saindua ere hek bezain zaharra da.

Mintzo naiz Trinitate Sainduaz, ez argitu nahiz mizterioa; bainan adirazteko egia horrek ez duela deus adimendua asaldarazi behar duenik. Badakit mugarriak badirela izpirituan, eta hetan egon behar dela, ez egitekotz kosta fedean. Deus ez du gizonak bere burua baino hurbilago: eza-gutzen du bere burua? Zer da hura baithan delako arima, asmu edo gogo-



eta edo nahiak dituen hura? Zer da gogoeta, egintza edo gauza ikhasiak, behar orduan, banazka, atheratzen dituen orroitzapen hura? Zer da adimendua? Nola heldu dire berez arima bererat hainbertze beldur, atsegin, higuintza, aldizka bat bederaren sistaitzaile, jostatzaile, edo nahaistaile? Zer da bizia? Ez da izatea xoilki; izan diteke bizirik gabe. Gogoeta othe da? Baditeke izana gogoetarik gabe ere. Ibiltzea othe da? Mundua bada-bila, eta ametsetarik baizen ez diteke erran bizia baduela. Zer da gure nahia? Jostetan bezala, bere olderat ibilarazten ditu mihi, beso, zango, buru, begi eta gorphutz guzia. Nola diteke hori? Begia ez da kanika bat baino gehiago; nola betan, nahasdurarik gabe elkharrekin, hartzen ditu hainbertze gauza bere handitasun, itxura, toki eta eremuekin? Errextasun guzia badute haren leihoan zeru, lur eta itsasoak. Zer da solasa? Harrabots bat egiten dena ezpain eta hatsarekin soina adiraziz nahiaren arabera; bainan nola ikhasi dute ezpainek nahi horren moldatzen hatsarekin? Nola doa harrabots moldatua ehun beharritarat, hetan hartua izateko adimenduak eman dion berriarekin? Oro mirakulu dire.

Ez liteke beraz espantagarri behar izatea sinhestean gauza ezin elengatuak. Bainan badire erraleak, eian behar den adoratu ilhunmetako Jainkoa? Zoroak! Aiphatu ditugun mirakulu hoiek ez othe dire Jainkoaren lanak? Nola dire bada ilhunbekin? Jainkoa ilhunbetan izanen othe da, ez dakigulakotz hark bezinbat? Ala ez othe dezake sinhetsaraz elengatzen ez dena? Gizonen errana sinhesten da, eta Jainko hitzaren sinhesteko beldur izan behar othe da? Aski da jakitea Jainkoa mintzatu dela, eta hori ez diteke ukha. Badire lekhuko agintza gerthatuak, mirakulu ageriak, Kristori agur egin dion mundua, Elizaren iraupena hemezortzi ehun urthez. Bada hor hitz goibelez bertzerik. Argi handiena dario giristinoen sinhesteari. Asko aldiz diote jakinek: ez diteke gauza elenga, bainan hola da. Bide bera hartu behar da fedean. Jainkoak beharko othe zuen gorde munduaren ikuspen ederra, ez direlakotz oro elengatzen? Balin bada bertze bizi bat eta hangotz eginak bagare, ikhasi behar ditugu gure eginbideak eta behar dugu zerbait ezagutza harat itzultzeko gogoetak. Orai beretik ikusi nahi izatea gero gozatu behar gauza, oraiko begiekin ezin ikusiak, Jainkoaren xedeak barraiatzea liteke. Gauzetan bada haste bat. Emeki emeki handitzen dire edo hedatzen. Adin osoa gabe, haurrak baditu arraioak adimenduan; etzaio betan argitzen izpiritua. Asko darasa behin, jakin gabe ungi zer erratan duen. Bada, gizona da izate bat lurrean haste duena, eta mende bethierekoetan iraun beharra. Lurreko bizia haurtasuna da; handitasuna bethiereko bizian izanen du. Ez dire lurrekotz aingeruen solas eta argiak. Hemen sinhesten dire hekien gozamenak. Hola da Jainkoaren

nahia. Gure jakitate eskasak lanbro uzten diote asko gauzari; bainan ez da khexatzeko. Har bedi itsu bat, ez duena nihoiz ikusi zer gerthetzen den mirail batean. Erratan diote: Horra zure eta gure itxurak non diren gure aitzinean. Hor dire gure goratasuna, begiak, ahoak, besoak, buruak, gorphutzak. Badabiltza aitzinat eta gibelat. Egiten dute orotan guk bezala. Hor dire inguruko gauza guziak ere. Itsuak nahi ditu ukitu gauzak, emanarazten dauzkitzu eskuak berinaren gainean, eta izartzen diotza gora-beherak. Zer nahi duzu erran diezazu? Gezurra erran diozula! Ukitu ditu harri-gizonak lehen, eta atzeman ziotzaten gizonekin itxurak. Bainan berinan oro legun dire, ez da gorabehera eta zabaltasun aski handirik, erran guzien sartzeko; deus ez da ukitzen beso, buru edo gorphutz iduririk. Deus ez da higitzen; ez da barnerik urruntzeko, ez kanporik aitzinatzeko. Nola sar gizon osoak eta gela edo inguruak, gizon bat baino xumeago den toki batean? Adimendua zaurthu nahi dute iduriz holako erranek. Zer erran itsu horri? Etzaioko elengaraz zer diren itxura begiei dohazenak, eta ez ukiari. Begi baten eskasak oro miragarri bilhakutzen diotza mirailean. Gizonaren izpirituak badu hedoi bat, itsuaren gorphutzak eskas bat bezala; eta hortik da mizterioen ithurria.

Andre batek galdu zuen sinhestea. Egun batez aurkhitzen da bekhoz bekho itsu batekin eta galdetzen dio eian sortzetik den hola itsu? Ihardesten dio baietz. Andreak, urrikalduz bezala, erratan dio: Ez dakizu beraz nola argitzen duen iguzkiak eta zein bazter arraia diren hari esker? Ez, Andrea, bainan sinhesten dut badela iguzkia, eta maitagarriak direla haren lanak: Bertzek ere ungi egin lezakete sinhestea badirela gauza eder sinhetsi beharrak, nahiz ez diren ikusten eta elengatzen.

San Agustin itsas bazterrean zabilan, Trinitate sainduko mizterioa buruan. Nahi zuen zerbait ikusi egia handi eta miragarri hortan. Gogotan pulunpatua zelarik, ikusten du haur bat itsas bazterreko zilho baterat ur eramaten maxkur batean. Galdetzen dio zer egin gogo duen? Itsasoa zilho hortan eman, ihardesten dio haurrak. Hirriz jarri zen san Agustin; bainan haurrak erran zion: Uste duzu naski ez dudala itsasoa hor sarthuko? Jakinzazu hargatik lehenago eginen dudala nik hori, ezen zuk elengaturen baituzu Trinitateko egia.

Giristinasuna mizterio horren gainean altxatua da. Khenduz geroz zimendu hori, ez du izaterik. Sinhetsi behar da badela Jainko bat hiru presunetan, eta hiru presunak ez direla Jainko bat baizen. Ez dire behar baltsatu presunak, ez da ere berezi behar izatea. Aitak badu bere presuna, Semeak berea, Izpiritu-Sainduak berea. Bainan Aita, Seme eta Izpiritu Sainduak Jainkotasun bera dute, zorion bardina, bethiko handitasun bera.



Nolako Aita, halako da Semea, halako Izpiritu-Saindua. Aitak ez du has-terik, ez Semeak ere, ez Izpiritu-Sainduak ere. Aita orotan da, Semea orotan, Izpiritu-Saindua orotan. Bethidanik da Aita, bethidanik Semea, bethidanik Izpiritu-Saindua. Bizkitartean ez dire hiru haste gabeak, ez hirur orotan direnak; bainan bat da hasterik gabea, bat orotan dena. Aitak oro badetzake, bai Semeak ere, bai Izpiritu-Sainduak ere. Bizkitartean ez dire hirur oro badetzaketenak; bainan bat da oro detzakena. Aita Jainko da, Semea Jainko, Izpiritu-Saindua Jainko; eta bizkitartean ez dire hirur Jainko; bainan Jainko bat. Aita nausi da, Semea nausi, Izpiritu-Saindua nausi; bainan nausi bat. Egia nahi du aithortzea presuna bakhotxa, eta begiratzten du erratetik hirur Jainko edo nausi direla. Trinitatean ez da lehenik edo gerorik, ez gutiagorik edo gehiagorik; bainan hiru presunak bethidanik eta bardin dire, batasuna delarik Trinitatean. Trinitatea batasunean.

Elizak ez du erakusten bat hiru dela edo hiru bat dela. Erraten balu hirur izate direla Jainkoa baithan eta hirurak bat direla, edo badirela hiru presuna eta hirurek bat egiten dutela, zorokeria baten erakustea liteke. Bainan erakutsiz badirela hiru presuna Jainkoa baithan eta natura bera dutela, ez du adimenduaren kontrakorik deus erraten. Bada hor mizterioa, bainan ez bertzerik. Errateko ez dioazkela hiru presuna izate berari, behar liteke jakin lehenik zer den presuna eta zer den Jainkoaren izatea, gauza nihork ez dakitzanak.

Gizonak baditu eginbideak Trinitateko hiru presunen alderat. Behar du Aita ezagutu bere eta bertze gauza guzien egile eta nausi bezala; Semea, Erospeneko bahi bezala; Izpiritu-Saindua, Elizako argi bezala. Aitari zordun da biziiaz, Semeari erospenez, Izpiritu-Sainduari zorionerat heltzeko argiez. Hiru presuna hoik egiten dute Jainkoa. Othoizten dut onhets dezan ene lana. Ez da deus behinere egin xede hobez. Gure herrietarat heldu da atze hainitz, eta heki darraikote asko haro gure artean nihoiz entzun etzirenak. Nahi nuke herritar bakhotxa jakitatez harmatu, hirriskua ethor orduko. Mintzaturen naiz eskaraz, erran nahi da garbiki, itzulirik gabe, nor nahi denek elenga nazaken bezala.

1



I. JAINKOA

Jaun goikoa, gainekoa, guziz gorakoa, jabe on goikoa, gorenekoa, horra zer erran nahi den Jainkoa. Hitz horrek dio Eskaraz Jainkoak ez duela nihon bardinik; guzien nausi dela zeruan eta lurrean. Hala ere behar da; ezen bada bethidanik berenazko izate bat, gauza guzien egilea, deusen eskasik gabea, indar edo ahal guziez dohatua. Ez da halakorik lurreko gizonetan; bainan nonbait badela ikusten du adimendu batere atzarria denak. Izan ez balitz bethi, nihoiz etzen izanen. Deusek deus ez du egiten, eta badire egintzak. Baitezpada berenazkoa da beharden izatea, ungi guziak darraizkona. Errexago da erratea badela, zer den erratea baino.

Gizon jakin baten ganat joan zen jaun bat eta galdetu zion zer zitekeen Jainkoa? Jakinak ihardetsi zion ikusiko zuela, ethor zadin zenbait egunen buruan. Ethorri zenean berritz, egorri zuen oraino urrunago, eta oraino ere ethorri zenean, are urrunago. Khexatzen hasi zen, eta galdetu zion jakinari noiz arte eginarazi nahi ziotzan pasaieta alferrak? Galdetik ixildu arte, erran zion; ezen badakit Jainko bat badela eta behar dela; bainan zer den, ez dakit orai eta ez dut gero ere hobeki jakinen.

Zizeron, Erroma zaharreko mihi ederrenak zion: «Emagun zenbait populu lurpean bizi direla etxe eder eta aphainduetan. Entzun zuten mintzatzen Jainkoaz eta haren handitasunaz. Egun batez ilkhitzen dire argitarat. Ikustean zeru, lur eta itsasoak, hedoi eta haizen indarrak, iguzkiaren dirdirak; gauaren ilhunbe ezti, izarren urreria, goiz-arratsen ihintzak, ilhargiaren gorapen eta beherapenak, zer erran behar zuten? Ukha othe zezaketen Jainkoa? Zoro behar liteke errateko ustekabeak eginarazten dituela zeruan hain itzuli zuhur eta neurrizkoak. Kroskek erakusten dute oren batean adimenduaren pikoa, eta nola ez ikus adimendu hautuago bat zeruko itzulien eginaratzailean eta aroen sorraraztailean? Ez da zeren gas-tatu hitzik. Begien zabaltzea aski da ikusteko Jainko lanak... Sinhetsi behar dute orok badutela gauzek bere nausi eta giderra. Jaun gorde haren ezagutzari darraizko prestutasuna eta ungiak. Deus ez da egiten haren nahia gabe, lurreko on guzien ithurria da. Ikusten ditu bakhotxaren egintza eta xedeak. Ez ditu ahanzten batzuen ungiak, ezbertzen gaizkiak. Agurtu behar da bihotz garbi batekin. On eta maitagarria da haren ezagutza. Ez da hor zorokeriarik; zorokeria gaizki bat da; bainan hori ungi da, ezin hobeki. Gizona da bakharrik lurrean Jainkoa ezagutzen duena. Jende basa

eta itsuenen artean berean orok ikusten dute Jainkoak behar direla, nahiz ez dakiten behar bada zer darraikon ezagutza horri».

Senekak dio: «Orok sinheste behar dute Jainkoan, sinhesten ere dute bilkuia legez biluzienek. Ez da bat hain ungiaren etsai denik, edo aztura onez hain gabeturik, sinheste horren ez izateko. Munduak behar du gider bat. Harria abailan bezala, ez dabilta itsurat zeruko izarrak. Bada eskua begiratzen dituen makhurtzetik bere lasterka handian».

Azken mendean, afari baten artetik, mintzo zen Jainkoaz jaun multzu bat. Etzitzaioten eder aithortzea bera bazitekela Jainkorik. Bazuten aldean guti beiratzen zioten gizon bat. Noizbait othoiztu zuten erran zezan hark ere zakiena. Xuxen-xuxena orenak jotzen zituen hamarrak. Gizonak beiratzen dio, erranez:

Egile gabetarik badela orena,
Ez da ene buruak sinhets dezakena.

Ez du nihork erran nola atzeman zuten athera aldi hori.

Jaun eta andre batzuek aurkhitzen ziren bazkari handi batean. Asma ahalak erran zituen jaun batek sinhetsarazi nahiz lagunei Jainkorik etzela. Ikusiz etzuela irabazirik, erraten du ezpainak asikiz: «Ez nuen uste, izpiritudun bilkuia batean, bakharra nintzela Jainkoa baithan sinheste gabea». Etzare bakharra, ihardetsi zion Etxeko andreak: gure xakur eta gathuek ere badute zurekin ez sinhesteko ohorea; xoilki badute aski izpiritu ez hortaz haro egiteko.

Huna zer erran nahi den Jainkorik ez dela: gaxtoa naiz, eta hartako beldur izan dadin gain hortan norbait niri zorren galdetzeko. Gizona ez da abere. Horren erratea bera ahalkagarri zaio. Badu arima bat ezagutzen dituen ungia eta gaizkia, abere ez duten dohaina. Hortako da laido handi erratea bati: beharri luz! Gizonari khentzea da bere handitasuna. Bainan Jainkorik ez dela dioenak, erran nahi behar du: hil eta oro akhabo! Ordean horren erratea da: abere bat naiz, eta nolako abere oraino! Xakhurra baino areago; ezen hura lasterrago dabila, hark lo hobeki egiten du, ez du bihotz minik, usnaz ere nausi da. Hobeki dire gathuak ere, ikusten dute gauaz, ez dute soineko eta oinetako beharrik.

Onak ala gaxtoak sobera mintzo dire Jainkoaz, nik sinhesteko bade-la nihor hura ezagutzen ez duenik. Onak mintzo dire amodio edo ezagutzaz, gaxtoak beldurrez. Hura gabe deus ez da elengatzen lurrean; oro gau eta ilhunbe dire. Deus gabe hastetik, deus ez da ikusten ondotik. Ithurria behar du urak, haitza hezkurrak, ihizia arroltzeak, ama haurrak; bainan



ithurri, haitz, ihizi eta amak nondik heldu dire? Ustekabetik? Bainan ustekabea hitz huts bat da, deus ez du erran nahi. Deus ez du egiten, zeren ez baita deus.

II. JAINKOA LIBURU SAINDUEN ARABERA

Lurreko lehen bortz liburuak Jainkoaz mintzo dire. Moises da hekien egilea. Berrehun eta berrogoita hamar urthe Jesus ethorri baino lehen Hebruatik Grekerat itzuliak izan ziren Ptolomeo Filadelfo deithu errege baten manuz. Bazakiten orduan eta aithortzen zuten orok nor zen liburu hoiien egilea. Aitzineko mendetan ere sinheste bera zen. Badire mendez mende liburu hoitaz mintzo diren izkribuak edo gizonak: Malakias, Esdras, Nehemias, Daniel, Ezekiel, Jeremias, Baruk, Paralipomenen. Moisen liburuak Juduen eskuan ziren bethi; hetan zituzten bere legeak, eta Moises handizki aiphatua zen hekien ahotan, Jainkoak egorri eta argitu gizon bat bezala. Nahirik ere nihork, etzezaken ganbia haren liburuetako erakuspenak. Ezen hek ukitu nahiko zituenak deusetan, ukitu beharko zituen mendetako bertze liburuak ere. Batek berak beharko zituen arregin liburu zahar eta berri, gathibotasuneko aitzinean eta ondoan izkribatu zirenak, populuak izkiribatzen ikusi eta gogoz ikhasi zituenak, Salomonen liburuak, Dabiden Psalmoak eta iztorioko liburu guziak, ez denaz geroz Testament-Zaharrean iztorio edo kapitulu bat Moises mintzo ez denik. Lan ederra beharko zen hori, eta bakharra munduan. Nola ere batek emanen zion bakhoxari bere mintzaira? Nola sinhetsaraziko populu bati hark berak egin liburua zaharra zela, bethi agurtu zuena? Uste du nihork populu batek ahanzten duela zer ikusi eta entzun duen bere egunetan? Etziteken deus uki Moisen liburuetan, oro bat bertzeari lotzen direlakotz: iztorioa, mirakuluak eta eginbideak. Israelitak Egiptoatik ilkhitzen dire hamar zaurien ondotik. Ihesi joaiteari darraiko Itsas Gorrian egiten den mirakulua. Jainkoak bere populuari egin ungi horren orroitzapena zen Bazko. Hortik lekhora, Sinaiko mendian ardietsi legea gogoratzten zuen Mendekostek. Beraz Moisen liburuak nihork ezin ganbiatuak ziren deusetan. Bainan egia othe diote bethi? Azken lau liburuetan Moises mintzo da berak egin edo ikusi gauzez, eta hoitan etziteken gezurti edo enganatzaile. Berak erakusten zuen gezurra gaizki zela; etzen handi edo nausi beharra nola nahi. Luzean gibelat egin ondoan, jarri zen buruzagi Jainkoaren oldez, eta etzuen izan saritzat laido, bihotz min eta hirriskurik baizen. Bere haurrak zituelarik, utzi zioten apheztasuna, lehen



herrunka, Aaron eta haren ondokoei. Etzen nihoren ferekatzaile, etziotzaten bekhaiztu azpikoei zigorrada eta lege hertsia. Agertu ditu hekien belztasun, gogortasun eta errenkurak. Ez ditu gorde Nadab eta Abiud bere iloben hutsak, ez eta bere anaia-arreba Aaron eta Mariarenak. Lainhoki agertzen ditu bere hutsak. Ez du bilhatzen aitzakia edo hitz goibelik. Egia dario garbiki. Bertzalde gauza ageriez mintzo da; ez nonbait urrun, baina aldean gerthatuez; ez gauza iragankorrez, baina berrogoi urthetaraino iraun dutenez. Ez da mintzo zurruburruka eta nihork deus ezin ezagutzeko gisan. Izendatzen ditu lekhuak, gizonak, bilkhuia, ezin gehiago xeheki, erraten dituen gauzen lekhuak hartuz ehunetan populuguzia. Ez da hola mintzatu enganatzailea. Baina enganatu nahi izan balu ere, ezin eginen zuen. Beharko zituen sinhetsarazi egia bezala, bere lau liburuetako erranak, nahiz gezurak ziren, populua orroitu gabe; edo beharko zuen populuguziarekin elkhar aditu, orotan adirazteko, egin zituztela gerthatu etziren gauzak. Baina nola sinhetsaraziko zion populuste bati Itsaso Gorria iragan zutela oinez, berrogoi urthez bizi izan zirela eremuan zerutik jautsi ogiz edo janariz, Egiptoazauriz estali zela, baldin holako deus gerthatu ez balitz? Non dire gizon aski zoroak uste izateko, hainbertze urthez, egin, ikusi eta entzun dituztela gauza egin, ikusi eta entzun ez dituztenak? Ez da ere nihoren buruan sarraraziko populuso eta handi bat hain egiaren etsai izan dela gezur ezagutuan partalier jarzteko. Etzuen ere hartuko gezurti baten ganik legetan gogorrena, uztarri dorphena, gero gezurti hura jarri denean buruzagi, odolean garbitzeko hutsik xumena, eta ahalke gorria eramateko mendetan bere egintza goibelen gatik. Nahi izan balu ere populuguzurra lagundu, gauza ezin sinhetsia eta nihoiz gerthatu, gezurra luzerat agertuko zen. Mendi handiegia zen, ez egiteko noizbait asiki eta zilho arinkeria, jelsia eta lainhotasunak, eta aukas ekharria izan balitz ere populuguzia behin holako gezur baten asmatzerat, ardiesteko nihongo gizonak etzuten omen bat, etzitzen utziko izkiribatzerat haren bethiko ahalke egiten duten gauzak: urrezko xahalaren adorazionea, hainbertze errenkura eta asaldura zoro. Beraz Moisen lau liburuetan egia behar da. Baina Moises bethi Jainkoaren izenean mintzo da; haren izenean egiten ditu mirakuluak. Hark egiten zituenak, etzetzaken gizonak egin; beraz Jainkoa lagun zuen; beraz bada Jainkoa.

Moisek lehen liburuan erraten du nola Jainkoak egin zuen gizona, nola ethorri zen uholdea eta nola gizonak hedatu ziren lurrean. Hoik guziak gerthatu ziren Moises sorthu gabe. Hoitaz mintzatzean ere, etzetzaken nihor engana. Hoik oro bazakitzaten Juduek Kaldearretarik. Bere

arbasoak zituzten Abrahamen aldetik. Egiptoarrek ere bazakitzaten, eta hekien artean luzeki bizi izan ziren Israeldarrak. Etzen Moises emanen hirriskutan nihoren trufa izateko, utz zetzakelarik bazterrerat erraten zituenak, baldin ungi jakin ez balitu. Mintza ziteken ere, nihork erratekorik ez izateko gisan. Hitz goibelak badire, eta asko gauza utz ditezke sobera xehatu gabe. Baina etzuen holako beharrik. Lainhoki mintzo da. Ez diteke gezurti, Jainkoak eskutik ibili duen gizona. Jakindu zituen Jainkoa ganik edo ahotik ahorat bera sorthu aitzinean gerthatu gauzak. Bi mila eta bortzehen urthe ziren hartarik Adameraino, eta arte hori, nahiz handia dirurin, bortz bizik bethetzen dute: Adamek ikhusi zuen Mathusalem, Mathusalemek Noe, Noek Isaak, Isaakek Levi Moisen arbasoa. Erren bezaz jakitea ahoz ere zer gerthatu zen aitzinean. Etzen hainitz gauza gerthaturik oraino, baina denak ukigarriak ziren, izpirituetan erro egin zutenak. Badakigu ere zaharrek maite dutela gauza iraganez mintzatzea. Nork daki bertzalde etzen izkiriburik, edo bertze zerbait orroitzapen bide, hala nola tenplo, aldare, harrasi, lege, aztura edo kantak? Aski hartarik.— Orai erran nahi dut Moisen Jainkoa ganik ikasi zituela egia. — Haste hastetik haren legek garaitzen dituzte ondoko mendetan nihongo jakinek erakutsi dituzten guziak. Ez da behinere ilkhi gauza handi eta adimenduzkoetarik; ondokoek zaurthu dituzte egia eta izpiritua. Nola ordean, menden gau eta sinheste goibelean, gizon bakhar batek, bere ahal xoilekin, atzemanen zuen erakuspen bat guziz gorakoa? Etzuen Egiptoarretarik athera. Sinheste zoroenak zituzten haren egunetan. Etzietzaten Kananearrek ere erakutsi; eskuz egin Jainkorik bezik etzuten. Jainkoa izan zuen, Jainkoa nausi. Bazakien ondoan ere hura berekin zuela. Bertzenaz nola aginduko zioten lege begiratzailei sari Jainkoak baizen ezin emana? Ez dire gizonen meneko bizi luzea, bakea, zoriona, aroen gandi ona, behar orduko uriak; eta hoik guziak segurutzen ziotzaten ungi zabiltzanei, hala nola gosete, agorte, azote, izurrite eta gerlak, gaizki zabiltzanei. Haren agintzak bethi gerthatzen ziren; beraz Jainkoaren izenean mintzo zen; beraz bada Jainkoa.



III.

HASTETIK JAINKO BAT BAZELA OROK SINHESTEN

Hastapeneko sinhestea da lehenbiziko populu orok adoratzen zute-
la Jainko handi eta baxharra. Sinan eta Egiptoan ezagutua zen, gizonen
jaura tzarrek hedatu arte ikusi diren hedoi itsusi, goibel eta lazkorrak. Hari
esker, izan dire herri eta erresumak. Haren sinheste goibela bederen gabe,
etzuketen bizirik, orok gutizien arabera egin nahiko baitzuten. On iduri-
tzen bazitzaioten lagunen hiltzea, deusek ezin baratuko zituen. Batzuek
bertzeak bezala izanen ziren, eta orok elkhar hilen zuten, edo etzen gel-
dituko bizi bat baizen, hura hazkarrena eta azkena. Jainkoa khenduz
geroz, etziteken deus on edo gaxto. Hiltzale eta ohoinei nork zer erran
ziozaketen? Abereak bezala zitezken ethorkian, bizian eta akhabantzan.
Bazka eta mugarri beretan zituzten alhamenak. Nork erran zer liteken
holako jendea? Gaindi egin lezakete nahas dura eta lizunkeria orok. Akha-
bo litezke bake, laguntza eta garbitasuna. Lurra zeruan nausi bat gabe izan
ditekkelako orroitzapenak berak, sorrarazten du hainbertze gogoeta lazga-
rri, non orok ez balute erraten ere goraki badela, asmatu behar bailiteke!

IV

ZER ERRAN DITEKEN JAINKOA BAITHAN SINHESTERIK EZ DUTENEI

Sinhesten ez duenari oraino badela Jainko bat errozue: adixkidea,
zure sinheste bereko ninteke, erakusten baninduzu nola hasi diren biziak
edo gizonak. Ez baditu Jainkoak egin, nondik eta nola hasi dire? Sei mila
urthe baditu mundu hunen hasteak, eta geroztik ez da ikusi gizon bat bera
egiten. Emagun bat nonbait egin dela. Handisko liteke hori; bainan ez da
behar bada hastea gaitzenik; dugun jakin zer bilhakutzen den gero.
Xumea da naski sortzean, ezen hortik abiatzen dire orainoko gizon
guziak. Behar dute troxetan egon, ixter xuxenik izatekotz; asko marraka
egin, zenbait erroriko eta tirabirako ere. Bera egin denak ez du amarik
bulhar emateko ez troxatzeko, ez garbitzeko. Uzten dautzut haur hori bizi
ditekela urthe bat herrestan, ama eta soinekorik gabe. Orroitu behar da
gizonak egin dituela etxe, bide eta zubiak. Egun zenean beraz gizona bera,
etzen nihon oihan eta sasirik baizen. Hil ez bazen ere eroriko, hotzez
edo gosez, beharko zen bigarren mirakulu bat. Gizona etzen bera berra-
tuko; beharko zuen lagun bat. Emazte bat ere beraz, hala behar eta, sort-
hu behar zen bera. Hura ere etzen ungi izanen, xutik joan arte bederen.
Apho bat bezala, potikoka zabilaino othe edo sasi zokhotan, etziteken
deus bihotz altxagarririk. Bi haurrek, muthikoak eta neskak, sorthu behar-
ko zuten egun bertsuetan. Ez erran jostatzen naizela. Holako bia ez badi-
re sortzen nolaizpait, ez diteke elenga nola sorthu diren gizonak Jainko-
rik gabe. Ez da hor guzia. Lurra zabala da, eta asko urthe beharko zuten
bi haurrek elkhar atzeman artean, non etziren, behar bezala, bat bertzea-
ren aldean sorthu, nolatsu bi hondo haitz azpi batean. Bat sorthu balitz
Parisen eta bertzea Madrilen tokian, etziren ehun urthez elkharganatu-
ko. Beharko zituzten zubiak egin hibai orotan, sega edo haizkora edo itzerik
gabe; bideak ere ideki haiotz edo phudarik gabe. Usna ere onskoa behar-
ko zuten jakiteko bat bertzearen berri edo ez bidetan gurutzatzeko bizpa
hiru lekhoetan; bertzenaz elkharganat hurbildu beharrak, bazioazken bat
bertzea ganik urrunago. Mirakulua izanen zen xuxen xuxena elkharri
buruz ibiltzea, jakin gabe batek ez bertzeak, non nor eta zer zen. Bazen
hiltzeko haurren, elkhar ikusi gabe. Beharko ziren sortze berriak. Lurrak



erdi beharko zuen asko hurrez, ikus artean bia handitzen eta elkharganutzen. Orai ez bezalako aroak beharko ere zituen. Ezen ez du gehiago berak ekharri nahi, baizen zenbait pirritziku, elhorri, othe edo lahar. Baditeke lehen bi gizonak egitean xukatu zitzaizkon adimenduzko gaiak. Baina bi haur berak egin direla erran ondoan, ez othe da deus galderik egiteko? Gizonen gorphutzeko lanek antzeak badituzte, edo erakusten dituzte egilean. Ikhustekoak dire beso, ukhondo, erri eta zainak; begi, beharri, usna, bephuru, hortz, mihi, sabel eta hortzak. Batasun handiena dute elkharrekin. Miragarri da nola nahikunde batek abiatzen dituen zangoak pasaietan, eskuak lanean, mihiak erasian, beharriak zelatan, hortzak asikika. Lurraren dolharek egin othe dituzte bada hoin gauza zuhur eta antzezkoak? Orai ezagutzen ez diogun harmarik beharko zuen lanen egiteko; urthe asko ere bai. Behar bada hargatik oro betan egin zituen, has-tamuka hari gabe zer ziteken on edo ez. Bertenez atzemanen ziren, non edo han, lan hasi eta utziak. Ordean ez da nihon ikusi zango, beso, begi, ixter, sabel edo zintzur hasirik edo erdi eginik. Erranen du oraino nihork gizonak berak egin direla edo gizonak egin dituztela?

Gizona hastetik egitea baino errexago liteke iduriz hil baten piztea. Gorphutzak baditu oin, sabel, errain, hezur, buru, lepho, mihi, erri, hortz, kokots, ezpain, sudur, mazela, begi, kopeta, ile, bulhar, errota, hertze, sorbalda, bizkarhezur eta aztalak. Bizkitartean lurreko antze guziak ez dire askiko hari biziaren harrarazteko. Ez du hatsa baizik eskas. Aiztian oraino bazabilan. Oso osoa da. Emozue lurrari, emozue gizoni: eian ibilara-zi edo mintzaraziko duten! Ageri da lurra eta gizonak ez dezaketela hola-ko lanik egin.

Bada, bada Jainko bat. Liburu Sainduek erraten dute zer den: Bethetzen ditu zeru-lurra, ez du nihon edo deusetan mugarririk. Nork emanen ziotzan athekak? Zeruaz gorago da, lurrak beheago, itsasoaz urrunago. Mendi eta izarrak baino lehen zen. Bethi bazen, bethi da, bethi izanen. Ezagutzen ditu oro, eta bera ez du ezagutzen bere izpiritua baizen. Deitzen ditu bere izenez direnak eta ez direnak. Deus ez du ahantzi iraganetarik. Badakitza orai eta geroa. Ez galde nola ezagutzen dituen oro, zeren ez baititu bertzek bezala ezagutzen. Ez da haren nahia gabe xori bat hegaldatzen, ez lili bat sortzen, ez ile ondo bat erortzen. Besoa luze bezain, zorrotz du begia.

V. JAINKOA UKHATZEN ZENBAITEK EGINBIDEI IHES EGITEKO

Jainkoa ukhatzen dute, sinheste horri darraizkon eginbideak bethenahi ez dituztenek. Baina hek begiak hetsirik ere, ez du gutiago distiatzen. Hargatik hetan hainitzek ere ez dituzte eskas aitor onak, gaitz handi batek hartzen dituean. Ikusten dire barkhamendu eskez. Beldur dire! Zerk ematen diote beldurra? Gaitzak ez du argirik; sinhestearen hautsa higitu du, eta barnean zen sua. Ez dute zeren erran gaitzak burua galara-zi diotela: zoroen aitzakia da hori. Zertako ez dire gaitzean ikusten onak, hek gaizkia bezala, negarrez higuintzen ungiak? Ez da buru galtzetik heldu beldurra. Gaitzik gabe ere badire intzirinak: Hurbiltzean hirriskua, arima da sartzen bere baithan. Gerthatzen zaio hordi bati bezala arnotik ilkhitzean, direnak diren gauzen ikustea. Voltairek etzuen trufarik baizen Jainkoaz, lagunekin eta ungi zenean. Gaitza lothu orduko, gogoratzen zitzaion Jainkoa, eta galdetzen zuen apheza. Sendatu orduko bihurtzen ohi zen bere bide goibeletarat. Baina luzaturik ere, herioa bethi heldu da. Gizon ondiko-ko hori, hanbat gaizkiren ithurria, hartzen du azken gaitzak. Etzuen ahalke berritz ekharrarazteko apheza; sobera argitua zen, ez ikusteko bazela Jainko bat, eta eman zituela eginbideak bethetzeko. Baina Jainko hark etzuen nahikatu ikus zezan gehiago aphezik. Hil zen patarrakaz, zioelarik: utzi naute Jainkoak eta gizonak!



VI. AKHABANTZARAINOKO GOGORTASUNA JAINKOAREN ZIGORRADA

Badire gogorrarena egiten dutenak azken oreneraino. Jainkoaren azote bat izaten da hori. Soberak sobera zaizko gaizkian, lurekotz ere. Hein batean hesten ditu grazien ithurriak. Bekhatore handi bat eritzen da. Aphez axkide batek nahi du orroitarazi bere arimaz. Ez dio deus ihardesten. Nahi du kobesarazi: bai, kobesatu nahi dut, dio eriak; bainan ez du deus gehiago erraten. Apheza mintzo zaio minkiago. Eriak erraten dio: zato bihar. Biharamunean iduri du kobesatu nahi dela, eta egiten du gurutzearen seinalea. Behin ez du deus erraten; gero lazgarriki adirazten ditu liburu sainduetako hitz hauk: Bekhatorea argituren eta hasarreturen da; eta ematen du burua estalkien azpian. Kobesorak agertzen dio, erranez: Ez da gehiago egoterik, behar da akhabatu. Bai, bai, ihardesten dio eriak: bekhatoreak karraskaturen ditu hortzak eta errabiak erakutsiren, eta bigarren aldikotz ohean barna. Kobesorak othoizten du nigarrez akhaba dezan. Bai aita; kobesa gaiten, dio eriak, eta hirugarren aldikotz sartzen da ohean barnago, erranez bertze liburu sainduetako hitz hauk: Bekhatoren nahiak hilen dire. Aphezak agertu zuenean, hila zen!

Dioklezianok utzi zuen khoroa. Geroztik hiratuaz zaramakan bel-durrak. Entzuten zituen galarazi Gristinoen marraskak, eta hainitz aldiz, uste zuen trenxoinean zituela hekien gorphutz sarraskituak, eta gathiluan hekien odol zurrutak. Har batek iretsi nahi zion bihotza. Minek gaindi egin zioten, bereziki Konstantin tronurat higategian, xukatzeo bezala hark jauzarazi nigarrak. Bihotzak leher egin aitzean barraiatu zituztela haren lan guziak, eta haren tzarkeriek hobeki baizik etzutela maitarazi egia. Errotu zen, eta burua galdurik egon ja azken oreneraino. Gauaz entzuten zituen orro lazgarrienak, deitzen gardiak, hartzen enperadoren soinekoak, ustez lehengoa zen. Bainan arte onetan, ikusten zuen aski deusik etzela. Hilen itzalek arantzezko khoro bat egiten zioten. Batzuetan heldu zitzaion begietarat juie lazgarria. Orduan arthikitzen zituen eta xehakatzen soinekoak, deihadarka eta marrumaz zioelarik: ez dut nik egin, bertzen lana da! Ihardesten ziotela zirurin: bertzeak muthil hituen, hire hitzek zabilzkateian hekien besoak. Hainitz aldiz bilhatu zuen bere

buruaren xahutzea; hartu zuen pozoina ere, bainan ez aski. Noizbait begiak athera zitzaizkon bere tokitarik, buruz harrasiari joka. Hil zen, bihotza zaurtua eta burua nahasia.

Jainkoak ez du mintzatzeko beharrik, ixilik egin dezake bere lana. Jaun bat gardian zen. Badoa etxerat, unhatu den ondoan. Bazuen berekin gakhoa, eta sartzen du barnat. Hastamuka doalarik, jotzen du norbait zangoz ezkaratzean. Behin uste du muthila duela han, hordi eroria, zenbait aldiz gerthatu zaion bezala. Hartzen du besoetan; bainan gorphutzak hila diruri. Hasten da oihuz. Oro laster biltzen dire argiek; eta ikusten dute etxetiarra hil hotza. Zituen guziak egorririk lizunkeriatan, egitekoetan gaizki zen. Nola baitzakien nausia kanporat beharra zela gau hartan, eman zuen buruan etxea behar ziola arrobotu, eta herioak jo zuen ohointzaren erdian!



VII. JAINKOAREN PROBIDENTZIA

Jainkoa da gauza guzien giderra. Deus ez da gerthatzen ustekabez. Oro egin ditu, oro badabizka, eta gauza guzientzat arthak darraizko. Ez diteke iguzkia argiz gabe, ez Jainkoa axolaz. Aitak begiak haurren gainean ditu; Jainko Aitak ikusten ditu nahi edo ez ungi eta gaizkiak, sobera eta eskasak. Biden aphaintzailea da orotan. Betan eta oihuz egin zuten Aita-Saindu Pio bederatzigarrena. Postan zioan Imolatik Erromarat. Italian karrosek bethi hainitz jende bilarazten dute. Kardinal baten karrosa, eta kardinal Erromarat orduko Aita-Saindu ziteken baten karrosa, etzen nolanahe joaiten ikustekoa. Marxetako herri ttipi batean, jende oste batek inguratu zuen beraz Mastai kardinala. Oro beira daudelarik, heldu da uso bat, eta jartzen da karrosaren kukulan. Oihuz eta eskuz joka hasi ziren: Biba! Aita-Saindua dakhar karrosak. Egin zituzten egin ahalak usoa hainzarazteko oihuz, baina etzuten higerazi ere. Hartu zuten seska bat, emeki kirtzikatuz hegaldarazteko. Abiatu zen goiti, baina itzuli zen egin ondolan, berriz hartu zuen karrosa gaineko tokia. Berritu ziren deihadarrak: Biba! biba! Imolako aphezpikua Aita-Saindu izanen da, Aita-Saindu izanen! Bozkarioak gaindi zuen. Amakatzen dituzte zaldiak harrabots guzietan; baina oihu, arruden burrunba, eta azote klakakoen gatik, bere tokian egon zen usoa, Erromako athetaraino: zenbait egunen buruan Mastai Aita-Saindu zen!

Lurreko makhurrek sorrarazten dituzte errenkurak; baina nork erran askotan ez dela bakhotxa bere minen ithurri? Napoleon hasi zenean egiten Erromako erregeren jauregia, hargin nausiek poxolu aurkitzen zuten Simon deithu zapatain baten etxola, Passy inguruan. Mintzatzen dute zapataina eta erosi nahi diote bere tokia. Galdetzen diotzate hogoi mila libera. Laneko buruzagiek handi atzeman zuten galdea; baina zenbait egunen buruan erori ziren hartarat. Bitartean zapatainak izan zituen sustaitzaileak, eta galdetzen ditu berrogoi mila libera. Galdea berrehuntan sobraniatua zen; utzi zuten Simon bere gisa, eta hasi ziren lanean, arrunda handiago bat hartuz eta urrunago-danik. Baina hala ere, ikusi zuten deus ederrik etzezaketela egin, Simonen etxola gabe, eta badioazko bigarren galdearen topatzerat. Berriz ere Simonek galdea goratzen diote, eta nahi ditu hirur hogoi mila libera bere etxolaz. Eskaintzen diotzate

berrogoi eta hamar mila; baina ez du ardit batez ere jautsi nahi behe-rago. Enperadoreak orduan erran zioten bere gizonei gehiago ez emateko, eta etxola uzteko bere jabeari. Zapatainak ezagutu zuen laster bere hutsa: berak hetsi zion athea zorionari. Joan zen ondotik eskaintzerat etxola, behin berrogoi eta hamar mila, gero berrogoi mila, gero hogoi mila liberetan! Baina hirriz eta trufaz itzuli zioten burua. Handik bi urtheren buruan, Simonek saldu zuen etxola ehun eta berrogoita hamar liberetan. Erreka jo zuen, burua galdu, eta erroen etxean hil zen 1846ean.

Sineste gabe bat mintzo zen bilkhuia batean, khendu nahiz bezala Jainkoaren orroitzapena bera. Ez da Jainkorik, zion oihuz! Balin bada, mintza bedi! Hori erran zueneko, ihurzuri batek arthikitzen du tirabiraka. Guziek uste zuten hila zela, baina bi orenen buruko ethorri zitzaion adimendua: etzuen hargatik gehiago galdetu bazen Jainkorik.

Negu aldeko jaun batek saldu zituen bere gauza guziak zorrei buru emateko, eta husterat zioan berrogoi urthe hartan bere aita-amekin eza-gutzen zuen etxea. Etzakien norat jo, norat itzul. Hauzo batek erosten du hura zagoen etxea, eta noiz ere baitzioan husterat, heldu zaio, erranez: egon zaite zure alderdian. Zure gatik erosi dut etxea. Min nuke, min handiena, ez bazindu egiten nik nahi bezala. Nik egin dudana hanbatenez hobeki ikusi behar du zure bihotzak, non bera gai izanen baitzen bertze horrenbertzeren egiteko. Berthuten saria zen hori.

Aspaldion ahal bezala bizi ziren bi senhar emazte zahar eta prestu. Gizonak erosten diotza berrogoi sosetan soldadu eri bati galtza hari lodiz egin batzuek. Barraiatzen hari delarik, emazteak gerrian atzematen diote paper biribilkatu bat, ematen dioena berehala senharrari, erranez: ikusazu zer den saindu hau; bardin zuk badakizu irakurtzen. Gauza begiztatu gabe ungi, senharrak erraten dio: Errepublikako asinata da; holako ederrik ikusia nago gazte nintzenez! Gure aita zenak bazuen holako orga bat ximiania zokhoan! — Zertako da hori, galdetzen dio emazteak? — Deusetako orai, eta lehen diru atzematuko. Bizkitartean pulita da; dugun itza leiho ondoan. Erran bezala egin zuten. Handik zenbait egunen buruan, heldu zaiote hauzo bat, eta ikustean paper hori, erraten diote: Ho, ho! Noizdani tapizatzen duzue suhaldea bankako billetekin? — Paper hortaz mintzo zare, erraten dio emazteak... Ah! asinata hortaz, dio senharrak? — Paper edo asinata, errazue nahi duzuen, baina mila liberako billeta da, eta nahi duzuen bilhakutuko duzue diru. Ez diteke holakorik, diote hirrikitan senhar-emaztek. — Izankidin baino gehiago da, hala baita, dio



hauzoak; eta jakiteko laster eta hobeki, goazen bankarat. Etzuten bertze-rik galdetzen zaharrek; bainan nola itze eta irinez lothu baitzuten papera, etzen errex osorik atheratzea. Nahiak ematen du inginu: sahetsetik azpi-ko adrilua karrakan janez, bildu zuten nolazpait papera, kisu eta mortero zariola. Arras ona atzeman zuen bankierak, eta eman ziotzaten mila libe-ra hartan truk: Bide hortaz behar bada oraino Jainkoak saristatzen zituen bere bi haur!

Beauregard, predikari handi batek, hainitz erran zuen egun batez Jainkoak bere haurrez duen arthaz. Etxerat zenean, gizon batek bi hitz egin nahi izan ziotzan. Jarrarazi zuen eta hedatu zion beharria. Atzeak erran zion: Jaun apheza, mintzatu zare ezin gehiago hobeki; altxatu duzu jaunaren ontasuna; bainan beldur naiz othe den ere Jainkorik batere. — Nola! Zer darasazu, gizona, erraten dio aphezak? — Bai, jauna, beldur naiz Jainkorik othe den edo deus ikusten duen. Ori, ikusazu zeorrek: badituz hirur haur eta emaztea; zur lantzaile bat naiz. Egin ahala lanean hari gure etxeko guziak. Ez diogu nihori gaizkirik egin, ez egiten... — Sinhesten dituz hoik guziak, bainan zer nahi duzu hortik athera, galdetzen dio aphezak? — Huna zer nahi dudana: hil hunen hamarreen egin behar nituzke paga batzuek, eta ezin eginen dituz. Lehen aldikotz jan beharko dut ene hitza. Hainitz athe zor derautenetan jo ondoan, deus ezin bildu dut: ithotzerat noa! — Nola gogoeta horrekin ethorri zare ene predikar- rat? — Etzen ene xedea zure entzuteko. Eliza inguru nindoan, ikusi dudanean jende oste bat han sartzen. Galdetu dut berri, eta erran dautet predikari handi batek behar zuela mintzatu. Sarthu eta egon naiz. Entzun zaitut azken hitzeraino, bainan ikustean ene burua, izan dudana artha bethi nihori gaizkirik ez egiteko, eta ez jakin norat joka, ez dezaket ikus Jainko-rik badela. — Zer! ene gizon maitea, zure xede tzararekin sarthu zare Elizan, entzun nauzu, niganat ethorri zare, erran dauzkidatzu zure minak, eta hoik guzietan ez duzu oraino ikusten Jainkoaren lana? — Hoik guziak zerbait dire naski; bainan nork eginen du ene paga hilaren hamarreen? Beauregard ukitua zen bihotzaren zolaraino, eta erran zion: Sinhesten dut ez duzula gaizki handirik nihori egin, etzarella beharrean zuregatik, eta ez nauzula atzeman nahi: Zenbaten zorra dukezu? Ez naiz aberatsa; bainan lagun zaitzaket. — Ah! jauna, bihotz ona duzu; mila luisez petik oro arri- ma netzake. Beauregard altxatzen da ekhartzen ditu kutxa batetik ehun eta berrogoita hamar urre. Ematen diotza gizonari, erranez: Axkidea, horra zuk behar duzuna. Ez nuen neorrek izanzen diru hori; bainan egun hoitan ene prediku zenbaitetan gerthatu zen andre batek egorria nuen

norbait beharri emateko: erranen duzu oraino ez dela Jainkorik edo ez duela begirik?

Indietan zabiltzan bi jaun aphez arimen ondotik. Baitezpada batek sarthu nahi izan zuen oihan handi batean, bertzeak kontra egiten zion arren, beldurrez gal zitzen. Noizbait heltzen dire hesiz egin etxola baterat. Han atzematen dute agure bat hil hurrena. Aphez ezkertu nahi izan zenak galdetzen dio eian ezagutzen duen Jainkoa? Badakit, ihardesten dio, bade- la norbait egin gaituena; bainan ez dakit nor den, nahiz ungi nahi nuken ezagutaraz balezadat bere burua. Hark egortzen gaitu, erraten dio aphe- zak; erradazu eian hil duzun nihor, zure lagunek bezala? — Ez dut nihor hil, zeren ez bainuen nahiko nihork ni hiltzea. — Ebatskorik egin duzu? — Ez dut deus ebatsi. Gauza handirik ez dut, bainan denak ere ez nuen nahiko nihork eramatea; hartako nik ere utzi diot bakhotxari berea. — Erran duzu gezurrik? — Zer da hori? — Bere uste edo egiaren kontra mintzatzea. — Ez dut holakorik egin. Zerbait erraten dautedanean, atse- gin dut zinez mintza zaizkidan, eta nik ere egin behar dut bertzek niri egi- tea nahi nuken bezala. Miratu ondoan xoko guziak, jaun aphezak ikusi zuen agureak etzuela bekhatu handirik, entzun zuelakotz Jainkoak zuzer- nerako gu baithan eman duen legearen oihua. Erakutsi ziotzan labuzki egia beharrenak; bainan bathaioa nahi zuela erran zionean, urik ez! Bi aphezetarik bat joaiten da bilha, eta nihon ez du xortik atzematen. Ja etsi- tua zuen aski hurbil nihon bazitekela, zuhamu osto zabal bat ethorri zitzaionean begietarat, trenxoin bat ur bederen gainean! Bathaiatu zuten gizona eta ikusi hiltzen bozkario handiaren: Ez othe zen hor Jainko lanik?

Guziek ezagutzen dute Robespierre, entzutez bederen. Egin zuen behin aithor hau: zer nahi dute sinheste oro oinetan ematen dituztenek? Ezdeustasunak othe da apostolu beharrik? Nork egorri ditu erraterat Jainkorik ez dela? Su eta khar dire erakuspen horrentzat, eta ez dute herriko ginhar bat. Zer nahi dute. Sinhetsaraziz deusik ez dela nihon, oro ustekabe itsuaren lanak direla, ungi eta gaizkia bardin, eta arima hats bat hobiraino dirauena?



VIII. JAINKOAREN UKHATZEARI DARRAIZKON ZORIGAITZAK

Nongo erresuma izan da Franzia bezin gaizki ikharako egunetan? Gaitzen pesia Jainkoaren ukhatzeak egorri zion. Bernardin, gizon jakin batek, Jainkoa aipatu zuen Parisko bilkhuia lehenean. Batzuek hasi zitzaizkon hirriz, bertzeak galdez non ikusi zuen, eta nolakoa zen. Hantzak ziren ezin jasan zezaketenak haren sinhets errexa; gehiago, hartaz nardatzen zirenak. Trufak zin bilhakatu ziren laster. Ile zuritu gizonak hasi zitzaizkon ergelka eta ahorat ethor ahal guzien erraten. Hekien arabera, biltzarraren ahalke eta ongarrria zen. Kabanis, arrapoa zariola, oihuz zagon: Ez da, ez da Jainkorik! Ez beza nihork hemen aipha izen hori! Bernardinek erran zituen gauzarik ukigarrienak; bihotza mintzo zitzaion; othoitz eta kharra zarioten haren hitzei. Erraten banu Jainkorik ez dela, zioen, zue-taz trufatzea liteke: Erro behar da errateko egerditan eguzkirik ez dela; nihongo burudunek ez dute ukhatu Jainkoa, bere gaizki handienen artean.

Deusik etzuen athera; buruak sobera bero ziren eta naski bihotzak amarra goibetan. Ez da zeren deus handirik erran halakoei. Bizkitartean badire egia entzun dutenak leze itsuenen erdian. Louis Thuringekoa gaizki zabilan, eta zerbait erran nahi zioten guziak tapatzen zituen hunela: bada edo ez Jainkoa. Ez bada Jainkorik, zeren beldur izanen naiz? Balinbada, jadanik badaki galduko naizen edo ez: Galdua izan behar badut, ez dut zeren ganbia; ez banaiz galdu behar, banoake oraino aitzinat. Eritzen da, eta miriku aitu eta Gristino batek erraten dio: Ez dut zeren deus egin zure sendatzeko: Jainkoak badaki sendatuko zaren ala ez; sendatu behar baduzu, gure erran eta egintzak alfer dire; sendatu behar ez baduzu ere, oro galduak. Oihuz hasi zitzaion eria, nola eta zer mintzo zen, akhabo zela laguntzen ez bazuen; egitea egin ahala, zuhurtzia zela! — Ez duzu ungi atzeman ene errana gorphutzaz doanean, ihardetsi zion mirikuak, eta zertako mintzaira bera daukazu arimako gauzetan? Zuhurtziak nahi du gorphutza arthatzea, nahiz Jainkoak badakien zer gerthatuko zaion, eta zuk, zertako ez duzu uzten bizi galdu baten aitzakia, erranez Jainkoak badakiela jadanik galduko zaren ala ez? Eria ganbiatu zen.

Jainkorik ez balitz, hiltzean gizonak erran behar luke: akhabo bethikotz! Zer bihotz altxagarria doanarentzat eta egoten direnentzat! Bada

oro hil hotzak beldur eta ikharaz erortzeko! Nola jasan orroitzapen hori? Bihotzen galdea da Jainkoa; gizonen izateari darraiko; izatea bera delakotz ez da gezurra. Galdetzen du heriotzeak, bai biziak ere; gizonak ez dire bethi aski, beharrei buru egiteko. Harri-giltzurin batekin jotzen dute Aristhenes karrika baten erdian. Jakin nahi du nork jo duen, eta gutienerran, eman gogo dio mustupiletako bat; bainan ikustean bera baino hazkarragokoarekin dituela xuriketak, atheratzen du urre bat zarpatik eta ematen dio, erranez: ori, axkidea, hartazu hau, ez gutiz utz; beharatsa banintz bazinduke gehiago. Bainan hara hanxe jaun bat, gure aitzinean. Egiozu niri bezala, eta satisfatuko zaitu hobeki: emanen dautzu bientzat. Aitzineko jaun hura zen Epaminondas, bere egunetako gperlari handiena. Oinez zioan bi aitzindarien erdian, hamar bat soldado gibelaxagotik. Gizonak sinhesten du Aristhenes, eta naski ustekabez aberastu behar duelakoan, arthikitzen dio Epaminondasi bizkarrerat altxa ahaleko harri bat, eta badago ziri bat bezala beira zer emanen dion. Izan zuen bere saria! Han berean lehenik bi soldaduek umatu eta eho zuten, eta gero herrestan eraman herriko gela beltzerat. Odola jarian zaramakatarik, Aristhenes athera zitzaion biderat. Ah! zuri handia, erran zion harrikariak; norapait egorri nauk! hau da ene saria? — Ihardetsi zion Arishtenek: Ez huen bertzerik behar; zertako jotzen hituen bakezko jendeak? Atzeman duk, nik erran bezala, bien saria! Jainkorik ez balitz, gaizkiak ez luke maiz amarrarik. Hari esker dire berthuteak ere.



IX.

JAINKOA BERTHUTEN ITHURRIA

Bi nausi zaharkituek lerrarazi nahi zuten gaizkirat andre gazte bat. Hekien nahia ez eginez, galdua behar zen jende onen begietan, iduri guzien arabera. Zer egin? Altxatu zituen begiak zerurat, erranez: orotarik hartua naiz. Haukien nahia eginez, galdua Jainkoarekin; ez eginez, herri-tarrekin; ezen gezurrei bide emanen diote ene hertsazalek. Nahiz bai; lehenago hilen naiz, ezen eginen baitut gaizkia. Jainkoak erakutsi zuen bere eskua hinka hertsu hortan Susannari, bainan jadaneko haren beldur xoilaz emana zuen garbitasuna gerizean.

Nabukodonosor erregeak galdetzen du oro khurtzea haren urrezko itxuraren aitzinean. Etzuten sinhetsi Ananias, Azarias eta Mizaelek. Egia da ez duzuela adoratu nahi ene itxura, galdetzen diote erregek? Joanen zarete surat eta ikusiko dugu nongo Jainkoak lagunduko zaituzten.— Muthil gaztek ihardesten diote: Jainkoa aski handi da gu sutik atheratze-ko nahi badu; bainan han utzi nahi bagaitu ere, ez dezakegu zure itxura Jainkotzat ezagut: ez da Jainko bat baizen. Honia gorriko kharra zazpie-tan gehiago berrarazten du erregek, eta arthikitzen ditu barnerat gizon gazteak, beso eta oinak amarraturik. Halako khalda zuen suak, non arthi-kitzaleak hatsgabatu baitziren. Aingeru bat etorri zen labeko surat, jabal-du zituen kharrak, eta ikusi ziren hiru gizon gazteak, suan pasaio, Jainkoa benedikatuz. Ikusi zuen gauza erregek, eta erran: Jainkoaren haurrak, ilkhi zaitezte hortik. Jainkoa agertu zen hor, bainan jadanik haurrek etzuten nahi izan gizona adoratu: Jainkoaren orroitzapenak bitoria eman zion berthuteari!

X.

ZER IGURIK DITEKEN SINHESTE GABETARIK

Aita-ama batzuek galdu zituzten sinheste on guziak, eta altxatu zituzten bere bi seme eta alaba bat, Jainkoaren beldurrik gabe. Zer gert-hatu zen? Lehen semea bethiko burdinetarat joan, bigarrenak etxea arro-batu zuen, alaba bere senharra utzirik joan zen gizon tzar baten ondotik, eta hartaz laster biguindua, hil usteldua etxe galdu batean. Jainkoaren bel-durra khenduz geroz, holako lanek bidea zabal dute non nahi.

Egun batez, d'Alenmert eta Condorcet, bi sinheste gabe aipathuek, zioten Voltaireren etxean, etzela Jainkorik. Nausiak ixilarazi zituen, muthi-lak urrundu arte, erranez: etzuela gauaz urkhatua izan nahi. Sinheste gaben buruzagiak etzuen uste bazela biziaren bahirik, Jainkoa baithan sinhesterik gabe: Jainkorik ezagutzen ez duenak, ez luke behar tokirik gizonen artean.

Oho in bat zen juien aitzinean. Lekhuko bati galdetzen diote zina. Ez du egin nahi. Behin, bietan, hiruretan dio ez duela eginen, iratxikiz: duela bi urthe ere etzuela egin, ez lekhukotasunik bihurtu. Zein sinhestetako zare, galdetzen dio juieak? — Ez dut sinhesterik, ihardesten dio. — Bada-kizu zer erran nahi duen horrek? — Arras ungi: Jainkorik ez dela. Gauza bera ihardetsi zuen haren lagun batek. Oro ahalkatuak eta marmaraz jarri ziren. Juiea, gorri-gorria egina, altxatzen da, eta erraten diote lekhukoei: hutsazue toki hau, urruntzaitezte hemendik, ahalkagarri da Angelesentzat holakorik entzutea bera!



XI. SINHESTE-GABEN GURIOPEA, ERGELKERIA

Izpiritu gaindiz izatea zaiote xori buru batzuei sinheste onen ostrikatzea. Jaun aphez batek ungiz leher egiten zuen herri batean, ez izpiritu hainitz zuelakotz, bainan zeren zuen bihotzetan khartsuena. Gizon gazte bat ethorri zitzaion behin, bere ustez jakina, Luzifer bezin urgulutsua, burlan erraterat: hainitz mintzo zare Elizatik; jakinzazu bada zer sinhesten dudan: ez da Jainkorik ez bertze bizirik. Etxe batzuek bezala gare, herioak barraiotzen gaitu bethiko. Huntzak dire zuri beharriak hedatzen dautzutenak. Jekitzen gare, asetzen, jostatzen, lokhartzen, hiltzen: horra lehen, orai eta gero guzia. — Errotorak erraten dio amultsuki: haurra, zer egin daiagu hik gu hoin behera eman nahi izateko? Ah... bainan ez; sobe-ra izpiritu duk sinhesteko hi eta hire zorria bardin zaretela.

Jaunskil potingo bat mintzo zen Oudin aphezarekin. Zerbaitearik jo zuten Jainkorat. Aphezak erran zion, etzuela han mintzatu nahi Jainkoaz. Takoinaren ganean itzuli bat eginez, jaunskilak erraten dio: Ez dut deusen sinhesterik! Oudin gelditzen zaio beira, harmatua eta erdi irriz. — Zer duzu hola niri beiratzeko, galdetzen dio Thomas koxkok? — Orai ikusten baitut lehen aldikotz sinheste gabeko zoroa; horra zertako beiratzen zaitudan.

XII. JAINKOAREN ETSIAK, APHEZEN ETSIAK

Jainkorik nahi ez dutenek, ez dute nahi Jainko gizonik. Batentzat duten higuintza dute bertzentzat. Jaun bat dena solas, dena piko, gorphutza gatzetan xizku hertsi batean bezala sarthua, kokotsa bizarrez aberats, eskularru xuriekkin, zigarro bat bethi musuan, gerthatu zen aphezpiku batekin karrosa berean, eta gehiago ariarik gabe, galdetu zion: Zerk berez-ten zituen beharri-luz eta aphezpiku bat? — Aphezpikuak ezti-etzia ihardetsi zion: Ez dakit. — Nik erranen, dio jaunak: beharri luzek gurutzea bizkarrean baitu, eta aphezpikuak bulharretan. Hori aitzean, guziak hirriz eman ziren. Aski egin zutela iduritu zitzaionean, jaun aphezpikuak galdetzen dio jaunskilari, ezagutuz zer zen: nola berezten da beharri-luz xantillun hedatzaile batetik? Jaunskila harat-hunat abiatzen da, galtzetan hertsi, nihon ezin egonez; nahi zuken zerbaite ihardetsi, bainan deus onik etziztaion heldu gogorat. Azkenean aithortu zuen etzakiela. — Nik ere ez, erran zion aphezpikuak.



XIII. JAINKOAK BADAHI ZER DEN ON

Zenbaitek eskasak atzematen dituzte lurtean, eta hetarik, ekharriak dire erraterat ez dela Jainko oro bere nahitarat egin detzakenik. Bainan nork daki, hekientzat gaizki direnak, ez direla on eta behar Jainkoaren xedetan? Erretablek badituzte itzalak, eta itzal hek ez dute deus gastatzen. Ez dakite orok zertako diren oren batean arruda, itze eta eroskak: Gutia-go beharrak othe dire hortako? Orroitu behar liteke batbedera baratze zain hartaz, zeinak ikustean khuia herrestan landare flox batetik, eta hezkurra haitzetik dilindan, nahi izan baitzuen zerbait erran. Uste zuen khuia hobeki izanen zela haitz adarrean, errexkiago garraiatuko zuelakotz haitzak, eta agertuko ere zelakotz hezkurra baino ederrago, egon gabe bere egun ederretan belharpean bare eta harren bazka, ezin onduz askotan iguzki eskasez. — Hezkurra ere aski zen khuia landarearentzat. Etzion adarra herrestaraziko bere bultuaz. Nolako sagarra, halako adarra, zion. Behar dire ariak gauzen artean. Ez dire barrikak mahaineko, ez mendiak gizonen sorbaldetako. Hola mintzo zen baratze zaina, eta bero egiten baitzuen, badoa haitz azpi baterat, Zurrungan hasia zen ja, erori zitzaionean sudur mokorat hezkur erdi ondu bat. Jauzten da, ematen du eskua sudurrerat, eta odolez estaltzen zaio. Oh, oh, odola! Beharrik etzen hezkur hori khuia! Akhabo zen ene sudurra!

XIV. ONEK EZ DUTE GOIBELIK ATZEMATEN

Gaizki ibili nahi dutenentzat dire goibelak Jainkoaren egintzetan. Onek ez dute hedoi handirik, eta balinbadituzte ere, badioaz aitzinat ungian. Emagun badirela bi herri etsaiak: Urramendi eta Serres. Nihoiz heldu bada Urramendiarrak Serresat, berehala egorria da Xuhaizti deithu erreka basatsu eta sugeti baterat, herri bazterrean dena neguko aldetik. Gainerakoan toki guzia dena lore da, dena lili, mahats, sagar eta zuhamu. Ez diteke baratze arraiaorik. Haize oro eztiak dire, uri oro aberatsak, hotz ala beroa bethi izaritan, hirriak merke, osasun hautuak. Urramendiarrak errege berritzen dute urthe guziz. Errege zaharraz ez da nihoiz aiphurik. Berriak atzea behar du, ez jakiteko legea, herriko jende xehe ere ez dakitena. Eginez geroz errege, arras nausi da urthe osoan nahi duenaren egiteko. Urthe buruan, oro khentzen diotzate gutien ustean, begiak itsutzen eta arthikitzen dute Serresko lurrerat. Han laster ezagutzen dute nongoa den, eta egorzen Xuhaizti errekarat, han nigarretan akhabarazteko. Egun batez Urramendiarrak egin zuten errege Buron, gizon izpiritutsu, zuhur eta prestu bat. Zerbait zitzaion bere erregetasuna; ezin asmatuz zagon nola higan zen hain gora; bainan bereziki hura khexatzen zuena zen, ez entzutea nihor mintzatzen aitzineko erregez. Galdeak egiten zituen zerbait argi nahiz; bainan ihardetsi behar bidean, mintzatzen zitzaizkon bere handitasunaz. Urguluaren bazkek etzioten asetzen izpiritua. Aitzitik ikusi zuen bazela zerbait gehiago edo gutiago gordetzen ziotenik. Argien eskasean, bilhatu zuen azpikoen ungitzea eta prestatzea. Gudu batean bihotz guziak beretu zituen, agertuz bera hirrisku guzien erdian. Geroztik aiphatua zen urrun. Bainan nahiagoko zuen jakin, oro baino, aspaldion gordetzen ziotena. Bilhatzen duenak egia, atzematen du. Haren berthutez ukitua, ethorri zitzaion gorthesano bat, eta erran zion beharritat herriko legea. Buronek bihurtu ziotzan eskerrak. Laster uholde batek arthikitzen ditu Serrestar batzuk, untzixka batean, Urramendiko alderat. Ikusi zituztenek lehenik berehala galarazi nahi zituzten; bainan erregek etzuen holakorik aitzen. Ekharrazi zituen gorterat eta ungitu gaitu. Serrestar lehen jendetarik ziren. Mintzatu zituen banazka eta ororekin egin ezagutzak. Iduritu zitzaionean jabetu zela hekien bihotzez, erran zioten, hekien herrian nahi zituela akhabatu bere egunak, eta egoerriko ziotzatela aitzinetik, nihork jakin gabe, bere urre eta zilharak.



Horren ondotik egorri zituen bere herrirat diruz galkhatuak untzi berri batean. Eman zioten bere erregerentzat ere khoro bat, urre eta harri bizi zariona. Geroztik artha guziak zituelarik bere azpikoez, bildu zituen ontasun handiak emeki emeki eta egorri untziz Serresat. Ethortzean khoro galtzeko eguna, etzen lastu; sobera ungi hartuak zituen bidexkak ungi izateko nola nahi. Utzi zituen beraz bihotz onez bere azpikoak soinekoen khentzerat, oin eta zangoen amarratzerat, begien itsutzerat, etsaien herrirat etxatzeko oldez. Serrestarrak erne zauden, eta kosta jo erromes bat bezala heldu zenean hekien bazter baterat, besoetan hartu zuten egin zituen axkidek eta eraman gortherat. Han izan zituen galde ahalikako ungi guziak.

XV. GIZONEN EGINBIDEAK JAINKOAREN ALDERAT

Urramendiko errege hori bezala da gizona lurrean, laster joan beharra handik. Geroak baditu harentzat goibelak, bainan badu aski argi izanik, jakiteko aita Jainkobatek igurikizen duela. Hura ganik du bizia, hura ganik erregetasuna. Ematen diote mahatsek arnoa, aroek bihia, lorek usaina, erlek ezta, harrek seda, ostu ferdek kontrapozoina. Izate orok bereztat baino gehiago egiten dute harentzat. Ezagutu behar ditu non nahi Jainkoaren dohainak. Hortik harentzat eginbideak. Egin behar ditu othoitzak, ez Jainkoa egiteko handiago edo dohatsuago, bainan haren handitasunak eta ungiek nahi dituztelakotz agurra eta eskerrak. Eman derauku bizia; zor diogu beraz ezagutza. Hura ganik ditugu adimendu eta gogoea, behar ditugu beraz hura ganat itzuli. Hark emana dugu bihotza, behar dugu maitatu. Badakitza gure beharrak, ez diotzagu erakusten ez dakitzalakoan, bainan behartzen baikaituzte eta erakusten baiteraukute haren meneko garela. Guretzat da othoiztea; egin dezagun, orroitzeko bethi bihotzean garraiatzen gaituen Jainkoaz eta hari erakusteko gure amodioa lehenbiziko eta hoberen aitari bezala. Othoiztea da, Jainkoari lotzea, hurrek aita besarkatzea. Hobenak izan ditugu Jainkoaren alderat eta barkhatu derauzkigu; diogun bethi erakuts ezagutza. Dugun bihotzez egin othoitz goiz-arrats guzian. Dugun egin minetan, hirriskutan, hutsen ondotik. Ez bedi nihor ahalka lan hortan: ezagutza ez diteke ahalkagarri; bainan gorri bitez eskerrik ez diotenak ungi guzien egileari! Trufa bedi nahi duena othoitz egileaz: *Trufak ez du hilaraziren!* Trufa bedi trufatzailez; hek baino zuhurrago eta handiago da. Erroez behar da hoberenerat ere trufatu: ez liteke ahalka, hirri egiten baliote zeren dabilan bi zangoen gainean eta ez buruz behera: zorren pagatzea, zangoz ibiltzea da! Beira nihor Jainkoa ahantzetik, nardagarri edo bihotz gabe batzuen trufa gatik! Hekien trufak gehiago balio du, baimenak baino. Bat bederak maita beza beraz goraki Jainkoa, sailduki ibil haren izena, begira haren eguna, ohora burasoa, barne onez ikus laguna, garbi itxik bihotza, utz bertzena, erran egia. Ez da hor adimenduak galdetzen ez duenik, mintzo naiz adimendu hedoiak maite ez dituenaz.



XVI. EZ AHALKA UNGI BIDEAN

Parisko eskola handi batean, soldadu gai jaun gazte batek galdu zuen arrosoria. Lagun batek atzeman zuen, eta haitz bati amarratu josteten orenean, zioelarik: eian agertuko den jabea! Ni naiz jabea, erran zuen gizon gazte eder batek, burua gora bilha zioelarik hirri egin nahi zuten guzien erdirat. Amak eman zerautan arrosorio hori, itxikitzen diot ezin gehiago, eta egun guzian erraten dut! — Ederki, ederki, dio norbaitek. Guziek buruak itzultzen dituzte, eta ikusten dute eskolako jeneralak zioela: ederki, gizon gazte bihozdua. Ez ahalka ungi. Egizu bethi hola, eta atherako zare zerbait. Eskolako lehena zen jaun gazte hori jakitate orotan. Gehien jakin eta handienak behar litezke lehen Jainkozko gauzetan. Ez diotzate Jainkoak eman gai hautuak, hobeki zaur dezaten!

Soldadu berri bat trufatu nahi zuten lagunek, zeren egiten zituen othoitzak. Gudu baten aitzinttoan bildu zituen lagun oro bere gelarat, higan zen alkhi baten gainerat, eta erran zioten: erasiren duzue nahi duzuen, ez naiz ganbiatuko, Jainkoa zuek baino gehiago da: ala ez? Bai naski. Hobe dut beraz haren gogorat egitea. Ez baduzue hola nahi, zoazte oherat! Behar orduan nihork bezinbat bihotz izanen dut. Ez nauzue ni ikusiko bihar beldur suan! Lagun guziak hirriz eman zitzaizkon eta etzioten gehiago trufarik egin: nondik ditezke hirrigarri zeruko aita maitatzen dutenak, lurreko aitak ezagutu nahi ez dituztenak abere batzuek balin badire?

Gizon gazte batek mehe galdetzen du ostatu batean. Lagun batek hirriz eta trufaz erraten dio: meheko zare holatan? Bai, jauna, zu gizeneko? — Bai, dio bertzeak jadanik gorritua, ikusiz trufa gainerat dioakola. — Hanbat gaxtoago, erraten dio mehekoak! Ez nuen uste hainitz balentria bazela, sahetski baten gatik, lege zuhur baten haustean! Hirriak haren alde eman ziren; gehiago dena, bertze lagun batek ere mehe galdetu zuen, erranez: nik ere badut sinhestea.

XVII. GAIZKI GUZIAK EZ DIRE HILTZE ETA EBASTEIA

Ez bil, ez ebats; horra hainitzen lurreko eginbide guzia. Aski da hori izateko behar bezalako gizona? Orobat liteke erratea urkhatzen ez diren guziak on eta goibel gabeak direla. Nola izan behar bezalakoak, deus egin gabe Jainkoaren arabera? Behar bezalako gizonak! Hitz hori orrez da, egin diteke orotarar: muthil ergel eta arin hori behar bezalako da: errozu ezetz? Behar bezalakoak dire gauza tzarrak onentzat sakhatzailak, lanen erdi egileak, egun irestaleak alfer, Igandez lan eginaraztaleak beharrik gabe, gazte fundibitailak, zahar mando edo zikhoitzak, lagunen beztaleak, jeloskor, herratsu eta mokhor guziak. Bakhotxak bere ubela gordetzen du, eta oro behar bezalakoak dire! Burdin gorri arrastoa garraiatzen ez duten guziak, behar bezalakoak. Behar bada sobera diot, eta diokete zenbaitek: Ez, ez, bethe behar dire, bethe, bertze eginbideak ere, egin ungia eta utzi gaizkia. Bainan ez ditezke hoik egin Jainkoa utziz edo ahantziz. Orotan dire jauira tzarrak eta hainitz: Nork zainduko ditu lohi, ohoin edo hiltzaleak? Ezpatak naski? Nahi duenarentzat holako zaina! Ez da Jainkoaren beldurra bezalakorik. Hura gabe nihor guti izanen da behar bezalako, ikusia ez bada eta beharrak joa. Nork erran behar bezalako dela, gaxtaginak bezala, aitzakia bilha dabilana Jainkoari esker onik ez bihurtzeko agerian, hura ganik izan dituen ontasunez? Hitzez guziak onak dire: aski othe da bakotxaren lekhukotasuna? Etzuen uste Jainkoak, Manamenduak eman dituen Testament Zaharreko gizonei. Etziren emanak izan, bakhotxak nahi duena egiteko. Aski Jainko Aitaz; mintza gaiten orai Seme Jainkoaz.



I.

JAINKOARI

BAZIOAKON EROSPENA

Gauzak batere ungi ikusi nahi dituztenek errexki sinhesten dute Jainko Aita bothere guziak dituen eta zero lurren egilean. Lehen gizon eta amazteari hark eman zioten bizia. Ez eginez haren gogorat, galdu zuten garbitasuna, zero lurren arteko aria guzien lokharria. Urrundu zen gizona bere Jainkoa ganik izari gabeko eremu batez eta jarri Jainkoa baizen ezin bethe zorigaitzezko leze batean. Jainkoari othe zioakon eskergabearen ondotik abiatzea? Ungi othe zen harentzat Erospenaren asmua? Urrunago joan gabe, dugun xuri galde hori.

Ikuspen ederrak dire begientzat gaua arin, zero dena izar, hedoi xume bat nihon ez. Oi estalki aberatsa gizon izpiarentzat, Jainkoaren erriek egina! Egunazko sepharen ondotik heldu da ihintz perladena lore, osto, belhar eta zuhamuentzat; samurduren ithurri, ferdailuentzat. Lo orenean sortzen da ixiltasun maite eta kortesano bat. Egunak bakharrrik garaitzen ditu zeruaren gauazko arraiziak: hartarat hobeki orroitarazteko bezala gizonak, beltz ematen du lurak orduan!

Ttinttoila bat diruri untzi batek urrun itsasoan; hedoiatarik uli ematen du arranoak, nahi bezain andana handiak dituen bere hegal zabaletan. Lurra ere gauza gutia da beirutzen bazaio urrundik: urguluak eman dio *mundu* izena. Higan litekenak izarretarat ez lezake ikus, edo ager litzaioke pilota bat bezalatsu. Izarrak handiago dire. Hek dire munduak! Nihor ez othe dute garraiatzen? Ez othe da hetan adimendu dunik? Gogor liteke sinhestea mundu eskax bat edo lurra dela bakharrrik adimenduaren egoitza, eta mundu ederragoak bihotz edo ezagutza gabe direla.

Lurra bezala itzulikatzen dire izarrak, eta badituzte gau, egun, hotz eta beroak. Lurra bezala, aldamiho eder bat da izar bakhotxa zero ikusteko. Badute bere argia han ditezkenek. Asko dire handik baizen ezin ikusiak, eta ez dituzkenak Jainkoak egin bakharrrik kataloxadunentzat edo izate itsuentzat. Zenbatenaz begiek urrunago ikusten baitute, hanbatenaz mundu gehiago atzematen da; mundua munduari dario gure gainean: gurgileria huts eta mihi gabe batzuek othe dire? Ez othe dute adoratzailerik?



Zabalduz dioaz jakitaten mugarriak: eder liteke ikusten balire izarretan uda aberatsak, negu biluziak eta adimenduaren lanak.

Badire izarretan iduriz higitzen ez direnak. Ez dabilta hek iguzkia- ren inguru, ez dio agur edo khurrik egiten. Bakhotxak nausi edo errege bat diruri: Zer othe dire? Sinhets othe diteke hedatuak direla, hondo gabeko zeruan, gure ohatze ilhun hunen argitzeko? Uste izateko da hobe- ki bertze munduen iguzki direla. Ez diteke jakin zein urrun diren, izari guziez goiti dire. Bizkitartean hedatzen dute argia lurreraino. Bertzetarik hartzen balituzte ginharrak, ez letzakete gu ganaino hel hain urrundik. Nondik dute bere argia? Bertze izarrak baino urrunago dire, nahiz bar- dintsu diruriten andanan. Bertzek ez lezakete argi hekien tokitik. Ez ditu iguzkiak argitzen; berenaz dire argi, nola iguzkia. Bakhotxak behar du bere erresuma birungako herrietan. Zertako dire? Gure iguzkiak baditu munduak inguru: bertze iguzki hoiek zertako ez dire izanen izpiritudu- nak? Halakoez goiti doako Jainkoari bere erresuma.

Deus guti da lurra goragoko munduen aldean. Haren ezeztatzea, osto baten adarretik galtzea bezala liteke munduko oihanean. Ostoa mundu bat da asko marmaloentzat: hura diruri lurra zeruko eremueta. Erran behar othe da hortakotz Jainkoak axola guti duela gutaz?

Deus gutiak garen arren, Aita handi eta hoberen baten haurrak gare; artha du gutaz, eta badugu deskantsatzeko haren galtzarrean. Ezagutzen ditu mundu oro eta bakhotxa. Eskuinean dute guziek, hats eta ontasunen ithurri. Mundu batek galtzen duenean haren ezagutza, baliteke hor haren galarazteko; bainan ez othe da ukigarriago ikustea Jainkoa haren ondolik, sarrarazi nahiz berritz bide onean? Baldin Aitak jo nahi badu, gaizki othe da Semearen ararteko sartzea?

Bainan gizona deus guti da munduko oihanean? Nahiz ba. Gauza handiak bezala, xumeak ere Jainkoak egin ditu. Batzuek ez dute unhatzen, ez bertzek nardatzen. Mundu ilumini handi ala ttipiak haren begiek dituz- te argitzen, haren besoek higitzen, haren arthek zaintzen. Non dute biho- tza nahi luketenek Jainkoak ez beiratzea lurrerat zeren den hobenduna eta gauza gutia?

Uli edo marmalo batzuek gare; bainan Jainkoa ez da gu bezalako itsu eta herbal bat: ez du eskas ahal eta argi, heda dezake dioakon tokirat. Hark izate bakhotxarentzat dituen arthak neurtu behar dire handitasunak haren bihotzari zabaltzen diozkan mugarrietan. Ez diteke alde batetik

ttipi, adimenduak bertzetik izari gabe handitzen duen Jainkoa. Mundu handienen arthek ez diozakete hets bihotza mundu ttipi eta beharrentzat.

Hainbertze balio luke erratea Jainkoa unhatu dela bere gauzez, edo galdu dituela bere ahalak, ez dukela gehiago. Bainan horren sinhesteko, behar litezke erakutsi Jainko lan hasi eta ezin akhabatuz utziak. Bada hala- korik? Ez othe dire loreak hastean bezain eder, landaren erroak nihoiz bezain xorotx eta egarri, hedoiak aberats, bihiak gordo, zuhamuak zardai, sua bero, horma hotz, elhurra xuri, abereak hazkar, ilhargia ezti, izarrak bizi, egunak arrai? Ez diruri nihongo arthek ahantzarazi diotzatela oraino Jainkoari lurreko beharrak.

Diot gehiago: gal lezake bere erregetasun handitik, baldin hiltzen balitz ihizirik xumena haren nahia gabe: ihizi guziek baino gehiago balio du bada gizonetan azkenak. Balin bada bide bat goiti bethi luzatuz doana, bada bertze bat bethi ttipituz doana. Bat bertzeari doako. Goran dire mundu larriak; beheran, ttipiak. Izarra mundu bat da, bai kharloa ere. Lurrari darraizko zuhamu, jende eta herriak; arregan bizi dire marmalo ostek. Goran bezainbat bizidun bada lurpean. Zeruko eremueta, begien eskasa gatik ez da gehiago ikusten; orobat lurrean. Gauza xumeak handi- razten balituzte begiek, balukete bethi ikusteko. Orai bada, zertako gorde Jainkoaren arthi lurreko gauzak? Gorakoez artha badu, zetako ez behe- rakoez? Ez diteke handitasunean pasaia, ez balitz jausten gora doan bezain behera. Ikuspeneak behar dituzte izartu haren arthak. Egiak leher- tu nahi ditu hori ikusten ez dutenen begiak. Hainbertze gauza handi eta ttipiri buru ematea, gauza handia da, bainan Jainkoak ez du nihon athe- karik, ez du berina beharrik ikusteko gora beheretan.

Gizonaren begiak badioaz mendiz mendi, herriz herri, izarrez izar; bainan hein batetik urrun edo gora, oro akhabo dire hekientzat, nahiz adimenduak adirazten duen badirela oraino eremuak. Ageri diren guziak suntsiturik ere, balitezke oraino toki handi, eder eta distiantak, zeruko bidetan. Gizonak ez ditu hek ezagutzea; bainan izan ditezke adoratzail- kin. Ez da hetaz mintzatu lurreko arimen ondolik ethorri dela sinhesten duguna: etzen ethorri bidean zer zen erraterat. Lurreko erregek egortzean aitzindari bat nahasi zaion herri baterat, ez luke deus handirik errateko bidean ikusi gauzez. Bainan behar bada noiz edo bertze zerbait adiraz lezake. Liburu sainduetarik athera diteke Erospea ezagutu dutela gorako herrietan, eta behar bada izatu ere dutela zenbaitek laguntza beraren beharra.



Guk deus ez jakinik ere bertze arteko munduen beharrez, hangoak izan ditezke jakin sun gure erorikoaz. Adamek bazituen aria handiak Jainkoarekin eta aingeruekin, erori aitzinean; hortik harentzat argi gero izan ez dituenak. Aria berak izan zitezken bertze mundutakoentzat, eta galdu ez badituzte bekhatuaz, badukete gizonak baino ikuspen gehiago. Beraz, nola erresuma bazter bat nahasten denean, begi guziak harat itzultzen baitire, bertze eremuetan xutik egon direnak jar zitezken eroriari beira. Ikusi badituzte gizonak Jainkoaren kontra altxatzen, min izan dute; baina hobeki baizen ez dute gero maitatu, ikustean etzituela hobendunak galtzen eta urrikian barkhatzen ziotela. Jainko gizonak berratu zioten bihotzeko kharra urrikalmenduz egin urratsaz; erospenako berriak jo zuen erresumaz erresuma, eta benedizioneak izan ziren bildots hilarentzat zeru, lur eta izarretan.

Mundu bakhotxa erresuma guziko herri bat bezala da. Erresumak ez du izaririk. Doiean dakizate gizonak bere lurreko mugariak. Jainkoak ezagutzen ditu munduko gathen buru guziak; hark daki zenbat erreztun dituen gatheak: nolakoa etzen behar mundu neurritz kanpoko hoikien errepika, Jainkoak ithotzean hasarredura amodiozko odolaren itsasoan! Lurreko erregek odol ixurtze eta herri xahutzetan dituzte handitasunak. Maitagarriago litezke emanez bake nahasiei, jateko beharrei; holako lanei darraizkote urrezko lokharriak bihotzetan. Hola egin duten erregeak dire hobekien ikusiak: gaizki izanen othe zen bide horren hartzea gizonen Erospeneko?

Eritzen denari darraizko etxe guziko arthak. Xirinboletan, amak itsasoz duen haurraz du bere bihotz min guzia. Irla batean sartzen badire leher egin duen untzi bateko gizonak, haurride oro herrian bat dire hekien erromesiatik atherarazteko: Gizonen lehertu zaiotenean zerurat eraman behar zituen untzia, etziren khexatuko eremuetan diren aingeru, izpiritu edo ahaideak?

Bi ahur lurren gatik, ikusi dire erregeak soldadu eta inginadore bilzen. Lur hark izan balu adimendua, bazuken uste izateko hainitz balio zuela. Baina etzen hura gatik ixurtzen odola. Lurraren aitzakian, urgulua eta nausi izan nahia ziren jokoan. Gauzak baino gehiago eginarazten du errankisunak askotan. Omenari itxikitzen diote eta itxiki behar ere erregek: bai Jainkoak ere! Lurra, gizona erori den tokia, gauza gutia zen, baina erresuma handi bateko bazterra; maitatua behar zen urrun, othoitzak

etziozaketek guphide, etzian hartaz bakharrak, bertze berrietan bazituen ahaide edo lagunak, eta etzuten othe sokhorritu nahiko?

Ez du zeren nihork Franzinari egin asikirik. Jainkoak beira haren haurra ukizetik, haren soldaduen arlotzetetik, haren azken etxola larruzetik! zinak eta minak lituzke laster. Altxa liteke enperadorea, irakitan jar ezpatalaria, odolean garbitzeko trufaren arrapoa. Holako zerbait egin zion ifernuak lurrari: debruak erorarazi zuen gizona, hedatuz sareak eta arimak biluziz bere garbitasunetik, eta etziren othe altxatuko herri on eta bihotz-dun guziak? Erospenaren etsaiek ez dakite zer darasaten, ez zer nahi duten!

Errege batek atzematen du haur bat oihanean, nigarrez eta biluzia. Badaramaka gortherat eta altxatzen du eskola hoberenetan. Ungi guziak izan ondoan errege ganik, haur dohakabe hark ematen du buruan khendu behar diola khoroa, baina ezagutzen diotzate bere xede beltzak. Egortzen dute burdinetarat, urkhatzeko eguna ethor artean. Etziruririk nihor urrikal zitekela hartaz, ikusi ondoan haren beztasuna eta bere ungi egilearentzat izan zuen esker gabetasuna. Bizkitartean erregek badu seme nihon ez den bezalako bat. Min du aitari egin zaion laidoaz, baina bihotza hain du on eta bera, non urrikaltzen baita hobendunaz. Ez dezake heriotzetik beira, haren burdinak hartuz baizen, hala da legea: hartzen ditu! Burdinei zioakoten heriotzea, eta orena hurbildua zen. Oro harritu eta ukituak ziren gerthamenaz. Nahi zuketen barkhamendu eskatu seme on eta hautu harentzat, baina etzen parririk, hil behar zuen. Oro bilduak ziren herio tokirat, erdian zen urkhabera. Higaten da goiti errege semea; baina burua hedatzean soka-lasterrerat, hor non korapilioa barraiatzen den! Haizkora hartzen du hiltzaleak, baina hari ere hor doako burua! Oro jartzen dire oihuz: Grazia, grazia! Zerua mintzo da! Ez du nahi seme maite hori hil dadin. Grazia! Baina oi gauza harrigarri ezin sinhetsia! Norbaitek dio: Ez, ez graziarik! Jarri da hiltzeko, hil dadiela!

Nor dago oihuz? Erregeren semeak gathetarik atherarazi duena!!! Jendea othe diteke hura? Ez othe da zenbait aberek sabelean garraiatu eta nonbait arantze bezala arthiki? Areagoak dire Erospena ukhatzen dutenak. Ez dute nahi Jainkoan errairik, eta izan baditu, ezeztatzen dituzte!!! Baina ez da gutiagorik ageri Jainkoari bazioakola Erospena; agindu ere zuen, gizona erori orduko.



II. JAINKO-GIZONA

Bera eman zen Jainkoa Erospenako bidetan, Jainko bezala galdetuz justizia, eta gizon bezala pagatuz zorra, gizontasunaren eskasa bethetzen zuelarik jainkotasunaren gaindiak. Hitz eman zuen emaztea ganik sorthuko zela norbait lehertuko ziona burua suge enganatzaileari eta gizonak atherako zituena lezetik. Mendez mende agintza hori erreberritu zitzaionten Noe, Abraham, Isaak eta Jakuberi. Moisek izkiribuz ezarri zuen. Has-tean nihork etzakien non eta nola sorthu behar zuen Salbatzaileak; bainan gauza argituaz joan zen; ezagutu ziren urrundik populu eta etxe, haren ethorki beharrak. Gizona behar zuen, Ebaren adarretik zenaz geroz; bainan indar handiz dohatua ere behar zen, lehertzeko etsaiaren burua. Lurreko nazione guzien gainerat deithu behar zituen benedizioeak; berezia behar zen, orenen igurikimena, esperantza eta nahia; salbamendu, nausi, argi, aria berriko buruzagia, bethiko apezka, justiziazko iguzkia, sainduen saildua. Lau mila urthez holako agintzek ernatzen dituzte gizonak. Patriarkak dire lehen argituak, populu bat bada hautatua; badire othoitz eta sakrifizio, itxura ezin ahantziak, profeta ethortzekoaz bethi mintzo direnak. Altxatzen, zinsitzen, baltsatzen dire erresumak, errexteko Mesiaren bitoria, Patriarkak hiltzen dire hura ikhusi nahiak; gozatu nahi lukete justuek; etxe orotan dire hari bizia eman nahi lioketen emazteak. Hiltzerakoan Jakubek erakusten du; Danielek badakitza urtheak, zeinen ondotik hilen baitu eta ukhaturen bere populuak. Sarthu behar du Zoro-babelek egin tenploan, Aggeaz eta Malakiaren arabera, han du bere etxea, hango Jainkoa da. Mikeak Bethleemen sorrarazten du. Dabiden adarretik behar da, eta Biriina behar du ama, dio Isaiak. Bide egiteko bezala, aitzinean doako morthuan oihu egin behar duen bat Judako hiriei: huna zuen ganat heldu den Jainkoa. Hura ikustean jendek erranen dute: gure Jainkoa (*Jer. 23 eta Is. 25*). Itsuek ikusiren dute, gorrek entzunen (*Is. 1b*) Akhabo izanen dire sakrifizioak; Berbo dibinoak hartzen du gorphutza (*Ps. 39*). Jerusalem sarthuren da itxura goibelekin, bainan ezaguturen dute errege eta salbatzailetzat (*Zak. 9*) Hilen dute, erran duelakotz Jainkoaren Semea dela (*Sap. 2*) Joanen da heriorat bildots bat bezala bekhatuen gatik (*Ps. 53*). Salduko dute hogoi eta hamar Korradutan (*Zak. 11*). Ez diotzate bekhaiztuko thu eta beharrondokoak, gaxtaginekin emanen dute (*Is. 50 eta 53*). Zehaturen dute, itzaturen oin eta besoetan, kheldarrez aseren,

biluziren (*Ps. 21*). Jautsiren da hobirat, guti han egoteko: saildua ez da usteltzen (*ih*) Utziren du lurra eta ardietsiren orotako eta bethiko erresuma (*Dan. 7*).

Hitz hoik guzien arabera, Mesiaz Jainkoa da. Noren baithan gerthatu dire? behar da jakin salhatzekotz. Ethorri bada, mintzatu da eta erakutsi ditu bere xedeak. Ezagutuz geroz xede hek, behar dire bethe, ez da ametsetan egoterik. Errege batek egortzen ditu bi gizon perlaketarat, erranez noizko behar duten gibelat ethorri. Bat joaiten zen gau guziz itsas bazterrerat argia eskuan, eta egiten zuen lo egunaz indar biltzeko. Bertzeak jostetan zaramazkan egunak, eta etzituen sobera gauak lo egiteko. Bizkitartean bazioan ametsetarik itsas hegirat; bainan ez baitzakien zer hari zen, perlen orde, maxkurrak biltzen zituen otharre baterat. Etxerat zenean, husten zituen kutxa baterat, eta bazioan oherat. Ametsik ederrenak egiten zituen bere perlez, eta iratzartzean, uste zuen egiak zirela. Burua hartua zuen bezala jostetez, etzituen nihoiz bere lanak argitarat ematen. Gortherat ethorri behar izan zenean, lehen perlaketariak erakutsi zituen erregeri harri hautuenak, eta ardietsi zuen hiri bat saritzat. Bigarrenak etzuen gutiako igurikitzen bainan etzuean atzeman bere kutxan zenbait maxkur huts baizen, zer harridura! Trufatzat hartu zuen gauza erregek, eta leherrarazi zuen amets-zalea bere peskaren azpian. Egiten dutenek Salbatzailearen arabera, izanen dute saria bainan zorigaitz ametsak aski zaizkotenei!

Mende zaharrean etziren xoilki Juduak igurikitzen zutenak zeruko norbait, gizonen argitzeko. Duela bi mila urthe, sinheste oro goibelduak ziren alegia eta asmu berriz; bainan higan nahi duenak gorago, atzemanen du Jainko baten sinhestea, eta Jainko hari darraizko Inkarnazioeak edo gizon egiteak. Erresuma zaharrenetarik da Sina: onhesten zuen Jainkotzat Trimurti, hiru presunetako Jainkoa. Presuna hekien izenak ziren Brahma, Vixnu, eta Siba. Hiru presuna berezi hoik bazuten batasun handiena. Hekien itxurak batzuetan egintza bereziekin dire, eta bertzetan hiru buruekin gorphutz berean. Erromano eta Grekek bazituzten hirur jainko nausi: Jupiter zeru-lurretako, Neptunio itsasoko eta Pluton ifernuko. Egipitoako Trinitateari zarraizkon Isis, Osiris eta Hor. Oraiko Fransesen lurrean, Gallegoek bazituzten Esus, Taranis eta Teutates, Trinitate Jainko bat iduria egintza bereziekin. Ez dire hoik sinheste zaharretan atzematen diren Trinitate guziak; bainan ez naiz gehiagotz mintzatuko; ezin akhabatua liteke.



Badire gizon jakin eta handiak, Jainko, gizon edo Inkarnazione hoik salbatzailearekin izartu nahi dituztenak. Errex da nor nahiri erakustea ez dutela Jainko dohainik, ez dutela ere bizirik izan zenbaitek. Jendez trufatzea liteke hoikien jainkotasunerat altxatzea. Hoiki lotzen dire Jainkorik nahi ez dutenak. Zurubian behera dioaz, argirik ez ikusteko, oro nahasiz eta baltsatuz. Bainan hedoiek bide egin behar diote iguzkiari; hori guziak ez dire urre; gezurra egiazen itzala da: profeta egiazkoek sorrarazi dituzte gezurrezkoak! Zenbait gizonen Jainkoarena egin nahi zuten, ximinoek gizonarena bezala!

III. JAINKO GIZON EGINA BAKHARRIK JESU-KHRISTO

Jainko batek gizon egin behar zuen: ez da Jainko gizon eginik Jesus baizen. Hura da bakharra, presuna berean erakutsi dituen Jainko-gizonaren lanak. Ez naiz zimendurik gabe mintzo hoin trebeki. Bilhatu dut zer zion iztorioak mendetan agertu direlako Jainkoez; badakitizat hekien egintzak, eta zilhegi zait mintzatzea egiazen alde, bertze hainitz gezurra- ren alde mintzo diren kopetarekin.

Jesusen ethortzeak baditu 1858 urthe. Profetak ixilik zauden bortz ehun urthe hartan. Agintzarik aski izan zen, ikuspenari beiratzeko. Orotan bazen zeruko laguntza beharren aithorra. Ustea zen Judeatik ilkhiren zela erregen errege bat, eta hartako iguzki aldea zen bihotz guzien ohatze arraia. Juduek eskuetan zituzten agintzen liburuak, eta etziren nihoiz erneago izatu. Oren handia ethorria zen: judak galdua zuen nausitasuna, iragaten ziren Danielen hirur hogoi eta hamar urtheak. Zeruko aingeru bat egorria da Dabiden odoleko Birdina baten ganat; hartzen du Izpiritu-Saindua ganik eta ematen mundurat haur Jainko-Seme deithua. Hark Bethetzen ditu profetek erran guziak hogoi mende aitzinetik, iduriz ezin zitezkenak; bethetzen denbora, toki eta itxura aginduetan. Jesus Jainkotzat hartu dutenak enganatu badire, Jainkoak enganatu ditu: Jesusek erakutsi ditu Jainkoaren piko guziak. Oraiko Juduen aitek, guk bezala, aditzen zituzten profeten agintzak Salbatzaileaz. Bertzela mintzo badire orai-koak, hanbat gaxtoago! Bere aitek arnegatzen dituzte. Hekien arabera, igurikia zen Salbatzailea duela bi mila urthe hurbil; ez da zeren gehiago iguriki; ezen ethorri behar zuen denbora, bortzetan iragana da, eta hark sartu behar zuen tenploa, aspaldi barraiatua. Jesus sortu da Bethleemen, Dabiden odoletik, joan tenplorat; Joannesek ondoan erakutsi du. Bera hasi zenean mintzatzen, mirakulua zarion eta nihor etzen hura bezala mintzatu; Moises eta Elias jausten dire haren adoratzerat; debruek aithortzen dute Jainkoaren Saindua dela; herioari khentzen diotza hilak; berthute guziak distiatzen dute hura baithan. Horrek hirarazten ditu Juduen buruzagiak, eta ezin garaiatuz bere herra, bilhatzen diotzate etsaiak, joarazten dute, khelderrez asetzen, biluzten, hilarazten...



Egin dituen lanek erakusten dute Jesus Jainko zela. Hark baino lehen, mirakuluak egin zituzten Moisek eta Eliasek, eta geroztik, Aposto-luek ere egin dituzte. Halere ezagun du Jesusek bere izenean egiten zituen mirakuluak; bertzek, muthilek bezala, nausiaren izenean. Jainko seme zen, eta zion: ez badituzte sinhesten ene hitzak, sinhetsazue lanak, ezagut ene Aita ni baithan dela, eta ni Aitarekin naizela. Argitzen duen itsu bati gal-detzen dio, sinhestea hura baithan Jainko Seme bezala (*Joan. 10*). Paraliti-koa sendatzean, nahi du jakin dezaten Jainko Seme bezala duela indarra bekhatuen barkhatzeko. Hala behar zen, ez erratekotz Jainkoak lagundu duela gezurra mirakulu ezin ukhatuz!

Nahi balire gauzak ungi xehatu, ez liteke den bezainbat hedoi egian. Zenbaiten izen handi guziak nahasten dituzte; bat bertzearekin altxatzen, gero guziak betan ehozteko. Gehienek behar bada jakitate eskasez egiten dute bokhata hori, nola askok urgulu zoro batez egiten baitute sinheste-gabearena. Jaun batek erran zion aphez bati: ez dut ikusirik baizen sin-hesten. — Sinhesten duzu bederen Jainko bat badela, erran zion aphezak? Doala hori. — Arima bat badugula? — Hori ere; bainan ez ifernurik badela. — Sinhesten duzu noizbait Jainkoa agertu dela lurrean? — Ez, jauna, ez. — Irakurri dituztu Salbatzaileaz Daniel, Isaias, Jeremias eta ber-tze profetek aginduak? — Ez, jauna. — Irakurri dituztu Jesusen miraku-luak, egunaz eta lekhuko hoberenen erdian? — Ez, jauna. — Irakurri dituztu Jesusen mirakuluen kontra erran direnak? — Ez, jauna. — Iraku-rri dituztu Origenes, Tertullien, Justin, Agustin, Fenelon, Bossuet? — Ez ditut ezagutzen ere izen hoik. — Errazu beraz xoro bat zarela, eta ez ber-tzerik.

IV. JESUS EZ DUTE EZAGUTZEN UKHATU NAHI DUTENEK

Jesus ez dute ezagutzen ukhatu nahi dutenek. Nihor ez da agertu haren arraiziek. Piko berezia zuen. Beretzen zituen bihotzak, mintza-tzen hasi orduko. Jainkoa bilhatzen zuen, hartaz zen mintzo, haren kha-rra zirurin. Deus etzuen nahi lurrean. Erregetu nahi bazuten, ihesi zioan. Min arintzen eta sendatzen zuen bere ona; biltzen zituen haurrak, bekha-toreak besarkatzen. Adixkide baten hiltzeak eta Juduen gogortasunak nigarretan urtarazten zuten. Etzuen ikusten hil bat non etzuen pizten, itsu bat non etzuen argitzen, elkhor bat non etzuen ernatzen, maingu bat non etzuen xuxentzen. Karitate, garbitasun eta eztitasunak ez dute izan hala-ko mirailik. Jende xehean etzuen izan argi emailerik; bera hasi zen errotik gauzen erakusten, erakutsi oro berak eginez lehenik. Etzen beldur izan higateko lan eta minen zurubia, eta nork erran zein ukigarria izan zen bide guzietan! Etzioten nihoiz amorrik eman eginbidei. Haren solas bak-hotxa argi bat zen, lausengu bat, amodioaren deihadarra; etzezaken izi bekhatorea: hekientzat heldu zen! Lanzkatzen zuen ungi egilea, erranez: azken gizonaren laguntzea, haren beraren laguntzea zela. Zer oiuhu mina, ikustean galdu behar duen hiria: Jerusalem! Jerusalem! Hiltzalentzat othoitzez zagon: Aita, barkha diozozute; ez dakite zer hari diren! Heme-zortzi ehun urtheek ez dituzte goibeldu haren argiak, ez hil haren aldare-tako sua. Oraino haren irakuspenez aphalarazten dituzte buruak, orroi-tzapenek sustatzen bihotzak, kharrek sorrarazten martiren harmadak. Errege eta nausi da eskola, izpiritu edo bihotz hautuenetan. Zer diteke miragarriagorik? Elengatzen da heinbateraino haren maitatzea bizian: Lainhoa zen, eztia, grazia eta ungi zariona. Handitasuna gatik, arraia zen ezin gehiago. Bilhatzen zituen etsaiak, ungi gainditzeko; haurrak benedi-katzeko; aberatsak, nihor ez berezteko. Amultsu bezain urrikalmendutsua zen. Gorthesano berezi bat zirurin; nihongotz etzen gaizki. Ez izanik ere izatetan maitena, handiena izanen zen. Oi bizi ukigarria! Nihork ez du irakurriko, begiak idorrik: Jainkoa agertu bada lurrean gizon itxuran, etzi-teken bertzelakoa.



V.

JESUS BADA EROSTALEA, EZ DITEKE BERTZERIK ADORA LAN BERA EGIN DUTELAKOAN

Jainkoa agertu da, agindu zuen bezala. Badioako sinhestea, eta ez dioako bati baino gehiago; ezen hura mintzatu da. Sinheste bat baino gehiago jasatea lurrean, sinheste ororen ehoztea liteke. Batek erran du aski zer dioten gizonak zor Jainkoari, eta nola bihur ezagutza. Sinheste guziak bardin balire, Jainkoaren irakuspenak deus ez litezke. Nahi duenak nahi duena egiten ahal luke; ungi liteke Kristo Giristinoek adoratzea Erroman, Mahometanoek higuintzea Konstantinopolen, Juduek arnegatzea Santu-Izpiritetan, Mandarinek ostrikatzea Sinan, basa gizonak ez ezagutzea Othaitin. Hori liteke erratea bardin zaizkola Jainkoari egia eta gezurra. Ezen bat bertzearen kontrako sinheste hoitan bat baizen ez diteke egia. Ez diteke nihondik Kristo batzuentzat Jainko, egia bada bertzentzat gizon eta gizon enganatzaile bat. Ez da hor harat hunatik: Jainko bada, orok eta non nahi behar dute adoratu. Jainko ez bada, nihork ez du behar agurtu. Jainkoari sinheste oro bardin zaizkolako bidean, nihor ez diteke deskansu. Aitzitik hirrisku handiengan liteke bat bedera. Ezen Jainkoak eman dituzke eginbideak gizonari, bethetzen ez baditu, bere zorigaitzetan. Ez xoilki eman dituzke; bainan eman ere ditu. Geroztik, eian baden deskansurik hekien arabera bizi ez direnentzat! Bere nahiz ematen dire hirriskuan. Kristoren Jainkotasunak ez du goibelik: Haren irakuspenek ethorkizuna agertzen dute aski. Balitz ere zerbait goibel, irakuspen hek, bere adinaz, hedaturaz, goratasun eta garbitasunaz, egin dituzten ungiez, badituzte hain egiaen itxura handiak, non ez baita nihor gai hekien gezurtatzeko. Erran lezaketanak ez direla Jainkozkoak, ez litezke zimendurekin mintza; bere nahiz zorigaitza hirrisku lezaketek. Beldurra balitz ere othe den bethiereko bizirik, zuhurtziak galdetzen du hoberenerat jokatzea.

VI.

BRAHMA, VIXNU ETA SIBA EZ DIRE JAINKO

Hainitz buru mota da lurrean: Jakin guti, mintzari hainitz, lerro ezin akhabatuak arthaldetan, buruzagiak bakhan. Mintzo naiz bide goibelean alha direnez. Ez daramatza ungiaren kharrak; ezen etziteken hainbertze ez axolatu, jakin gabe bederen, eian ethorkizuna jokatu zutenek hedoiean bazuten berek sinhesterik bere erranetan. Gizon handiek gauzak urrun ikusten dituzte; asko gauetan argi eman dezakete; bainan ez dakit zer othe ziren hainitzen xedeak, uztartu dituztenean Kristorekin Brahma, Budda, Vixnu, Siba, Isis, Osiris, Hor, Zoroaster, Likurge, Numa, Mahomet, Luter eta Calvin. Hemen aipatu nahi nituzken jakinak gai dire ikusteko berek, ez dela iduripenik xumena Kristo eta bertze izen hoik garraiatu nahi dituztenen artean. Zenbaitek ikusi nahi zuten behar bada, jostatzeke, zein errexki buru arin eta ergelek sinhesten zituzten jaiuren araberako irakuspenak: josteta itsusia! Dena den, ezpainetarar beira hirriz daozkotenei erran diozakete: ez duzue ikusten burlatzen garela zuetaz? Aitzakiak nahi zintuzten nahien arabera egiteko; erran dautzuegu nahi zintutena; bainan gure erranek zer zimendu dute? Gizonak gare, mintzari ederrak nahi baduzue, bainan ez dugunak ikusten gizonen izariez urrunago. Zertako duzue hoin sinhets errexa? Zertako hartzen dituzte lanbroak egiazat? Ezen gure erran guziak zer dire? Egiaen asiki batzuek. Tuiek ez dute sinhesten hobendunek bere alde mintzazeko hartu duten gizona: Tontoak ez ditu ernatzen bertze baten atzartasunak, ozarkeriak ere ez du hilen egia! Bainan detzagun ezagutaraz hekien Jainkoak.

Brahma, Vixnu eta Sibak egiten dute Industarren Trinitatea. Brahma da maizenik lehen presunatzat hartua. Ez hirririk egin: hark egin zuen mundua arroltze batetik. Gaineko kroskoa jarri zen zeru, azpikoa lur; erdia airek bethe zuten. Ez du nihork erran zer bilhakatu zen gorringoa, nahiz kroskoak baino gehiago balio zuen. Naski Jainkoak iretsi baitzuen gosaitako, lanaren ondotik! Brahma ganik dire sainduak, zeinen artean handi baita Narada, xirolari bat, trufaria, nahastalea, ikus ahal guzien porroka garaitzalea; arras ez bada, bederen heinbateraino, ergelen miraila. Zerua eta lurra jendez bethetzeko, Brahmak egin zituen ehun muthil eta ehun neskatxa; bainan oro zeruan gelditu ziren; etzuen batek ere jau-



tsi nahikatu lurraren iraultzerat. Orduan egin zuen gizon bat: Brahman. Nola oihan guziak basa abere baitziren, gizon berri hori errenkuratu zitzaion deus etzezakela egin eta nihorat etzioakela. Brahmak athera zuen besotik seme bat, Brahmanen zaintzeko. Bethi zelatan egonez ez baitzezaken bil jatekorik, hura ere errenkuratu zen, eta Brahmak athera zuen laborari bat ixterretik. Azkenean agertu zuen nonbaitik laugarren gizon bat, ororen muthil izateko. Balentria handiak dire hoik. Guzien gatik, Industarrek ez diote ohore berezirik bihurtzen Brahmari, gaindiz diren arren erresuma guzian Vixnu eta Sibaren Elizak. Gure herritako jakinek nahi liokete egin bere hurrek baino gehiago: nork zer behar du erran, bereziki jakitean zer putikoa zen Brahma? Jainko nausiagoko batek arthiki omen zuen zerutik, gaizki ibili zuelakotz saindu bat bere etxean. Barkhamenduaren ardiesteko miliun urthez ibili zen xingili! Lau aldiz gantiatu zen gorphutzez. Ikusi zen aldiz lohi, nigarti, bele, izkiribatzaile. Lau buruekin agertzen dute. Bazituen bortz; bainan Sibak khendu edo ebakizion bat, arinegi atzemanik. Joka nezake gure arteko jakin zenbaitek buru ideki hura atzematen dutela adoragarriena, zeren galdu zuen hek maite duten gudu. Nola nahi den, bekhoki behar dute horren izartzeko Jesu-Kristorekin. Arroltze batetik egin da mundua; berak egin bazuen arroltzea, oilo behar zen, gizonak banazka egin zituenaz geroz, batek bertzearen beharra irakutsiz. Trinitateko presuna dela diote! Nihork jakin gabe nola, iztapeka aurkitu zen lore baten gainean. Berak etzakien zer zen, ez nondik heldu zen. Bertze Jainko batek eginarazten zion othoitz, ikhasteko etzakitzanak. Egun goibeletan sorthu zen, nihork ez jakin noiz. Ez ninteke beldur errateko nihoiz ez dela izatu Brahmari, eta alegiazko izen bat dela hori, sorginena bezala: xoroak baitire, eta izanen ere bai, mamuek behar dute bizi! Ez du balio mintza gaiten Brahmaren nigarrez gaizkien ondotik. Beldurtzeko zen haren aurkitzea eskaile eta nigarti guzietan. Etzuen deus irakutsi ikusten ziren gauzez baizik, non etzen berri handi bat lurra xitan egotea, egiteko gizona arroltze bat bezala. Bainan dugun utz izate bitxi hori, ikusteko Vixnu.

Presuna horrek haur baten itxura du batzuetan, suge bat azpian birabira jarria, ohe egiten balio bezala, altxatuz bere ehun buru pabiluntzat, iduri gaineko arrundan hupa edo flokak. Uren zelhaiean hedatzen da ohe miragarri hori, Vixnu gainean lo dagoela. Ez du bertzerik egiteko. Holako Jainko onik baliteke bertzetan ere, bereziki muthil eta langiletan. Hargatik eginarazten diotzate Vixnuri hamar inkarnazionetaraino. Nola? Ez

dakit, deus ez duenean egiteko. Gauza bat badakit: ohoin eta lohiek gogotik nahi dutela bere Jainkotzat. Ez da Jainko zelataria: ez alainxe!

Siba gauzen suntsiraztalea da, eta badu bertze dohain bat iduriz lehenari ez doakona: gauza ezeztatuen arregiteko dohaina. Emaztearekin jarria dago urrezko tronu batean, izpiritu eta muthil inguru. Menden akhabantzan oro suaz galaraziko ditu: gizon, izpiritu eta Jainkoak berak. Brahma eta Vixnu ez dire gehiago izanen: zer Jainkoak beraz? Siba bakharrik geldituko da khar baten itxuran, saltoka khean dabilala. Bainan gau luze baten ondotik, kharrak hartuko du egiazki bere nonbaiko errotik, eta oro bilhakatuko dire aitzinean bezala, bertze zenbait mendentzat. Erakusten dute Siba gizon zilharrezko baten itxuran, bortz bisaia, lau beso, begi bat, eta bortz ilhargi hasterekin kopeta bakhotxean, tigre larruz soinekoa, harezko orena edo hiru hortza harmatzat. Batzuetan hiru begi ditu eta bi beso. Horra Jainko bat handi eta ona, begi, beso, kopeta edo ilhargi hasten araberako lanak baditu. Dantza jauzietan hari da lurreko errautsen gainean: haren adoratzailek badute non kopeta estal ilhargi haste, burdin gorria lagun, non sudurra marrazta Gangeko ligaz edo behi khortzez: erna jakinak!

Bortz ehun urthe Jesus baino lehen, ezagutuak ziren Brahma, Vixnu eta Siba. Hastapenean behar bada zerbait on erakutsi zen hekien izenean, bainan basa-sukharrak etzuen aurkitu zedarririk, eta ahalkagarri liteke erratea zer itsuseriak adoratu diren geroztik Trinitate horren izenean. Horren adoratzaile berriak berak, khartsu lohikerian, ez lioazke gizon hiltzeraino aldaretan. Othoi, begotz bere alde Brahmistak; badire aski dohakabe hirur hogoi miliun!!! Ordu da mintza gaiten Buddaz.



VII. BUDDA EZ DA JAINKO

Bere haurraren arabera, Budda Jainko bakharra da eta Erospeneko gizona. Hura ganat joan nahi dire egun batez. Baditu hainitz izen: Indian, Budda; Mongolian, Xakia-Mouni; Tibeten, Sang-Ghie; Sinan, Fo; Japonian, Bouts; Mantxulian, Foutsiki. Ttipian, Jainko batek agur egin omen zion, othoitzean zagoelarik, eta agindu inkarnazione, han arterainoko guziak ahantzaraziko zituen bat. Izan ziren lekhukoak. Hek eman zioten Jainko izena, eta etzuten ahantzi: hogoi eta hamabortz birdinek jostatzen zuten musikekin, zazpiek mainhatzen egun guziz, zazpiek arthatzen soinekoetan, zazpiek loharkarazten, zazpiek garbitzen. Etzuen egiten hirri edo nigar sobraniaturik, bertze haurrek bezala. Hamar urthetan koplari zen; bazakitzen ere musika, mirikuntza eta xifrak! Bere nausiarri erakutsi ziotzan berrogoi eta hamar mintzaira bere itzuli bereziekin. Ederra baitzen, biltzen zitzaion hainitz jende ingururat: gozamen bat ziren haren hogoi eta hamabi itxurak, larogoi arraiziek. Adoratzen zuten non nahi, asetzen lore, zilhar eta urrez. Ikusi zituenean emazte bat erditzen, attona bat doiean ibiltzen, eri bat pairatzen, hil baten axkideak nigarrez urtzen, galdetu zion nausiarri iraunkorrak ziren gaitz hoik. Entzutean oro hola zioazela aldizka, joan zen ihesi eremurat, ustez han etzen hirriskurik. Moxtu zituen ilea eta bizarra. Egin zen aphez eta aphezpiku. Joan zitzaizkon ikusterat izpiritu, gizon eta abereak. Azken hoikien agurraren ondolik deus guti zuen egiteko morthuan. Ilkhi zen beraz handik, handi egina. Laster zeruko erregeak ikusi zituen bere oinetan, Brahma bera ere: nola ez? Hasi zuen eskola bortz dizipuluen aitzinean, erranez: «Oro zaurthuak dire, bainan bada salbamenduko bide. Behar dire garaitu guduan hirrisku eta enganio non nahi sorthu nahi dutenak. Deusek ez du egiaen atseginik. Mundua erromesia da. Egiei darraikote zoriona. Ikustekoak dire gizonen hesturak: nigar dariote sortzean, intzirin zahartzean, eztena noiz nahi, khirastasan herioan. Sortzen dire honi edo labe gorritik bezala, ile ondo bat gabe eta minez zilhatuak. Zahartu direino, ikusten dire idortzen, zimurtzen, ihartzen. Egiten zaiote larrua, ardi zahar bati bezala, haragia suntsitzen hezurretarik, zainetan odola gutitzen eta loditzen; gorphutza kaskailtzen, bizkarra konkortzen, begia goibeltzen aldeko mendia ezin ikus bezala, beharria gortzen, ihurtzuririk gehiago othe den beldurtu arte-raino, ahoa hortzez gabetzen, usna joaiten. Gorphutzek behar dute mak-

hila, izpiritua histen da eta badioa. Zenbat gaitz! Badire lau ehun eta hogoi. Ikuspen khiratsak indar ezeztatuak! Hein baterat geroz, gizonak ez du onik, ez diteke jeki, ez ibil, ez xutik egon. Iduritzen zaio bethi bihotza zintzurrerat dioakola, eta haizez duela barnea. Gauak luzeago diruri egunak baino, eta egunak ilhabete. Janari hoberenak egurra bezala dire ahoko; buhurdi gurienak elhorri, horitzen da begietako xuria. Urdin dirurite larru eta odol gorriak. Erromesiak urruntzen du bihotzen bakea eta berritzen izpirituen gathaska. Nigarra gaindiz da, joan eta ethor dabil bihotza, ez diteke ixil zorigaitzen deia. Auhenetan etzaten da gizona ohean, nola arraina urez kanpo hare erreari buruz. Herioa hurbilago eta erromesia handiago. Inguru dire ahaide eta axkide nigarretan mainhatuak. Mendi batek lehertu nahi du gorphutza, sukharrak hartu du burua, begietarat heldu dire gauza lazgarrienak. Urak daramazkan lur higituak dirurite indarrek; iraungituaz doa gorphutzen sua, eta azkenean gelditzen da, gauazko harraren su hotz batekin. Akhabo izpiritu. Itxurek iraun behar lukete, bainan suntsitzen dire, izpiritu nonbait sartzearekin: khar ithotan dire».

Bertze asko ere erranarazi diote Buddari; badire haren hitzekin eginak ehun eta zortzi liburu, baratzeko errekek baizen handiak: ozar othe liteke usteko lukena badela hetan itzuntzikeriarik? Berak zioen sarthu zela gizonaren errain eta fuinetan. Hura bezalatsuko bertze Jainkoak baziren arren, errege zaukan bere burua. Herri batean badakit Karakotx deithu etxe bat: hango nausia ere handi liteke, jauregiko premu balitz: Badu non har guriopel! Budda izan zen bekhatore, eta penitentziaren ondolik, ikusi zituen nigar egunetan piztu zituen gorphutzak: lur eta ilhargiak baino handiagoko meta egiten zuten; bainan ere hark ebaki buruetarik ixuri odola, ur eta itsaso guziak baino gehiago zen: ez diteke beraz deus egin gabe Budda bezalako Jainko! Egia erran behar da: ahalkatu zen, eta Jainko baten erranez, jasanarazi ziotzan gorphutzari mila argi pizturen asiak; sarthu zituen bizkarretik mila itze; etzan zen bederatzi beso kharrak gora zituen su batean, eta azkenean, gorphutz guzia eskaini zuen bitimatzat. Bainan aski atzeman zioten egitea hegats bat bere hezurretarik, eta hura odolean bustiz, izkiribatzea ikhasi zituenak: gezurtiak xoilki hertsatuak balire bere hezurrez egin hegatsekin izkiribatzerat, nik badakit Budak aiphu guti lukela European.

Baditu bi izate; bat bethikoa, ezin ganbiatua, berthutetsua; bertzea, ganbiakorra, ilhargia ur axalean bezain. Azken izate horrekin orotarar jartzen da: mainguekin maingu, okherrekin okher, kokoriko direnekin kokoriko. Erleak kofoinetan bezala, Jainkoak lerroka dire haren zeruan. Brah-



maren irakuspen bertsuak ditu. Luther Giristinoentzat dena da hura Braharentzat. Baten ala bertzearen haurrak altxa detzakete urrungo axkidek; bainan ez lukete hek bezala nahi ibili, oihal izpi bat bizkarretik edo gerrian, buruak murriz; ez lioazkokete hekien lurrezko eta lastozko etxeak, ez hekien gela hertsia eta ithogarriak. Hobe da urrundik neurtzea deusetan gozatu nahi ez litezken ontasunak, eta aldeko jakitatek ezin niholere onduak! Buddista ala Brahmistek badituzte predikari eta legeak; bainan nihork deus ez du egiten, ez balitz baino gehiago. Gaindiz dire aztura itsusienak, sabela ungi bethetzea zaiote atsegirik handiena. Oro egin detzakete, ikusiak ez badire: hori ungi atzemanen dute bizia amets edo komedia batentzat daukatenek. Othe da halakorik? Nahi luketenak bederen bai.

Buddistetan, senharra da emazten Jainkoa; behar dute maitatu, lagundu eta arthatu, izanik ere maingu, zikhin, mando, hordi eta lohi. Ez dire nihoiz nausi: gaztean nausi dituzte aitak; ezkontzean, ama, senhar eta aita ginharrebak; alharguntzean, semeak. Utzi behar dute lana, senharrak nahi duenean, hasarrekorik nihoiz erakutsi gabe. Haren nahia behar dute deusen hasteko ere. Nihor heldu bada, urundu behar dire, burua aphil eta ixilik. Senharrak ikusi behar du egin dezaketen hirri, nigar, oiuhu, eta ez diote galdeari baizik ihardesten. Jan edo barurturen dute, hark jatean edo barurtzean. Ungi baino hobeki izanen da, hiltzen badire haren ondotik, hurrekin baino harekin nahiagoz. Garbitzen dute egun guziz etxea, zola ungi karrakatuz behi khorotzekin. Nonbait badute senharra, ez ditezke ilkhi, ez dezakete garbi hortzik, ez egin behatzik, ez jan bietan, ez egin lorik ohean. Bi emazte balin baditu gizonak, ez dute mintzatu behar nihoiz elkharren kontra. Hura mintzo denean, ez dezakete hitzik egin, eta deitzen baditu, behar dituzte oro utzi berehala. Kantaz badago, egonen dire ahoak zabaldurik, zeruetako lorian balire bezala; jauzika hari bada, bozkarioz errotuko dire; jakitatez mintzo bada, harrituak egonen; jotzen baditu, besarkatuko diote eskua; urrun bada, gaztiatuko diote maiz ethor dadin ahalik lasterreana. Eginbide handiskoak dire hoik, bainan hil ondolan, senharrek ungi guziak emanen diotzate bere andrei! Bizian makhila, eta herioan zerua! Bainan berak segur dire harako direla? Arras garbi badire bai; erdigarbi baizik ez badire, beharko dute bizia berriz hasi zenbait gizon behar, abere edo marmalotan.

Horra Budda, bigarren Jainko izartu nahi dutena Kristorekin. Badute berga xuxenik asko izkiribatzailek! Agindu zuen haren irakuspenak betheko zuela mundua: argi onik hedatu du! Egia da badituela ehun eta

hiru hogoita hamar miliun adoratzaile, hetan sarthu gabe gizon kaskodun urrunean ezagutzen dutenak! Nihork ez du handi atzeman behar krapes-
tu gabeko abere guziak basa izatea...

Nihork ez daki noiz sorthu zen Budda. Batzuen arabera, bederatzi urthe Jesus baino lehen; bertzen arabera, ehun urthe xoilki lehenago. Erregeak ethorri omen zitzaizkon adoraterat: Zer da omen hori? Haren axkidek erranik ere hori, bertze nork erran du? Ez du nihork ezagutzen European, Asia gehienean, Afrikan urrun, bia edo hirur Ameriketan. Ez othe daoke ere dena den, Jainko bat urre eta zilhar zalea, hainbertze nes-kato beharra bere maintzeko...? Hura urrun zerbait atzematzen dutenek, bertzelako buruzagiak ere eskax atzematzen dituzte hurbilean... Ez du Jesusek bururik erorarazi; bainan berea eman du arimen salbatzeko. Bud-dak egin ditu gizon hits, ilhaun eta basak; Kristok, munduko populu jakin, garbi eta argituenak. Buddak erraten zuen bat, eta bertzea egiten; Kristo hasi zen lehenik egiten, gero erraten. Buddaren haurrak begien beldur dire; Kristorenak, Jainko oro ikusten dituenaren. Buddak eman du emaz-tea neskatoak baino areago; Kristok erakusten du handitasun bera dutela gizon eta emazteak, elkharren lagun direla. Buddaren emazteak tetele batzuek dire; Kristorenak, etxeko aingeruak. Buddaren hitz eta egintzek erakusten dute hoberenerat ere gizon bat zela; Kristorenak, Jainko zela. Ez da Jesus haritu erraten gizona hainitz jasaiten zutela sortzean, bizian eta heriotzean: ez othe zakiten berek ere hori? Irakutsi du nola behar zen jasan. Lehena mintzatu da gaitzaz; bigarrena, sendakailuaz. Behi baten buztanari itxikiz hiltzea eder da Buddaren haurrentzat: Europako jaun aho zabalentzat...? Bada behar bada bertze zenbait Kristori buru eman diozakenik: nor? Konfuzius behar bada: dugun ikus.



VIII. KONFUZIUS EZ DA JAINKO

Lou deithu Sinako erresuma batean sorthu zen jaun hori, bortz ehun eta berrogoita hamar urthe Jesus baino lehen. Omenka mintzo dire haren mirakuluez: badute beraz zimendu onik! Goizik galdu zuen aita; geroztik etzuen ama baizik ikusten eta maite zuen ezin gehiago. Jaiuraz ona, etzuen deusetan haurkeriarik irakutsi. Jateko, othoitz egiten zuen. Bururik hau-tuena, hamabortz urthetan liburu hoberen ezagutu guziak bazakitzan gogoz. Hemeretzi urthetan ezkondu zen. Emazte bat aski izan zitzaion, nahiz legeak gehiago uzten zuen. Dena ere laster etxerat egorri zuen. Ama galdu zuen hogoi eta hirur urthetan, eta dolua ekharri zion hirur urt-hez. Handik lekhora abiatu zen gorthez gorthé egia erakusten. Ardietsi zuen omen bat hain handia non laster hiru mila dizipulu bildu baitzizaiz-kon gutienerat. Nahi zituzken orotan azturak ganbiatu. Izan zen itsasoz joatekotan argi hedatzerat; bainan gogoeta hobeak eginik naski, aski izan zitzaion handi eta berthutetsu egitea sorthu zen erresuma. Altxatu zuen hauzoetan jelosia emateko heinerat, eta berak, erregen buru egina, bazi-tuen ohore guziak. Bizkitartean luzerat unhatu zituen khorodunak, eta utzi zuten bere alde. Nahiz orduan hirri eta trufek eman zioten, etzituen ezeztatu erakuspenak: handi egon zen. Hark arrimatu edo bildu zituen *king*deithu liburuak. Hiruhogoita hamahirur urthetan hil zen. Haren era-kuspen oro lurraraz edo erresumako beharrez ziren. Lehen mendetako azturen berritan sorraraztea bilhatzen zuen, jarrekiz orroitzapen hobere-nei. Ez da behinere Jainkoaz mintzatu. Galdetzen bazioten zerbait hartaz, etzuen nihoiz xuxen ihardesten, bainan itzuliak hartuz, galdetzen eian bazakiten aski aldeko gauzetarik, edo bertze zerbait. Haren haurrek ere ez dute artharik Jainkoaz eta arimez. Berak baditu Sinan abantzu adorazio-neak. Estaltzen dituzte haren aldareak ogi, arno, xirio, lore eta aberekiz. Belhaunikatzen dire gizonak eta jotzen dute lurra kopetaz bederatzitan. Aldaren inguru direnean, aitzindari handienak jausten dire ohetarik, ahus-pez jartzen, eta gero aphur bat oinez joaiten bere bidean. Galdeak egiten dire, suak ere bestetan, eta saildu edo Jainkoaren soineko ondarrak hau-rren panpina eta defenza izaten. Ez da gutiago bakhotxak egin zezakela nahi zuena; joan ziteken nahi zuen tokirat, egon nahi zuen bidetan. Othe zen holako errextasunik Jesusekin? Ez othe ziren bekhatuzko lokharri guziak hautsi behar? Konfuzius handikorra zen; errege eta aberatsak nahi

zituen bere lagun; hainitz aldiz gogor agertu zen: hilarazi zuen Xatxen, bera lekhuko, eta etzen eginarazi zuen heriotze bakharra hori. Urrun da hortik Jesusen eztitasuna, urrun haren aria behar ala bekhatorekin. Kon-fuzius herrestan, ahuspeka zabilan Wei erregeren oinetan; etzituen ikusi nahi haren goibelak. Jesusek deus etzioten gorde, ez galdetu Herodes eta Pilatusi, nahiz bazakitzan hekien ahalak. Konfuzius gizona zen, ez du egin gizonak ezin eginik, ez heriotzean. Badire ehun mila giristino, sailduak izan gabe, hark baino jakitate eta prestutasun gehiago dutenak. Haren lan handienak ez du balio Jesusen azkena: ez da bada oraino ethorri denbora ttipien handi ikusteko eta handien ttipi, ero bardin zaizkoteneztat baizen sinhestetan! Batere izpirituan izari onik duenak ezaguturen du Konfuzius ximino bat dela Jesusen aldean. Ez othe da handiagorik agertu? Ethor bitez lerroan zerbait izan diren guziak.



IX. ISIS, OSIRIS ETA HOR EZ DIRE JAINKO

Isis, Osiris eta Hor Egiptoarren alegiazko Jainko batzuek ziren. Nahiz baduen bakhotxak bere iztorioa, nihork ez ditu ikusi. Batzuentzat Isis eta Osiris ilhargia eta iguzkia ziren. Semea zuten Hor. Hastean guziek bazakiten etzela Jainko bat baizen; baina nola ez baitzen ageri, luzerat jende xeheak Jainkotu zituen ungia zarioten gauzak haren begietan. Hala iguzkia eta ilhargia adoratu zituen. Jakinek bazakiten, Egiptoan ere, Jainkoa iguzki eta ilhargiaz bertzerik zela. Han adoratu zen idiak gogoratu behar zuten lehenbiziko Egiptoarrak laborariak zirela. Buruzagiek ondu eta argitu zituzten azpikoak; erakutsi ziotzaten lurreko ontasunak, eta aziendak eman ziotzaten orroitzapen ezagutzaz. Beldur ninteke tintak arima goibel, baratzen banintz aria erakusten Jesusen eta izen xoro hoi-kien artean. Aitzinat beraz.

X. LIKURGE, NUMA, JUPITER EZ DIRE JAINKO

Izan dire bi Likurge. Bat zen Traziako erregeren semea. Jainkoei gerla egin zioten, josteta galdu batzuetan zabiltzalarik; gehiago dena, bati jauzi eginarazi, lasterkatuz, itsasorat. Hortik etsaiko eta jazarkundeak: Jupiterrek itsutu zuen, eta mahasti atheratzen hari zelarik, bi zangoak ebatzi baitzuten, hil zen, jenden ustez, Jainkoen alderako ozartasuna gatik. Bigarren Likurgek eman zituen Lazedemonen bortz ehun urthe iraun zuten legeak; aski onak ziren orduko, baina egungo egunean nihork jasan ez letzakenak oren bat, azken herrian ere. Agertu zen Likurge hori, zortzi ehun urthe Jesus baino lehen. Lur guziak eman zituen baterat, eta gero guziek bardin behar zuten. Onhets lezakete oraino holako eskale eta bere ontasunak iretsi dituztenek! Mahain bera behar zen herri orotan; etzen berezi edo hobe izkiribatzaile edo izpiritudunentzat: eltzekaria guzientzat! Biluzirik, borroka hazkartzen ziren neskatxak, guzien begietan. Solas galduek etzetzaketen gorriraz. Ebats zetzaketen emazte gaiak muthilek, adin eta goratasunari xoilki khentzen ziotzatarik errankisun bideak. Gizonek eman ziotzaketan elkhari bere emazteak; ohointza zilhegi zen, egin baziteken ikusia izan gabe. Sortzez herbal edo eri ziren haurrak arthikhitzen ziren lezetarat, xakur ume soberak bezala. Lege holako enmaileak baduke ariarik Jainkoarekin?...

Numa Erromako errege zen, Jesus ethorri baino lehen bortz ehun urthe. Jende basekin zituen egitekoak, eta nahiz hek eztirazi, sinhetsarazi zioten Jainkosa batek erakutsi ziotzala hekien dohatsu bihurtzeko lege hoberenak. Lege on hetan zenbait bazioazen neskatxan bizirik ehozteraino huts batzuetan! Eta errege handi horren jakitatea ezagutarazteko, erranen emazte hamar ilhabethe gabe arrezkontzen zirenek behar ziotela Jainkoei hil behi ernari bat. Mahasti moxtu gabetako arnoa etzen on aldaretan: Jainkoa adoratu behar zen itzulika ibiliz. Behar othe dugu eman Numa ere Jainko lerroan? Errege balitz eta oraino bizi, baluke zenbait zurikatzaile; baina holako Jainkoak othoitz guti eginaraziko diote egun iraganetan hil gizon ospatuen adoratzalei ere...

Jupiter izanen da, nihor izatekotz, Jesusi itzal eginen dioena: ezagutua zen lehen, ezagutua da orai ere, hitzetan bederen. Jainko pulita hura



ere! Aski da jakitea egiten zituela gizonentzat ahalkagarri diren gauzak gogoan ibiltzeko ere. Baina ororen buruan, haren izena ez diteke egiazko Jainkoaren izen estropiatu bat baizen. Mendetako gauean asmatuak ziren hari darraizkon egintza edo alegiak. Egia goibel, amets harro eta alegia ozarrak baltsatuz elkharrekin, egin ditezke Jupiterkiak!

XI. ZOROASTER EZ DA JAINKO

Ager bedi Zoroaster. Persiako zen, Indietan ibilia, eta handik lekhorra, Magoek adoratua suaren itxuran. Ez da errex jakitea bat ala bia izan diren izen hortako. Badire sorrarazten dutenak bat, 2459 urthe Jesus baino lehen. Babiloniarra zen hura, handizki aitua izar itzuletan. Bertzea sorthu zen, 518 urthe Jesusen aitzinean. Etzituen bortz ilhabethe baizik, haren amak izan zuenean amets bat: ikusi zuen zerua sutan, eta sua haurraren estaltzen. Lau belatxek khendu nahi zioten sabeletik; baina jaun batek haizatu ziotzan eta sendatu zioen hek egin zauria: mirikuek ere ez dute gehiago bederen egiten. Amak garraiatu zion senharrari zer gerthatu zitzaion; senharrek jakin behar dituzte emazten ametsak ere! Gauzak hainitz erran nahi baitzuden, senhar-emaztek bilhatu zuten astia bat. Badakite orok zer diren astiak: laborantza ezin ikhasi dutenak, tratuko ezdeusak, bururik ez dutenak nausi izateko edo ontasun ibiltzeko; ez tirenak on aita, seme, ez muthiltzat! Hetarat dioaz berehala zuhurrak, abere abiatzen zaiotenean itzulika, gibelaren gainerat erori nahiz zango bat edo biak eskastuz. Alabainan gaitza duenak ona nahi! Astiak erraten diote azienda eri dutela, eta badioaz etxerat, bortz libera utzirik, gaitza etxean dutela entzun sari. Zoroasterren aita-amek ikhasi zuten gehixago: zer bada othe? Hekien haurra argi handi izatekoa zela! Astiek maiz berri onak dituzte: zer irabaz lezakete zorigaitzak aginduz? Bihotz ilhunhari mehe dario sari. Haurra sorthu zen hirriz, buruko zainak handi eta ageri: berri ona! Erregek bi zathi egin nahikatu zuen, baina besoa ihartu zitzaioen: hura harentzat! Handik laster, haurra ebatsia da eta eramana morthu baterat.. Han erretzerat zaramakatarik alkaterna eta breiazko su batean, kharrak gosna bilhakatu ziren, eta haurra lokhartu zen atsegin guzietan: berriz ere jakinek handi atzemanen dituzte Egipto, Babilonia eta Indiak! Hetan ditu adimendu onak bere bazkak. Egin diozatela haurrari othoitz, eta agur lurreraino, ez dadin mokhor atzar ezagutzen ez dutenen kontra: erakuts diozatela haur ttipiari bere handitasuna, hertsatuz gorputza eta izpirituak! Zazpi urthetan pozoatu nahi izan zuten; baina etzion edariak deusik egin! Behar bada on egin ere zion! Hamabortz urthetan eskola egin zion aitari: Oh bah! Sinhetsazue: nola izanen zen bertzenaz handi? Hogoita hamar urthetan hasi zen karitate egiten: zikhoitzek izanen dute hor errateko, baina Jainko zaharren axkide jakinak ez dire zikhoitzak:



buruko eta soin ederrik badabilkate neskatxa gazte zenbaitek, heki esker! Begiak edo buruak itzultzen badiotzate eskalei, zertako dire zahar eta itsusi eskuak hedatzean? Ihesi zioalarik behin Zoroaster, atzeman zuen bidean hibai bat, bainan joan zitzaion gainetik baia-baia, ura harri izan balitz bezala: hun! zer diozue hortaz? Eremuan sarthu zen, eta han egon xingili! Jakinei ederrago zaiote xingili, belhauniko baino, ez naski ixterrez on direlakotz, gauza ezin ikusia, galtza luzeak ethorriz geroz; bainan naski lekhukoen arraizia bide gatik. Zoroaster gogoetan zagon, jakiteko nola hobetuko zituen gizonak, aingeru bat ethortzean galdetzerat, zer bilhazten zuen? Jainkoaren ganat joaitea, ihardetsi zion, lege zenbaiten bilha: Ez othe zakien Jainkoa orotan zela? Behar bada uste zuen etzuela liburutegia berekin, eta haren beharretan zela asko galde handiri ihardesteko. Hala bazen eta ez, aingeruek garbirazi zuen eta zerurat eraman, begiak itsuturik: erran beza gero norbaitek zikhinak garbitzen direla eta gaxtaginak itsutzen! Etziteken ere Zoroaster Santxo Panza hirrigarri bat... Nahiz ez dezakegun erran zertako itsutu zuten, badakigu ikusi zuela nahi zuena. Geroztik zakien erraten lurreko gauza hoberenak ura eta sua zirela. Laster egin zuen bigarren itzuli bat Jainkoa ganat. Orduan bera zen: itsuturik eraman zuten lehen aldi, eta halere ikhasi zuen bidea: Gizona ziteken othe hura? Iragan zuen mendi suzko bat xingili saltoz, eta ikhasi zituen Zen-Abesta liburuan diren gauzak suaz, uraz, harmez, aberez eta bertze gainerako gauza beharrez lurrean. Xanfarin batentzat hartu zuten jaus-tean Magoek; bainan gero, iduriturik zerbait gehiago behar zela, galdetu zioten nola behar zuten bizia luzatu edo arraitu: magoek oraiko gizon aituen gustuak zituzten! Irakurri ziotzaten bi lerro bere liburu Zen-Abes-tanetik; bainan lehen lerroa entzun orduko, joan ziren ihesi, haur borro-kariak bezala, Bidart bere errient zuhur eta ernea ikustean. Beldurrak hil zituen erdiak, eta bertzek galdetu zioten barkhamendu, burua basan: ez belhauniko! Hartako behar bada asko izpiritutsu ez dire belhaunikatzen. Basarat jautsiren dire lehenago, eta biziki sailduago izanen dire! Athera behar dugun Zen-Abestan liburu handia zela: ihesi egortzen zituen etsaiak! Angelesek zerbait emanen zuten haren izateko, Inkermango suan, bide egin nahi etziotenean Rusianoek. Behin erregeren gorthean sarthu nahi izan zen Zoroaster, eta hetsi zioten athea sudurraren gainerat. Bainan sarthu zen nonbaitik: behar bada athe zilhotik, sorginak bezala, eta oro harritu zituen. Nihork etzuen ezagutzen, bainan egin zioten hainitz galde, eta ikusi zuten gorthean guziek etzela Peilo. Erregeri erran zion: Jainkoak egin ditu lurra, izarrak eta zazpi zeru. Artha du ezagutza dute-nez. Bizi da eta janariak hura dute ithurri. Hark egina zare, zu ere, zor

diozu khoroa: haren izenean heldu naiz. Horren ondotik hartu zuen berak nausi itxura eta hasi zitzaion erregeri toka, erakutsiz liburu, eta erranez: Egiten baduk hunen arabera, ungi izanen haiz orai eta gero: han-bat gaxtoago ez baduk egiten! Erregek galdetu zion mirakulu bat, jakiteko eian Jainkoaren izenean heldu zen.

—Zen-Abestan duk mirakulu handiena, ihardetsi zion: Irakurrak, eta ez duk deus gehiago galdeturen. Bainan hain gorako gauzak ziren liburu hartan, non aho zabalka hasarazi baitzuten errege. Etziren hargatik mirakuluzko gauzak behar liburu hartan, bertzenaz etzioten hainbertze beiraturen asko jakinek: mirakuluz goiti zilhatzen du hekien izpiritu zorrotzak! Nola errege eta haren lagunek mirakuluak nahi baitzituzten baitezpada, Zoroaster eman zen egiteko bidetan. Paparorat ixuri zuen berun urthua, hartu eskuetan, eta etzen erre den gutiena! Ez da erraten non eta noren aitzinean egin ziren gauza handi hoik; bainan naski Zoro-asterren egintzak sinhets ditezke itsurat, eta ttipienak ere gorenean ezar. Errege beretzerat baitzaramakan, Magoek eman zuten gela beltzean: Nork asma zuen holakorik? Zorigaitza orori darraikotela diruri. Erregeren zaldia eritzen da: sartzen zaizko barnat gorphutzean bere lau zango-besoak! Hertzek ala hezurrek egin zioten bide? Ez dakigu; bainan miri-kuek, oro dakitzatelarik gaitzetan, hemen etzakiten deusik. Etziren bada itsurat jokatzeko gizonak, bereziki zaldi batez zioanean! Zoroasterrek agindu zuen zaldiaren sendatzea, bainan profetatzat ezagutzekotan erre-ge, erregina eta gorthesano guziek. Lau zaldi zango-zathi onegiak ziren, ez egiteko aithorra hekien ilkhiraztalea gizon edo izate berezia zela. Erre-gek lau aldiz deitzen du Zoroaster profeta, eta aldi bakotxean, hor non zango bat jalgitzen den zalditik! Profetak hordirazi zuen behin errege, eta erakutsi zion zeruan beharko zuen tokia: biba hordien begiak! Errege hark lagundu zuen hedatzen Zoroasterren erakuspene. Nihork ez daki hargatik non eta nola hil zen mende ilhonetako argi hori. Ekharria ninte-ke ohorerik batere ez bihurtzerat, haren lagun jakinek erran arte noiz behar diren hasi. Bizi izan diteke oraino, eta bertze hura bezala heldu balitz liberan kantatzerat!!!



XI. LUTHER ETA CALVIN EZ DIRE JAINKO

Zenbaitek uste lukete mintzatzen ez banintz Luther eta Calvinez, zerbait bazirela, edo hekien lanek ixilarazten nautela, handiak zirelaketz. Higanot edo protestanten buruzagiak dire bi gizon hoik. Eman dute ondotik hainitz gizon; baina nola? Handiak ferekatuz, ohointzari bideak idekiz, jaiuren araberrako bizia onhetsiz. Ez ditu nihork segitu Eliza Katolikoan baino hobeki egitekotan. Badakizue nola ohoinek maite duten gela ilhuna? Halatsu higanotek maite dituzte berthute giristinoak. Ebandelioa dute bere liburua; baina aitzen dute nahi duten bezala. Etsiz Luther eta Calvin profeta berri eta Jainkoaz egorriak. Hekien ondotik Elizaz kanpo jarri direnek berek badakite gizonak zirela, eta ez bethi gizonetan hautak. Ahalke dute hekien zenbait egintzez, eta galdetzen zaiotenean zertako segitu dituzten, diote ez direla hekien ondotik joan, baina egia- ren ondotik. Itxiki dituzte mintzaira zamal-zainenak baino areagoak! Ostrikatu dute garbitasuna! Ikustean zenbat nigar ithurri sorrarazi duten Elizan, zenbat zauri egin Europan, zenbat odol ixurarazi, zenbat herri errerazi eta zenbat erromesia hedatu, ez da galdetzeko eian aldareak izan dituzten, baina eian ez diren urkhaderan hil!!!

XIII. MAHOMET EZ DA JAINKO

Mahomet aiphatua da mendetan. Izan ditu dizipuluak, baina hura ere nahi bezain bat altxaturen dute, ez da Jainko, ez profeta. Ezpatak handitu du, hartaz egin ditu bere lanak, hartaz artu bihotz hoberenak, hartaz sarrarazi bere herrietan lege sensukoi edo gurikeriazkoak. Beldurrari diote oraino zor iraupena. Ezpataren dixidua khentzen zaioten ordutik, Mahometanoek izanen dituzte ganbiantzak. Tratulari bat zen Mahomet hogoi urthetan. Bere etxeko andrearekin egin zuen ezkontzak aberastu zuen eta orduan hasi profetarena egiten, inguruko ilhunbei esker. Erortzeko minak hartzen zuen, eta sinhetsarazi zuen gaitz hori aingeru batek ematen zion zoradura bat zela, mintzatzen zitzaionean. Ez diote Juduek eginen profetaren aithorra: sarraskitu zituen eta bildu ziotzaten bere urreak. Ezpataz mintzo zen, zioelarik: bakhotxak bere dohaina! Hura zen gizon bat etzema bere hitzaren jabe: Meka hartu zuen, erran ondoan etzuela beldurrik izateko. Hedatu zituen erakuspenak lau egun lekhoa urrun, eta hil zen pozoatua, erakutsiz gizon, eta gizon itu zela. Utzi du Koran, sei mila pikotan egin liburu bat, buru eta buztan gabea. *Hitz batzuek bertzeak ezetatzen dituzte, eta mende batzuek bertzentzat emanak dire liburu hartan!* Duen on guzia, liburu sainduetarik atheraia du. Dio Jesusez: Mariaren Semea Mesiaz dela, Jainkoaren Berbo eta Izpiritu. Baina Jesus Berbo bada eta Jainkoaren Izpiritu, Mahomet ez da deus harentzat, guziak hark ez bezala erakusten dituenaz geroz. Ez dute deusetan elkharren ite edo iduririk: Mahomet handitarik zen, lehena Mekan, aberastua ezkontzaz, aitzindari guzien axkidea, mende goibel edo ilhunbetako apostolua. Kristok etzuen diru, ahaideko edo goratasun handirik. Behera sorthua zen, eta doiean ezagutuak ziren haren burasoak. Hesturan izan zen bethi, ez jakin askotan non etzan burua. Etzuen beraz lagun gezur hedatzen esku eman ziozaketen hetarik, eta haren egunak etziren amets edo asmuen onhestaleak nola nahi: mundua etzen nihoiz izan argituago.

Mahomet atsegin lizunen axkidea zen; bazioan berak eman izariez kanpo ere: bazen bada hetan ere bazka! Bazioan liga lephoraino, errenkurei erakutsiz haltzairu zorrotza edo bere hasarreduraren kharra. Lohikeriak etzuen harentzat aski eremu zabalik, eta bilhatzen zuen sinhetsarzteza bazuela lohikerien eskoba. Jesusek aztura garbienak zituen bizi



guzian. Ez dute utzi itzalik xumena, eta haren hitzek, ez haren egintzek. Guti liteke erratea ez duela bekhatu egin: saindutasuna bera zen; distiatu du berthutez, bekhatuzko gauean, nola iguzkiak hedoi guzian gatik egunazko bidean. Bazituen etsai erne eta atzarriak, eta ozarrenek ere ez dute izan ha bat errateko haren hutsez.

Hasarre errexa zuen Mahometek; noiz nahi su eta ozpina zarion; nahikabe xumenak errotzen zuen, eta orduan etzuen nihor entzun nahi; ezpata gorritzen zion odolak jabaltzen zion asaldura, maiz behar gabe jauzia. Odolean hiltzen zuen egarria, eta egarri zen husu. Kristo ezta zen, bildotsaren iduriko. Etzion haize emanen hiltzerat zoan argiari; jasaiten zituen laido minenak, errenkuratu gabe; xukatzen zituen nigarrak bihotz onez; solas maiteak zarraizkon; etzuen nihor hil, ez jo, ez bekhoz bekho laidoztatu, gutiago gibeletik.

Mintzatu bazen Mahomet Jainkoarekin edo Gabrielekin, nihork etzuen ikusi Jainko edo aingerurik, ez entzun hekien solasik. Bera zen erraile ariak bazituela lurraz gorago. Horren erratea ez da gaitz, bereziki aditzaileak zozosko direnean, eta hitzek ez dutenean hertsatzen deus egiterat gizonen ahalez goragokorik. Jesus deithu zuten Jainko semea zertik; distiant bilhakatu zen mendi gainean: Ez da Jesus bera izan hoikien erraile: baziren lekhukoak.

Mahomet etzen agindua izan. Nihork etzuen igurikitzen ethorri denean, eta ondotik gero joan zaizkonek etzuten ezagutzen haren beharrik. Ez balitz sorthu, edo egon balitz ere azken gizon bat bezala ilhunbean, nihork etzuen ikusiko haren eskasa. Kristo agindua zen, igurikia mendez mende. Agintza hek etziozkokoen hari baizik, eta haren etsaien eskuetan ziren. Sorthu zenean, orotan norbait handiren igurikimena bazen; etzen bertze solasik, bereziki iguzkiko aldean.

Mahometek ez du egin mirakulurik. Goraki ere zion etzuela hortako indarrik. Bizkitartean ez da mirakuluak bezalako predikaririk. Errex da hekiekin bide egitea bihotzetarat: Hekien egiteak badu laguntzetan hobereana. Bazakien hori Mahometek. Hekien eskasak eginarazi ziotzan liburu goratzen dutenak hitz eder eta hautuenekin. Sinhetsarazi nahi zuen, bazuela bederen nihork ez bezalako mintzaira, izpiritu bat berezia. Jesussek egin zituen mirakulu espantagarrienak, egun argiz eta lekhuko osten artean: gorak adirazi, itsuak argitu, hilak hobietarik jauzarazi.

Mahometek, lehen hamabi urthetan, bildu nahi izan zituen haurrak eztitasunaz; bainan solasekin etzuen haur bat bildu. Hirugarren urthean,

hiru zituen oraino; zazpigarrenean, larogoita hiru. Etzituen hemezortzi emazte baizik, nahiz emaztek sinheste errexagoa duten. Urthe gutixagoz, Jesusen eta haren lagunak milaka zituzten haurrak: hedatzen ziren Asia guzian.

Bere erranen arabera, Abraham, Isaak, Moises, Ismael eta Jesusen egia berak erakusten ziotzaten Mahometek Judu, Giristino eta Arabei. Jadanik sinhesten zirelaketoz gauzak, iduri zuen bidea egina zuela erakuspenak. Jesussek bazakhazken bertze egjak ere, eta barraiatzen zituen erro-tik atsegin ezten Elizak.

Mahometek jaiuren arabera mintzatu zen, utziz gutiziei bere bideak. Suzko galdeak zituzten bihotzek, eta bero ziren herriak. Errextasun guziak izan zituzten nahi ooren egiteko. Gizonak har zetzaketan lau emaztetaraino, eta egor baxhotxa hiruretaraino, berrien hartzeko. Toki beretan, jaiura beren bidetan, Jesussek ezagutarazi zuen garbitasun ederra. Emazte batekin egon behar zuten gizonak; etzitezken bi alde jar ere, adulterioaz kanpo. Behar ziren gogoeta eta begiak zaindu; nahikunde lizun xumenak, bihotzean itho. Zerua bihotz garbientzat zen. Porroskatu behar ziren lokharri maitenak.

Gizonen biltzeko eta heki besarkarazteko bere erakuspenak, Mahometek agintzen zioten parabisu bat, emazte arrai eta ederrenez bethea, Jesussek etzioten nihori agindu gorphutzeko atseginik: erran zuen etzela zeruan ezkontzen. Gozamen garbi eta izpiritualak agintzen zituen; egia da hek asma ahaleko gozamen guziak garaitzen dituztela.

Atsegin ez landan, Mahometek bazituen bertze amarrak. Lagun zituen ikhara eta harmak. Hekien predikua abiatu arte, balentria guti egin zuen. Koran eta ezpata betan zioazen, eta hala herriak atzeman ziren. Mahomet aurkhitu zen zortzi gudu handitan; egin zituen, berak edo bere jeneralez, berrogoita hamar athera aldi: hil edo sinhets, hauta zuten garaituek. Judu eta Giristinoak uzten zituen baxharrik bizi, zerda pagaraziz, ez bazuten Mahometano egin nahi. Jesusen harmak ziren eztitasuna, gonbidua, argi eta mirakuluak. Ezpata izpirituala zabilkan Mariaren Semeak, etzuen soldadurik: baketierra, bakea zaxharken. Ez indarka eta hertsatuz, bainan egia predikaraziz lainhoki dozena bat arrantzalei, utzarazi zituen sortzezko azturak, hitsarazi sinheste zahar eta bethikoak, gorrirazi Erromanoen asmu zuhurrak eta ezeztatu hekien indarrak.

Mahometek nahi zituen ondotik gizon odolezko eta ezaxolatuak. Bendekua zarioten, larrutzen zituzten etsaiak. Guduak gudua zaxharken.



Gerlariek etzuten behar unhatu; hekientzat ziren Parabisuko aberastasan handienak. Ohi ziteken beraz odol ixurtze nor nahi, ehortzi behar ziren sinheste gabeak: ezpata zen zeruko eta lurreko atseginen bidea. Mahometek etzakien bertze theologiarik: odol xorta baten ixurtzea gehiago zen, ederrago eta handiago, ezen-ez herriaren zaintzea eta ilhabeteak penitentzian egotea. Bainan, nahi edo ez, bendeku eta sarraskiek egiten zituzten gizonik basenak eta lazgarrienak. Jesusek etzuen nahi nihor heratsatea; sarrarazten zion ezpata Piarresi bere tokian, erranez: Ezpatalaria ezpatak galtzen du. Ixilarazten zituen zeruko sua jautsarazi nahi zutenak hiri hobendunetarat. Etzen ethorria galtzerat, bainan salbatzerat; bakea zuen maite, etzen behar aiherkunderik etsaientzat ere; urrikaltzea nahi zuen, aita zerukoa bezala.

Mahometen haurrak hiltzale eta ohoinak ziren; Jesusenak, haur ezti, bakezko, kanpoz barnez bezain garbiak.

Mahometek utzi du Koran; Jesusek Ebandelioa. Irakurriren litzuketak aldizka liburu hoik, egia atzeman eta segitzeko xedetan, ez luke nihork erran beharrik zeinek dirurin zerukoa.

Mahometek berak eta haren dizipuluek aphaindu eta aphainarazi dute handizki Koran, bere liburua. Xoragarria daukate, ezin gehiago ederra, hitz hautazko lana. Nihongo solasek etzaiote badutela hangoen ezitasuna, eta mirakulu bat da hori hekientzat arras ageria, arras handia, ezin ukhatua. Holako egitea baino errexago liteke hil piztea. Bainan nihor gutik sinhetsiko du Jainkozko lana dela, zeren darion hitz ezti, legun eta hautu. Badire Koran baino ezti eta legunago diren liburuak. Bertzela kilikatzen dituzte bihotzak eta llullurazten izpirituak Zizeron, Virgilio, Demosthenes, Bossuet eta Massillonek. Hitz eztiak ez dezakete bilhaka Koran Jainkozko: gizonen arthak khorozaten dituzte hoberenerat. Ebandelioak ez du deusen beharrik; soinekorik gabe ager diteke. Hitz eder eta hutsak baino, hobe ditu lagun egia.

Koran, edergailu dituelako guziekin, hila da kondairetan, bethi bera, loharkarazten du erakurtzalea; ehun aldiz mintzo da gauza berez; gauzen hiruetarik biak alegia hirrigarri batzuez ditu, antze gutirekin moldatuak, eta asko erakuspen, ahalkagarri eta beharri garbiek ezin entzunak. Deus berririk ez du, hain guti gauza maite eta gaziturik. Hango on guziak badi-re Testament Zahar eta Berrian, eta bere lainhotasunean, bertzelako arraizia eta atsegina dute erakurtzalentzat, ezen ez Koraneko solas landuek. Ebandelioak hitz guti du, eta hek xuxenak. Berezia da, ukigarria, behere-

gi jausten ez dena nihoiz, hauta erakuspenetan, izariz mintzo dena, gora eta urrun zilhatzen duelarik eta erakurtzalea irabazten. Iduri du Jainkoa berekin duela, eta sinheste horrek ematen du batbedera aldeko sailduari dioakon bezala.

Mahomet mintzo da bethi bere buruaz, bere dohain, bere egintza eta bere liburuaren edertasunaz. Ebandelioaren egilek ez dute altxatzen bere bururik, ez bere lanik. Nausiaren egintzak berak ez dituzte hedatzen batbanazka, ez ematen egunik ederrenean hobeki distirazteko: egia ez du urguluaren mihia!

Koran mintzo da xeheki gauza ezdeusez, ergelkeria dario, galtzen da lerro hirrigarrietan. Ez detzake nihoiz aski izigarri bilhaka ethorkizuneko sariak, ez eta ere nihoiz aski izigarri bilhaka ifernuko lezeak. Ezin jakin gauzez mintzo da luzeki, ezin akhabatuz bezala, sarthuz hizkuntza lizun eta higuinetan. Bi hitzez dire Ebandelioan zoriona eta zorigaitza, bainan halako gisan dire non, izpiritua nahasi gabe, ukitzen baitute bihotza.

Mahomet bethi beldur da galde diozaten zer mirakuluz erakusten duen zeruko egia. Noiz nahi bere buruaren garbitzen hari da, nihork deus galdetu gabe: berak baitaki non duen eskasa, eta ustez bethi han dituen etsaiak. Egia ez du zelatarien beldurrik; hartako Ebandelioan nihor ez da khexa erakuspenez, gauzak berak mintzo dire aski.

Mahometen liburuan gezurra ageri da, nola egia Jesusenean, Mahometek erakutsi du jotzen, zaurtzen, hiltzen; Jesusek gantzutzen, sendatzen, pizten. Batek gizon lanak egin ditu, bertzeak Jainkozkoak. Mahomet oinetarik buru harmatua nahi zen, bere ona zuen erresuma larrutzen; Jesusek, harmarik gabe, hedatu du bakea, haizatu nahas dura, arthatu mundu eria.

Mahometek egin ditu Turkoak: badakizue zer erran nahi duen Turkoak, gizon Turkoak? Jesusek egin ditu bihozduen gizonak, haren dizipuluek eman dituzte oro oinetan, oro utzi, oro galdu, biziak ere, bere anaien salbatzeko. Mahometek aberetu ditu gizonak, Jesusek aingerutu: bat zen gizona, bertzea Jainkoa!



XIV. JESUSEN PIZTEAK HILEN ARTETIK ERAKUTSI DU HAREN JAINKOTASUNA

Bat banazka agerrarazi ditugu lurrean izan diren gizon handien guziak. Ez da bat izar ditekenik Jesusekin. Guziak, haren aldean, zinhaurria idiaren aldean baino ttipi eta eskasago dire. Ez dute egin Jainkozko lanik. Utzi behar da beraz Jesus bere alde; orok nausi dute. Hark egin ditu gauza handi, gizonek ezin eginak, eta batez baizik ez mintzatzeko, hilen artetik piztu zen, agindu zuen bezala, bere indar xoilez! Juduek bazakiten haren errana; bere eman zituzten zaintzaleak hobian, hilarazi eta ehortzi zutenean. Hasi zirenean Apostoluak predikatzen Jesus piztu zela, Juduek behar zuten haren gorputza agertu, eta gorriazi predikariak, gezurrez mintzo baziren. Zertako etzuten agertu? Zer bilhakatu zen? Etzuten Apostoluek eraman zaintzalen artetik. Ixilik edo harmekin beharko zuten egin lan hori. Nola egin zezaketen ixilik? Harrian ehortzia zen, eta asko harrabots behar ziren egin haren higitzeko. Zaintzaleak, nahi edo ez, orroituko ziren edo atzarriko, lo handienez izanik ere. Etzuten harmekin egin gorphutzaren zaintzalei khentzeko lana: Orduan zaintzalek ere bihotz erakutsiko zuten, hartako ziren emanak hobi inguruan; harmak harmekin neurtuko ziren beraz, eginen zen gudu, odola ixuriko. Bainan hori gerthatu balitz izanen ziren soldadu eta Apostolu hilak; atzemanen ziren guduko arrastoak: izan da deus holakorik? Bertzalde, gauza orok dakitena da, Apostoluak etzirela har arte hanbateko soldadu agertu, eta zaintzaleak lo zaudela erratea, egia aithortzea da: ezen lo bazauden, erran duten bezala, nondik zakiten Apostoluek eraman zutela gorphutza, edo zertako zaintzaleak etziren hilarazi, legea zen bezala Erromanoentzat, bere eginbidea bethetzen etzutenen? Piztu zen Jesus, edo enganatu zituen Apostoluak. Piztu gabe, sinhetsarazi othe diote piztu dela? Bainan Apostoluek diote ikusi dutela piztua kanpo eta barnetan, banazka eta birazka; bortz, zazpi, hameka, bortz ehun baltsan zirelarik. Jan eta edan dute harekin. Batek etzuen sinhetsi nahi piztu zela, ikus arte bere begiz, eta agertu zitzaion. Uste izan othe dute Apostoluek ikusten zutela, ikusi gabe; entzuten, entzun gabe? Ametsetan othe ziren hoik gerthatzean? Geroztik, ez liteke deus sinhesteko, oro amets ditezke! Bainan Apostoluek sinhetsi dute Jesus piztu zela; etzuten eginen, piztu ez balitz: zerta-

ko? Sinhesteko hortarik ez dute izatu zorigaitzik baizen lurrean: izan dute aski min atzartzeko, lo bazauden. Ez diteke ere sinhets, berak enganatuak izan ondoan, bertzeak enganatu nahi izan dituztela. Enganatu balitu Jesusek, etziren aski zoroak izanen hura gatik jasaiteko gose, egarri, azote eta heriotzeak: odola ixuri dute sinhetsarazteko Jesus piztu dela: holako lekukoak ez badire onak, nongoak izanen dire onak? Jesusek, nahirik ere, etzetzaken engana. Hilez geroz, indarrak galtzen dire, ez da gehiago deusetako eskurik. Bizian bat edo bertze llulluraturik ere, ez da nihor aski zoro errateko hil ondoan ethorriko dela gauza handiagoen egiterat. Ez da zeren erran Apostoluek gauza guti zakitela; bazakiten aski, ikustea aski zen gauzetan: Jakinek bezain begi eta beharri onak dituzte deus guti dakitenek. Apostoluek ikusi dute Jesus behin hila, gero piztua. Erran dute egia hori goraki, azken hatseraino, presondegietan, ezpaten aitzinean, suaren erdian: beraz segur ziren!

Ez dute bere sinhetsi, munduari ere sinhetsarazi diote: etzuen bada hala hula sinhetsiko! Argi izan ez balitz egia, nork utziko zituen bere aisia, atsegin eta ontasun gaindiak? Nor jarriko zen berthute hertsien menean? Nola uste izan, gizon erreki eta guriki ohituak, bere buruen zehatzen eman zirela, entzuten zituztenek ez bazuten zimendurik?



XV. NAPOLEONEN SINHESTEA JESU-KHRISTO BAITHAN

Bertrand jeneralak erran nahi izan zion behin Napoleoni Jesus etzela Jainko, bainan gizon handi bat, hura bera bezala. Huna zer ihardetsi zion:

«Aitzen zait gizonetan: Jesus etzen gizona. Izpiritu arin eta hondo gabek atzematen diote aria gizonekin: Zerua lurretik bezain urrun da hura gu ganik. Batere gauzak xehatzen dituenak, ikusten du hori... Zerukoa da egia, basakoa gezurra. Zaurtzen dute egia gizonen: zertako ez gezurra? Gezurrak ageri ditu beharriak, ez du nihor enganatzen... Bada lehen egia bat, Jainkoaren argia, badioana munduaren sehaskaraino, sortzen atzematen dena legetan: eginbideak erakusten ditu. Hark ezagutaraziak dire justizia, Jainkoa, arima eta gorphutzen aria. Egia hartan sartzen da Jesus; ez da nihoiz edo nihon zaurthu, nola paganoak, bide eginaraziz indar, gudu, aberastasun edo nahien arabera... Ethor bedi ene aitzinerat paganoen zeru guzia; ez da han ni belhaunikaraziko nauen Jainkorik. India, Sina, Erroma eta Athenako Jainkoek ez dauzkitzatet begiak aphalaraziko. Ez naiz itsurat mintzo, ez gaizki erran beharrez: ezagutzen ditut!

»Likurje, Numa, Konfuzius eta Mahomet lege emaile batzuek ziren, lehen gizonak bere erresuman, gerletan handi eta bihotzdunak; bainan ez Jainkoak; berek ere etzuten hoin gora beiratzen. Ondokoek Jainkotu nahi izan dituzte. Nahiz bazuketen guti edo gehiago izpiritu, gizonak ziren, gizonen eskasekin... Jesus baithan oso miragarriak diren: asmu, solas, egia, bihotzen gaineko indar, sortze, erakuspen, izate, nausitasun eta iraupena, erromesia guzien erdian. Utzi behar da bera, ez da bertze halakorik. Bada-rraiko mizterio bat ezin argitua nihola, asmu ilhunbetakoak ixilarazten dituen. Hurbilagotik beira eta handiago da. Lehertzen du adimendua. Berak daki bere lana. Badute haren solas eta erakuspenek zigilu berezi bat. Ez ditu liburuetarik bildu. Bera da ororen ithurri eta mirail...

»Ez du bilhatzen gizonen jakintsun egitea lurreko gauzetan. Arimak nahi ditu beretzat; hek aski ditu, nola hekientzat aski baita. Lehenago arima deus etzen. Gorphutzak ziren mentan; bainan fedea itho du lurreko eskola. Nihork ez du zeren deus erran: Jesusen erakuspenak baitire

zuhurrak, garbiak, argi dutenak izpirituaren azken mugarritaraino... Girstinotasuna gizonen meneko da; erakusten ditu egintzak. Harekin oro handi dire denboran eta bethiereko bizian, oro Jainkoari dioazkonak. Ez da nihor nihoiz Jesusi hurbiltzen denik. Ez da aski izpiritu ifrentzaturik ukhatzeko haren nausitasuna... Haren hitz guziek badute indar, eta laguntzen dute elkhar, harrasi bateko xoborrek bezala. Lerro bakhotxak badu bere erakuspena, eta ez dio deus khentzen erakuspen osoari. Ebandelioa liburu berezia da, egintza eta sinheste onen ithurri ezin agortua. Jainkoa behar zen egiteko lan hori, nihon ez duena bere idurikorik, oro erraten dituen, arras berria, ezin berratua.

»Gizonen lanak bizian dire; Jesusek oro heriotik iguriki ditu. Etziteken hori gizonen bidea. Hil zen, etzuelarik zenbait dizipulu tonto baizen. Kontra zituen populua eta Juduen aitzindariak. Arnegatu zuten bere lagunek ere. Hoik gerthatu beharrak ziren, profeten arabera. Berak ere etzuen deus gorde; erran zuen: harturen naute, gurutzefikaturen, arnegaturen, gaxtaginek izanen dute nausien eguna; bainan justiziak izaten duenean berea, koro-pilaturen ditut zeru-lurrak, eta ene heriotza dizipuluen bizia izanen da. Hazkarrak izanen dire geroztik lokharriak; ezen pizturen naiz, higanen zerurat, eta egorriko dut izpiritu argitzailea. Gurutzearen izpirituak erakutsiren du Ebandelioa, sinhetsaraziren, predikaraziren, hedaraziren.

»Bethe da agintza hori, jondoni Paulok deithua gurutzearen zoro-keria. Ez da aski izan hortako egun bat, ez gudu bat. Hirur ehun urthe iraun du gathaskak; apostoluek hasi zuten eta ondokoek segitu. Lehen hogoita hamabi Aita-Sainduak hil ziren egiaren alde. Erromako kadira gilotina bat zen hiru mendez. Han jar ahalak herioaren bazka ziren, eta bertzetako aphezpikuek ere on guti zuten. Gerla hortan, errege eta indarrak alde batetik ziren. Bertze aldean, etzen harmadarik; bainan bazen atzartasunetan miragarriena. Sinheste berak biltzen zituen hor-hemenka barriatu gizonak. Gurutzea zuten lokharri: zer amarra! Harekin eman zuten bada su bihotzetan, hura egin arimen aldare. Zenbat odol etzen ixuri, zenbat gudu egin, haren inguruan!... Aberekeria zen gathaskan adimendurekin, gorphutza arimekin, bekhatua berthutekin. Hibaiaz zioan girstinoen odola, eta hiltzen zirenek besarkatzen zituzten hiltzalen eskuak. Gorphutzek oro jasaiten zituzten arimen gatik. Hil oro girstinoak ziren, eta hek gelditu ziren nausi!

»Zenbat iraun du Zesarren nausitasunak, zenbat soldaduen kharrak Alexandren alderat? Gehienerat ere, nausi zireino. Galdu balute bitoria,



joanen zitzaioten nihor ondolik heriotzeraino? Ez dituzte oro galdu heriotzean? Ikusi da soldadurik gerla egiten gehiago hekientzat? Hiltzen zaiote nihor urririk? Turenne gorphutza etzen oraino hoztua, eta ja haren harmada ihesi zioan, eta ni, ene harmadak ahanzten nau bizirik, Annibal ahantzi zuten bezala bere gerlako lehoinek. Ez doa urrunago gizonen ahala. Gudu baten itzuliak goibeltzen du hekien iguzkia; zorigaitz batek khentzen diotzate axkideak. Zenbat Judas ez dut ikusi! Saldu, arnegatu, ostrikatu naute bitoriarat hanbat aldiz eraman ditudan jeneralek. Joan zaizkit ihesi bizian: zerk pizturen luke hekien kharra, sarri hormatzen naizenean hobian?

»Eder liteke Zesar Erromaren ibiltzen hobitik! Horra bada zer egiten duen Kristok: populuak badioaz, lehertzen dire tronauak, eta Jesusen harmada xutik eta bizi dabil orotan; ehoa, burlatua, laidoztatua mendez mende, bainan bethi nihoiz baizen oso, handi eta handiago... Jesus ez da nihoiz ganbiatu; lehen egunetik azkeneraino bethi bera da, beretzat hertsiki eta bertzentzat ezti. Egin edo erran dezan zerbaite, ez dio ematen biderik errankisun xumenari. Balin bada nihon Jainkoren pikorik, hura baithan behar da bilhatu... Haren erakuspenak ororentzat dire; badioaz nor nahirri eta non nahi... Bethiko mintzo da, ez du nahi athekarik egian; urthe iragan eta ethorkizunekoak bere ditu; gezurra du mugarri!...

»Ebandelioak badiu berthute gordeak, higitzen eta berotzen ditu bihotzak, izpirituak ere argitzen. Zeru eder baten ikuspenari bezalako arraiziak darraizko. Bizia diruri, ahalduna, egintza on guzien giderra. Huna non den, mahain gainean, liburu berezi hura (enperadoreak ukitzen du errespeturekin), ez naiteke unha horren erakurtzea, bethi atsegin berri bat atzematen diot. Ez da nihoiz itsurat mintza, bainan bethi errotik. Harmada bat bezala heldu dire lerroran hitz miragarrienak. Bihotza lotzen dute, izpiritua irabazten. Erakusten dute Kristo axkide, aita, Jainko. Ama hoberenek ez dituzte haren arthak. Arimen nausi da, gogoeten Jainko, egintzen jabe. Horra aphez bat handia: dohatsu sinhesteduna! Ez du nahi duenak sinhesten.

»Zeruan ez da Jainkorik, baldin gizon batek khendu badio lurreko agurra, Jainko izena hartuz... Alexandrek nahi izan zuenean sinhestarazi Jainko semea zela, Grezia guziak hirri egintza zion. Nihork ez du sinhesti Erromako enperadoreen Jainkotasuna. Mahomet eta Konfuzius agertu ziren Jainkoaren gidere edo mihi bezala...

»Jesus sorthu zen Juduen artean. Ez da ametsezko izate bat; nihor ez da hobeki ezagutu. Nola zur aphaintzale baten seme ordea jarri zen nausi, Jainko? Ez da hor hara-hunatik: izan ditu eta badiu adorazioneak gizonetzko elizan. Alexandren balentriek llulluratu dituzte gizonak; bainan Jesus jabetu da bihotzez. Bilhatu du bethiko amodioa, gauzetan gaxtoena atzematete, alferretan galdetzen diotena zuhurrek axkidei, aitek haurrei, emaztek senharrei, anaiek anaiei. Bihotza nahi izan du baitezpada, itzulerik gabe, eta ardietsi du. Hortik diot Jainko zela. Ez dute holako indarrik izan Alexandre, Zesar, Annibal eta Louis hamalagarrenak. Lurra beretu dute, axkide bat egin gabe. Bakharra naiz behar bada maite ditudana, gure egunetan, Annibal, Zesar, Alexandre eta Louis XIVa. Hainbertze distia-razi ondoan Franzia, azken horrek etzuen axkide bat bere erresuman eta bere jendetan. Haurrak maite ditugu, gu baithan den jaurra batez, bainan zenbat haurrek ihardesten diote aiten arthei? Zenbat haur esker gabe? Jeneral Bertrand, maite zaituzte haurrek? Zuk badakizu maite dituzula; bainan etzare segur ordainaz. Zure artha guziek ez diote emanen hekien bihotzari Jesusentzat giristinoek duten sua. Hiltzen bazine, orroit litezke behar bada zutaz, gastatzean zuk utzi ontasunak; bainan zure ilobek doiean jakinen dute laster nihoiz izatu zaren ere. Bizkitartean jeneral Bertrand zare, onik ez duzuna zure haurrekin baizen!

»Kristok piztu du su guzietan lehena, Karitate saindua. Gizonek sobera eskas zuten maitarazteko bere buruen: Jesusen mirakulua da Karitatearen erresuma. Karitatea zeruko ginharra da. Jende osteak jarri ziren ene ondolik, bazakiten hiltzen gudu minenetan; baina Jainkoak beira nazala izartzetik ene soldaduen sua Giristinoek Jesusentzat duten amodioarekin! Bereziak dire ethorkiz eta iraupenez. Soldaduek nahi ninduten hurbil, behar zuten ene begia, behar zituzten ene hitz eta baimenak. Su berezi baten ithurria nintzen hekientzat. Bainan ez niotzateken nihori eman ene dohainak; etzituzten bildu ahal ene jeneralek. Santa Helenan naiz, harroka baten gainean itzatua bezala. Nor hari da enetzat suan? Nork biltzen dauzkit erresumak? Ene zorigaitzak ez du gorthesanorik; nihor ez da nitaz orroitzen, nihor nigatik higitzen Europan! Non dire, ene axkideak? Bia edo hiru bazarete, ene desterruko egunen partalier eta arintzale, mendetan axkidantzaren errege beharrak; bainan horra guzia».

Hemen enperadorearen mintzoa ganbiatu zen, aphaldu, ixildu. Aphur baten buruan, ezpainak asikiz, auhenez bezala, iratxiki zuen:



«Bai, gure biziak izan du handitasun eta dirdira. Zure biziak, Bertrand, biltzen zituen argiak ene bizian, nola iguzkian biltzen baititu guk urreztatu dugun Inbaliden dorreak. Uriak ethorri dire, eta urrea histuaz dioa. Ondarra eramanen dute zorigaitz eta ostikoeak. Jadanik eginen du. Horra zer diren gizonak; hola ezeztatu dire Alexandre eta Zesar. Laster gerlari handienen izenak eskolako lan dire! Errient batek altxatzen edo thuztatzen ditu hekien balentriak, haren zigorra dute izari!

»Nola ibilia den Louis hamalagarrena! Hil deneko, bakharrik da Versaillesn bere gelan. Utzi dute gorthesanoek, eta behar bada, hirri edo trufaz hari dire nonbait! Etzuten gehiago nausi! Gorphutz zen, gathabotean etzana, usteltzerat abian! Oraino zenbait egun, eta horra zer izanen naizen ni ere. Angelesen esku bakhar batzuek amarratua, hiltzen naiz denbora gabe, eta harren bazka izaterat doa ene gorphutza. Horra zer izanen den laster Napoleon handiaz! Zer eremua ene eta Jesusen artean! Badu hark bethiko erresuma; predikatua da, maitatua, adoratua: izan du hark heriotzerik, edo heriotzea da hori?».

Enperadorea ixildu zen, eta jeneralak ez baitzion deus ihardesten, berak erran zion: «Ez baduzu ikusten Jesus Jainko dela, etzintudan jeneral egin behar nihoiz».

Phidias handiak egin zuenean harriz Jupiter, nihongo izpirituek asma eta nihongo erriek aphain ahal bezain ungi, Greziak erran zuen: horra Jainkoa! Bainan izen horrek etzuen hartu. Pilatusek erran zuen Jesusez: horra gizona! Bainan gero munduak erran zuen: horra Jainkoa! Bai, bai, Jesus Jainko da.

«Sinhesteko da hura baithan. Sorthu zen Birdina Maria ganik, pairatu zuen Ponzio-Pilatusen manuaren azpian, hil zen, ehortzi zuten, jautsi zen ifernuetarat, ilkhi zen bizirik hirugarren egunean, higan zeruetarat; han jarria dago bere aitaren eskuinean, eta handik ethorriko da bizien eta hilen juiatzerat. Aitak onhetsi zituen haren beherapenak bekhatuen gatik, eta hark, uztean lurra, agindu zuen Izpiritu-Saindua, orai bere aldian eza-gutaraziren duguna».



I. IZPIRITU-SAINDUA

Jesus higan zen zerurat aginduz Apostoluei egorriko ziotela Izpiritu-Saindua, egia guzien erakusteko. Jainkoa Izpiritua da. Aita ez du nihork ikusi, bere lanetarik eta erakutsi nahi izan dituen egietarik ezagutzen dugu. Semea ere Izpiritua da; baina agertu da gizonen gorputzean, eta hala egin da Erospea. Izpiritu-Saindua ere berenaz ezin ikusia da, baina hark ere hartu ditu behar orduan gizonei zioazkoten itxurak.

Apostoluak othoitzean zauden Jerusalem; berekin zuten Maria Kristoren ama. Egiten zuten lanak aski erakusten du zein herbeltzat zauzaten bere buruak; baina sinheste bazuten Jesusen hitzetan, eta bazakiten betheko zirela egin ziotzaten agintzak. Mendekoste eguna zen, goizeko bederatzi orenen ingurua, ikusi zirenean mihi iduriko su batzuek jausten Apostoluen gainerat. Oro bethak izan ziren berehala indar eta jakitatez. Gauzak izan zuten argi nihork ezin ukhatua. Guziek bazakiten aitzinean nor ziren Apostoluak: Etsizen nihoiz bere herritik ilkhia, deus guti zakiten. Bestarat ethorriak baziren Arabes, Partiar, Frigiar, Libiar, Egiptotar, Medes, Erromano, Kretes, hitz batez, bazter orotako jendetarik, eta ikusi zuten Apostoluetan gerthatu mirakulua: deus etzakitenek aitzinean, oro bazakitzen ondoan, atze orori mintzo ziren bere mintzaitetan! Bakhotxak entzuten zituen egia ukigarriak, eta oren beretik hiru mila arimek egin zuten Izpiritu-Sainduaren aithorra! Etzen oro hoitan akhabatu. Sortzetik maingu zen eskale bati erraten dio Jondoni Petrik: Altxa hadi eta ibil. Maingua altxatzen da eta abiatzen: Bortz mila arimek ikusten dute mirakulua eta agertzen egia! Juduen buruzagiek ixilarazi nahi dituzte Apostoluak; baina su diote Izpiritu-Sainduak, eta ez ditezke ixil. Laidoztatzen dituzte, dixidatzen gaitz handinez, herrestatzen presondegiatarat; baina oro alferretan dire. Lurreko indarrak garaituko zituzten gizonek; baina zeruak nahi duenean gauza bat, utzi behar da egiterat. Oihaneko sua bezala, higituago eta handiago, egia berrituz zioan eta bihotzak herrestatuz. Laster Apostoluek etziazaketen buru egin heldu zitzaizkote-nei edo argi galdea zutenei. Hedatu ziotzaten eskuak zazpi lagun zuhur eta prestuei, bere indarrez bethetzeko. Askok Judu aitzindarik ideki zituzten begiak, asko eta askok; baina bertzeak gogortu ziren gezurrean, eta harmekin jarri egieren kontra. Odolean nahi zituzketen itho argiak; baina zer gerthatu zen? Jende ona beldurrez ihesi joan, urrun hedatu, eta

hola, goibeldu nahi zen egia, bazter orotan ezagutu! Egia laster ez duke mugarririk. Biltzen dire baterat Apostoluak. Behar zuten Elizako haur guziek ezagutza eta argi bera, non nahi izan ziten; hartako Apostoluek izkiribatu zuten Sinhesten dut, ordu arte bakhotxak gogoz ikhasten eta erraten zuen othoitza, mizterioen bilduma saindu eta sinhets errexekoa. Lan horren ondotik, Apostoluak hedatu ziren bazter orotarat: Thomas Parthiarat, Joannes Asiarat, Andres Szithiarat, Simon Persiarat, Mathias Ethiopiarat, Filippe Asia-Handirat, Barthelemi iguzki alderat, Thadeas Mesopotamiarat. Jondoni Petrik egin zuen lehen Eliza Antiokian. Izkiribatu zituzten lau Ebandelioak Matheo, Markos, Lukas eta Joannesek.



II. ELIZA

Hola hasi zen Eliza, sinhedunen bilkuia, Izpiritu-Sainduaren lana. Jondoni Petri izan zuen lehen buruzagia, bethiereko iraupenaren agintekin. Erroman ezarri zuen bere kadira. Han artean, hiri handi horrek harmekin biltzen zituen herri eta erresumak; geroztik arimen egarriak bethe du. Hirien erregina egin da Apostolu. Izpiritu-Saindua nausi, xehatu ditu egiak, nihoiz egin etziren bezala. Aphez berak, sinheste berak, igurikimen berak dituzte handi ala ttipiek. Hain gauza zuhur eta onak erakustan ditu Elizak, non hek eginez oro dohatsu bailitezke, ja oraitik ere. Zertako ez dute entzuten eta sinhesten! Gorphutzen ona nahiz dabilta asko, ustez arima ahantziz baduketen dohatsutasuna. Hartako ari dire oro bere handietan, jauzten dire azpikoak, eta hortik zauri, gero odolean sendatzen direnak. Eliza sinhetsiz, minak arin litezke, gaizkiak bakhan, bert-huteak berra. O Ama maitea! Ihar bekit eskuina mintzatzen baratzetik zure ungi nasaiez! Gauean pulunpa bekit izpiritua, gorde nahi baditu nihoiz zure argi miragarriak!

III. ELIZA BAKHARRA DA

Ez da Eliza bat baizen; egiak ez detzake izan bi alderdi: Argia ez diteke gau izan, nola gaua ez baitike izan argi. Elizak izan du Jainkoaren argia; Elizaren argia, Jainkoaren nahia da, eta Jainkoak ez ditu bi erakuspen. Elizaren sinhestea da: Jainko bat, fede bat, bathaio bat. Ez ditezke bai izan fedea eta sakramenduak, ez badire bat aphezak; bainan hetan ere ez da nahasdurarik: erakuspenen zain eta sakramenduen hedatzaille berezia dire, badire handi eta xumeak. Bigarrenak lehenen meneko dire, eta lehenek ezagutzen dute bat guzien gaineko; hura da Jondoni Petriren ondokoa, korrale baterat biltzen duena arthalde guzia. Non nahi diren sinhedunak, lokharri eta eginbide berak dituzte: fede bera, sakramendu berak, buruzagi berak. Nahiz batzuek hari diren erakusten eta bertzeak othoitzean, batzuek erraten eta bertzeak egiten, batzuek nausi eta bertzeak muthil bezala, guziek bilhatzen dute gorphutz guziaren ona eta hadadura. Batasun horrek egiten du Elizaren seinale ageri eta Jainkozkona: Liburu Sainduak agindu zioten, eta mende guzien aithorra da, izan duela bethi. Entzun behar da Eliza, ez izatekotz Pagano. Hark ditu bidea, egia eta bizia; hark ditu populuen argiak. Behar dituzte segitu, edo behar diote ukho egin sinhesteari. Hark baditu egiak, behar dire sinhetsi, behar dire egin hark erakusten dituenak. Jainkoak erakutsi ditu bere xedeak, eta nausi zen erakusteko nola nahi zuen hekien bethetzea. Bertzenaz errateko da, Jainkoa etzela nausi nahi zuenaren egiteko, eta galde zaioke, zertako ez diotzaten idekitzen zeruko atheak edozeini, gaxtoei onei bezala? Hori elengatzen ez duenak izpiritua goibel du eta bihotza eri; ez du nahi justiziarik, egiten duenean zerua nor nahi denen tokia. Ez erran, badirela egia nihoiz entzun ez dutenak, eta ez litekela ungi hekien salbamenduko bidez kanpo ematea: nihor ez du Jainkoak galduko, argi eskasez egon bada Elizaz kanpo. Bainan bere nahiz egoten denak ez du zeren iguriki salbamendurik: hoben dun da, segitu nahi ez duena eman zaion salbamenduko bidea; trufatzen da zeruaren xedez. Zer da ederragorik eta zuzenagorik Elizak galdetzen duena baino haur guziei eta bazter orotan? Bihotz bera, arima bera, mintzo bera nahi du izan dezaten. Zein eder den guziak anaia izatea! Zer bilkuia handi eta ederra sinhesten dituen Trinitatea, bekhatu ethorkizkoa, zerua, ifernua, purgatorioa, erospena, eta egiten duena sinhestearen arabera!



IV. ELIZA SAINDUA DA

Saindua da Eliza, Izpiritu-Sainduaren lana. Ez diteke bertzela: Bildu behar ditu bekhatuzko itsasotik ihes egiten dutenak mendetan. Haren erakuspen, egintza, sakramendu, besta eta aphezetasunek gizonen ontzea bilhatzen dute. Agertzen diotzate Jainkoaren handitasun eta miserikor-diak, erakutsiz lurlean direla haren ezagutzeko, maitatzeko eta bethiereko biziaren ardiesteko, bilhatzen dutelarik bethi hobeago izatea. Bada Jainko bat, arima ez da hilen, bethikoak dire zoriona eta zorigailza ethorkizuneko bizian; horra erakuspen hoberenak, gaizkien ehozteko eta berthuten sorrarazteko. Nola gizonak ahantz detzake haren Erospenako egin direnak? Eliza bethi mintzo zaio izan dituen dohainez, eta bekhatu itsusien gainean hedatzen diotza berthute ederrak; urgulua zapatzen du humiltasunak, zikhoitzasuna karitateak, lohikeria garbitasunak. Juduek herbeltzen dute gizona; baina hor dire sakramenduak, haren laguntzeko eta hazkartzeko. Bestek arintzen diote bizia, urrunduz unhadura, bihotzak bethez su sainduz eta arimak argi maitenez. Orduan ikhasten dire eginbide, handiak ekhartzen dituztenak ahalagokoei ungi egiterat, eta ahalagokoak handiei agur egiterat. Predikuek argitu dituzte herri eta hiriak, hek beiratu basa bilhakatzetik. Erakhutsiz sainduak, Elizak gonbidatzen gaitu hekien bidetarat, bere haur guziak bihotzean ditu; atzarria dago hekien hirrisku guzien gainean; urruntzen diotzate hedoirik xumenak; artha handienekin sarrarazten ditu buruetan bere jakitate handi eta ukigarriak. Baina zer ikusten ere da? Sainduak adin guzietan, gainbehera guzietan, herri guzietan, mende guzietan. Badire zeinen berthutek distiatu baitute, izarrek zeruan bezala; baina zenbat gehiago ez da saindu berthute gorde eta mintzarazi ez dutenez! Elizak egin ditu eri, zahar, haur galdu, behar eta zaurthuen lehen etxeak. Biluzi estaliak, xurxa solegituak, ukhaturen duzue zuen amaren saindutasuna? Ez da oraino higatu; bethi ungi egiten hari da. Hark egortzen ditu arimen ondotik hainbertze aphez khartsu eta aphez-piku jakin; hartan sortzen dire birdina, bere gaztetasun, dohain eta edertasuna ehozten dituztenak othoitzeko etxe edo komentuetan, hainbertze anaia eta arreba, egun guziz gurutzea garraiatuz hari direnak haurren argitzen eta beharren solegitzen, hainbertze jaun eta andre ohoragarri bere khartsutasunaz eta miragarri karitatez, hainbertze kongregazione eta konfradia, zigorradak urruntzen eta graziak deitzen dituztenak bere othoitz

on eta khartsuez. Elizak biltzen ditu soska miliunak, basa herrietarat egortzeko egiazen predikariak. Hain da saindua, non haren haur tzarrenak, besoak zabalduz, hartzen baitituzte Eliza falso guzietan! Bertzen haurrak hobendun dire, ikhaspenen arabera; baina Eliza bakharraren haurrak bere amari ez obedituz dire gaxto. Saindutasuna darraiko, eta ageri du haurren lan saindu oste eta egintza garbietarik. Haren erakuspenek urruntzen dituzte gaizkiak, sorrarazten urrikiak, bazkatzen karitatezko suak, berrazten orotan debozione, konfiantza, ezagutza eta berthuten banderak. Ez ditezke izkiriba Apostolu, Martir, Aphez-handi, Aita jakin, Ermittau, Emazte alhargun eta bertze Elizan hemeretzi mendez Saindu direnen lerroak. Baina egia ikusi nahi duenak aski du begien zabaltzea, ezagutzeko sainduen bilkhua, munduko bilkhua guzien artean.



V. ELIZA KATOLIKOA DA

Bilkuia bakhar eta sailduak bethetzen ditu mende eta tokiak. Agintzen arabera, nazioek behar zituen primaza eta erreginatu behar zuen orotan, ororen argi eta salbamendua behar zuen izan, ororen argi eta salbamendua behar zen, handirazi behar zuen Jainkoaren izena iguzkitik mendebalerat. Eliza sailduak egin du bide orotan, lege eta aztura etsaien gatik, bethi gauza berak erakutsiz. Hor dire lerroan mendetako Aitak; urthetik urtherat ja ikus diteke Elizaren hedadura eta iraupena, bethi eta toki guzietan erakuspen, sakramendu eta aphez berekin. Denborak oro higatzen dituen arren, Elizari ez dio minik egin; aitzitik berratu diotza bitoriak. Izpiritu-Sailduak etzuen ganbiantzarik; egia berei mendetan itxiki ez diotenak etzitezken haren galtzarrean. Eliza saildua da bakharrik dioana, egia berekin, hastapeneraino. Apostoluen ganik du bere argia, eta ez du nihoiz utzi hiltzerat. Eliza hortaz kanpo direnek ez dute ezagunik mende zaharretan. Erakuspen berriak dituzte: atzokoak dire! Eliza sailduak bethetzen ditu mendeak, baita tokiak ere: Asia, Afrika, Europa, Amerika, Ozeania; lurreko bazter guzietan baditu partalierrak fede, sakramendu eta sakrifizio beretan. Non da bertze holako Elizarik? Badire non edo han, toki urrunetan ere, bilkuia bereziak; baina zein dire, berak direlarik sinhestez, hedatzen direnak lurreko ezkin guzietan? Eliza saildu eta bakharra da beraz katolikoa, orotan hedatzen dena, mendetan tokietan bezala. Hura da Izpiritu-Sailduaren esposa, bethi garbi eta zimurduririk gabea. Elizatik athera diren bilkuia bakhunak mendetan ez ditezke jar gathe berean, higateko Apostoluen egunetarat, katoliko izenarekin. Eliza holako bat izan baziteken Eliza, non izanen zen, Jainkoaren hitzen arabera, berri sortzen zirenak bethi joko zituena eta heretiko erakutsiko? Bada bat bethi entzun beharra: zein da? Zeinek jo zezaken bethi, zeinek berez iraka? Deus ez liteke, gauzek ez balute segidarik; baina egie darraizkote eginbideak, eta eginbidei sariak. Eliza katolikoaz kanpo, ez da deus onik; oro goibel eta nahasura dire gogoeta ala gauzetan.

VI. ELIZA APOSTOLIKOA DA

Buruzagi jarri nahi dutenek erakuspen berrietan, behar dute erakutsi, mirakuluz, Jainkoak egortzen dituela; edo behar dute egin, sinhestea aitzinean Jainkoak erakutsien arabera. Testament Zaharrea, Moises eta Aaronek egin zituzten mirakuluak: ageri zen Jainkoak egortzen zituela. Apostoluek ere eman dituzte frogak berak. Jesus-Kristok etzuen nahikatu sinhestia izan hitzatarik, mirakuluz erakusten zuen bere jainkotasuna, eta Juduei jazartzen zioten bereziki zeren etzuten sinhesten, ikusi ondoan nihork orduraino egin etzitzen mirakuluak. Joatean lurretik, apostolu eta dizipuluak utzi zituen egiaaren predikatzeko. Eman ziotzaten indar handiak, mirakuluen indarrak; baina etzioakon apheztasunari bethi mirakuluen egiteko indarra; on eta behar zen hori lehen predikarientzat, jakinarazteko zeruaren izenean mintzo zirela. Apostoluek izan zuten botherea ondokoen uzteko izpiritualako indarrekin; ordena izan zen hekien mende eta harekin utzi zituzten premuak. Premu hek indar berak utzi edo hedatu ziotzaten ondokoei. Hala hemeretzi ehun urthe huntan, Ordenako Sakramendua eta indar izpiritualak hedatzen dire dioazentarik heldu direnetarat, bethi ari berekin eta deus utzi gabe asmuei. Apheztasunaren lokharria ez da nihoiz hautsi, haren indarra ez da nahasi, eta erregek ere ez dute indarrik haren gainean. Hautatzean Jesusek Apostolu eta dizipuluak, etzioten deus galdetu errege edo populuei; egorri zituen bere hantak nazioen erdirat argitzeko, bathaiatzeko, amarratzeko eta largatzeko, eta erran zioten: Ez nauzue zuek hautatu ni, baina nik hautatu zaituztet zuek, eta egorri ene erakuspenari fruitu ekharrarazteko. Othoitzazue nauzia egortzeaz langile, fruitu biltzeko landan. Aitak ni egorri nauen bezala, nik egortzen zaituztet zuek. Hitz hoitarik ageri da, Jainkoa ganik heldu dela apheztasuna eta ez dezaketela eman nihongo gizonak. Bertzalde, Eliza Jainkoaren lana da, eta hura zaindu behar duen apheztasuna, hura bera ganik behar da: ez diteke gizonetako apheztasunarekin Jainkoak sinhestea edo lanik; gizonen haizek largatzea izanen zen Jainkoaren gauzak. Deithua behar da izan apheztasunerat, Aaron bezala; Jesus bera deithua izan da zeruko Aitaz. Jondoni Paulok zion etzuela apostolutasuna gizonetarik. Izpiritu-Sailduak ezarri ditu aphezpikuak Elizaren ibiltzeko. Errege eta hekien azpikoak sarthu dire Elizan haur bezala. Jainkoak buruzagi ezarri artzainak ez dire, hekien gatik, biluzi bere indarrez; ez dire jarri



gizonen muthil, ez eman aitzindarien ondolik. Ezagutzeko aphezetasuna Jainkoaren dohaina dela, aski da ikustea Aita-Sainduen lerroa. Higaten da Jondoni Petriraino. Guziak heldu dire ondoren ondo, bide zuzen beraz, aphezetasun handienarekin; horrek berak erakusten du ardietsi duten dohainaren Jainkotasunezko ithurria; hola da lurreko nausitasunetan ere. Zuzenki heldu direla onhetsarazteko, aski da erakustea bat bertzearen ondoko dela. Baionako jaun aphezpiku jakina heldu da, ondoren ondo, San Leonen ganik, zeinak bere denborako Aita-Saindua ganik baitzituen bere indar edo bothereak, eta aphezek bothereak aphezpikuatarik dituzte, nola aphezpikuek Aita-Saindua ganik. Beraz Elizako artzainen gorphutz guziak indarren ithurri bera du higaten dena Apostoluetaraino. Zorigaitz lokharria hautsi dutenei, utzi aphezpikutasuna, bilhatu Ordena berri bat, erakuspena eman nor nahiri! Berri agertu direnek, nondik dituzte indarrak, nondik bertzek ez dituzten dohainak? Eliza Katoliko-Sainduak kanpo eman ditu, etzuten Jainkozko botheretik, eta berek ez bazuten, etziotzaketen bertzei eman. Bere ethorkia, apostoluetarik heldu direla, erakuts ez dezaketen Elizak, ez ditezke zuzenbidekoak. Bainan ez da bihirik ethorki hori duenik, Eliza Katolikoaz kanpo. Ez dezakete ere Eliza berriek erakuts mirakulurik, errateko Jainkoak eman diotzatela indar bereziak. Beraz gezurraren umeak dire. Jesusek Jondoni Petriri erran zion: Othoitz egin dut zure fedeak ez huts egiteko... Zu zare Piarres, eta zure gainean eginen dut Eliza, ifernu guziak ezin garaituko duena. Hitz hoitan, mende guziek ezagutu dute Erromako aphezpikuen nausitasuna bertze aphezpiku oren gainerat, eta sinhesten goibelak zirenean, bethi ihes egin izan da Erromako aphezpikua ganat. Bigarren mendean, Irenek deitzen du Erromako Eliza, kadira nausia. Sinheste bereko ziren Elizako Aita guziak: Erromako Eliza apostolicoa da edo higaten da apostoluetaraino; ez da hor goibelik edo ilhunberik. Beraz hura ganik berezten diren Eliza guziak ez ditezke apostolicoak, gezurra jo dute: non izan diteke egia, ez bada apostoluen Elizan? Argitua mendez mende Izpiritu-Sainduaz, hura da ganbiatu ez dena nihoiz ere. Norbaitek gauza berriak erakustean, gorphutz guzia altxatu da bethi kontra, erranez: Zure erakuspenak etziren lehen, ez dire apostoluetarik heldu.

VII. ELIZA AGERIA DA

Profetek erakusten dute Eliza mendixken gaineko hiri bat bezala, argitu eta bildu behar dituen nazione guziak, mendi gora bat bezala zehar ethorriko baitire populuak ostez. Hitz hoikien arabera, Elizak ageri behar du, eta bethi ageri. Ezen iraun behar du mendek bezainbat; beraz ez diteke mugarririk eman haren ikuspenari. Bere distiadurak behar du orotan ezagutarazi; hartaz behar ditu bildu eta argitu bazterrak; beraz argitu behar du bethi. Ilhunbek ez dute argitzen. Nola ethor litzaizkieke jende osteak, ikusten ez balute? Testament Berriak deitzen du Eliza etxe bat, landa bat, erresuma bat; ifernuak ezin garaituren du; haren buruzagiek iraun behar dute menden akhabantzaraino; ez diteke beraz Eliza nihoiz gorde. Justizia biltzen da bihotzak sinhetsiz; bainan salbatzeko, behar da sinhestea ahoz erakhutsi, dio Jondoni Paulok; barneko sinhesteak behar du kanporat agertu. Jesus-Kristok ez ditu ezaguturen, bere aitaren aitzinean, hartaz ahalkatu direnak lurrean: Beraz ez diteke, ez diteke Eliza gorderik. Bainan ez dire ikusi mende zaharretan Higanotak, ez Mahometano eta Grekak ere. Hori bera aski da errateko ez direla egiazko Eliza. Ezen Jesusek abiatu zuen, berezi zituenean Apostolu eta dizipuluak, lehenak emanez bigarrenen nausi; Jondoni Petri egin zuenean Apostoluen buruzagi, eta fidelek segitzen zutenean bera. Baziren nausi eta azpikoen ariak. Apostoluek egiten zituzten aphezak eta sorrarazten Elizak; Aphezpikuak nausi ziren bere Elizetan; baziren predikari eta aditzaileak, erakusle eta ikhasleak; iguzkitik eta mendebaletik bethi ihes lekhu zuten Erroma artzain guziek; hango aphezpikua bethi itxia zen nausitza Elizan. Katolikoan Eliza utzi dutenek, hura zuten bere buruzagi aitzinean. Orain bezala zen Eliza lehen: Aita Saindu ziren Jondoni Petri, Anaklet, Lin, Klemente; aphezpiku, Titus, Timotheo, Inazio, Polikarpe. Atzematen dire hastapeneko Elizan orain egiten eta ikusten diren Elizako seinale guziak; beraz Eliza bethi ageri zen, eta Eliza ageri hura, Eliza saindu, Katoliko eta Apostolicoa.



VIII. ELIZA BETHIERIKOA DA ETA EZIN ENGANATUA

Elizak iraunen du bethi. Ez balitz bakharra eta saildua, enganioa sar litzaioke eta harekin nahasdura. Jesusen arabera, etxe bi alde direnak erortzen dire. Eliza ez balitz katolikoa, ez luke buru egiten ahal gezurrari: non edo han zauriak balituzke. Ez balitz Apostolikoa, gizonen lana liteke, eta hartarakotz, herioaren bazka, gizonari darraizkon lan guziak bezala. Ez balitz ageria, egiak ez luke bahirik; deusek ez lezake zain asmu berrien kontra; bainan harriaren gainean egina, iraun behar du gizonek bezainbat, uri, haize eta xirinbola guzien gatik ez dire haren zimendu, ez harrasiak higituko; haren sakramendu, besta, erakuspen eta aphezetasunek iraunen dute menderen mende, lagun Salbatzailea ifernuaren kontra, eta Izpiritu Saindua berekin argitzeko eta enganio guzietarik beiratzeko. Etzioten Apostoluei bakharrrik agindu Salbatzaileak bere laguntza: arimen salbamenduko mintzo zen, eta bethi izanen ziren arimak Salbatzeko. Apostoluen eta hekien ondokoen erakuspena Jainkoak zaintzen zuen beraz hasitetik, eta zaintzen du orai: zoazte, erakutsatzue egiak... Zuek entzuten zaituztenak ni entzuten nau, eta zuek trufatzen zaituztenak ni trufatzen nau... Emanen dauzkitzuet zeruko gakoak... Alhazatzu ene bildots eta ardiak... Hazkarratzu anaiak fedean. Ageri da hortik erakuspenak bazuela zeruko laguntza: zer balioko zuen aphezetasunaren laguntzak, Eliza engana baziteken? Aphezen gorphutza zaindua da, fedea garbi egon dadin; hartako dio Jondoni Joannik: Jainkoa ezagutzen duenak entzuten gaitu, Jainkoarena ez denak ez gaitu entzuten. Hartako nahi zuen Jondoni Paulok ihes egitea erakustale gezurti eta heresian bigarren aldikotz eroriei; hartako zion, Jesus-Kristok ematen dituela Apostoluak, dotarak, Ebandelistak, profetak, haren gorphutza bat izateko fedean eta Jainko semearen ezagutzan, heldu arte adin ondurat. Beraz Elizaren erakuspena ez diteke nihoiz eta deusetan ganbia edo goibel, Jainkoak hazten eta laguntzen duenaz geroz. Elizak erakusten balu den gutiengan Jesusek erakutsi ez duena, ez luke Jainkoa lagun. Ez dire Ebandelioan ikusten Elizak egiten dituen guziak egungo egunetan; bainan Salbatzaileak etzioten erran Apostoluei izkiribuz emateko haren erakuspen guziak. Apostoluek egin zituztenak fidelek ikusi eta ikhasi zituzten. Izkiribatu etzirenak hetarik

ikhasi ziren. Hor zen Eliza. Hari zen behar zirenen erakustea eta egina-raztea. Bethi erakuspen bera izan du. Izan dire hirur ehun Aita-Saindu; ez da bat aitzinekoen sinhestea utzi duenik: *Sinhesten* dut hor da bethi guzien gorestekin. Elizak izan ditu etsaiak, asiki eta hertsatu dute miletan, bainan hobeki baizik ez dituzte erroak egin haren erakuspenek. Agertzen ziren enganioak suntsirazten zituen, aitzineko erakuspenei beiratzu eta zeruko argiak baliaraziz. Irakak behar ziren Elizan, bainan froga hoberena Jainkoa berekin duela, artzainen zurubia nihoiz ez da hautsi eta erakuspenak ez du nihoiz izan goibelik. Badire eta izan dire eskandalak, nigarrak etzaizko nihoiz eskatu Elizari; halere, nahiz oro ganbiatu eta ganbiatzen diren haren inguruan, badioa Jesus-Kristoraino, sorraraziz, mende guzietan, berthute ageriak darraizkoten fidelak. Ihardu diote Elizak bake, gudu, behar, aberastasun, gau, bitoria, argi, sinhete eskas eta gurikeria guziei. Alde batetik galdu dituenak atzeman ditu bethi bertzetik: ifernuak ez duke deus haren kontra.

Enganutzen ahal balitz Eliza, ezin berezia liteke gezurretik, eta gal liteke enganioaren haurrak bezala; bainan izan behar baitzen mendetan sailduen ihes lekua, Jainkoak eman diotza haren eginbideari darraizkon dohainak: artzainen gorphutzak badu agintza lagundua izateko menden akhabantaraino; berekin du Izpiritu-Saindua bethi, erakusten diotzala gauza guziak. Beraz Jesus beraren hitzen arabera, artzainen gorphutza ez diteke engana, eta ez dezake erakuts enganioa. Jondoni Paulok deitzen du Salbatzailearen erakuspenen zaintzale eta predikaria, fidelen nausi eta juie Jesusek emana.



IX. ELIZA EGIAREN KOLONA ETA LAUZKA DA

Eliza egiaren kolona eta lauzka da. Mende guzietako Aitak bat dire, errateko Eliza ez ditekela engana; gauza bera diote konzilio eta dotorek. Protestantek berek ere ez dute beldurrik lehen hirur eta lau mendetako; bainan geroztik ere ez diteke bertzela, non ez den erakusten Elizaren izatea ganbiatu dela edo Ebandelioa ukitu. Bainan nola uki ondokoek aitzinekoen erakuspenak? Ez othe ziren haizatuak izanen, nola mende guzietako gauza berri asmatzaileak? Noiz, non, nola hasiko zen ganbiantza? Katolikoak herri eta erresuma, urthe eta mende orotan ziren. Sinhetsi ez balitz hastetik Eliza etzitekela engana, ezin sinhetsaraziko zen gero. Bizkitartean ez da nihoiz hastean entzun errenkurarik sinhesten horren kontra: Elizan da bethi eta orotan, hari darraiko, ezin khenduzko dohaina du, halako gisan non izan ez balu bethi ez baititeke elenga nola izanen zuen noizbait. Sinheste bat ere zen hori, ganbiatzeko gaxtoena, maiz eta egun guziz behartua zelakotz. Ezen Jesus-Kristoren egunetarik hasiz, izan dire nahasi eta gezurti osteak. Elizak erakutsi diotzate bere indar eta bothere oso eta ezin ukhatuak. Gezurti berriek etzituzten ukhatzen Elizaren argi ezin enganatuak, kanpo ematen zituen aitzineko egunetan. 1518an Luthe- rek ezagutzen ziotzan Aita-Sainduari Jesus Kristoren argiak, lekhuko egin zion letra Leon hamargarrenari. Etzueanean ardietsi nahi zuena, altxatu zen Jainkoak erakusteko botherea eman ziotenen kontra. Haren dizipuluek ikusi zuten etzuketela iraupenik, nausitasun ezin enganatzeko baten itxura bederen gabe, eta haizatzen zituzten nahastale berriak. Bainan ondotik sorthu nahastale eta nahasi berriek ikusi zuten oraino etzuketela indar nausirik, eta oro jasan zituzten bilkhuian, Ebandelioa ezagutuz guzien buruzagi. Hola, gizon bakhotxak egiten ditu bere fede, sinheste eta eginbideak, eta bada gizon bezainbat sinheste. Hortik gau lazgarriena argi beharrenean bidean. Bakhotxak berak behar badu nausi, ikusteko Ebandelioan, nola atzemanen du egia jende xeheak, jakinek elkhar ezin adi deza- ketela ikusia denean hainbertze pontutan? Ez dakite hainitzek irakurtzen; nola jakin eian liburuak ungi zaindu diren, eta ez duten mudantzarik izan mendetan? Ez dute katolikoek holako lanik; aski dute jakitea, heki sinhes- terat eman egiak sinhesten dituela aphezpikuak, eta aphezpikuaren sin-

hestea bertze aphezpiku eta Aita-Sainduaren sinhestea dela. Ezagutza hori nor nahiren meneko da, eta hori dakienak badaki haren sinhestea ez dite- kela gezurra. Artzainen batasuna Aita-Sainduarekin, horra katolikoentzat egiaren seinalea. Elizak ditu agintzak; Eliza ez da buru gorphutz gabekoa, ez gorphutz buru gabekoa; nihork ez dezake ukha biak betan engana ditezkeela. Konziliorik gabe, Eliza mintza daiteke eta mintzatu izan da. Bilkhuia handi hoik bildu izan dire, egun gaxtotan, Elizaren etsaien hobe- ki ukitzeko, hetan egin direnek, bethi behar zuten Aita-Sainduaren aitho- rra edo baimena. Nola nahi aditzen den gauza, Elizaren gorphutzari agin- dua da Izpiritu-Sainduaren laguntza, artzainak izan dituen bilduak Aita- Sainduarekin, edo barraiatuak bakhotxa bere tokitan. Bada beraz bethi Elizan gidari bat, ageria guzientzat, beiratuko dituena non nahi sinheste- dunak egia beharretan enganatzetik. Eliza katolikoak baditu beraz bere Jainkozko ethorkiaren seinale guziak. Alferretan gezurrak erabiliko diotza inguru bere haize nahasiak. Distiatzen du Iguzkitik Mendebalerat, Negu- tik Egerdirat. Izpiritu-Sainduaren argia dario, izpiritu handi eta gizon hautu guziek hartarat jo nahi dute. Ez da bertze halakorik.



X.

O'KONNEL AITA-SAINDUTIARRA

Norbaitek deithu zuen O'Konnel Aita-Saindutarra, trufatzeko bere ustez. Angeles jakin eta katoliko hori itzuli zitzaion, erranez: Ergela! uste duk ni beztu edo ahalkarazi, Aita-Saindutarra deithuz? Jakintzak altxatzen naukala ezin gehiago. Bai, Aita-Saindutarra nauk, eta ohore handiena zaitak hori. Aita-Saindutarra erran nahi dik: ene sinhestea Aita-Sainduz Aita-Saindu higaten dela Kristoraino, hirea ez dioan denboran Luther, Calvin, Henri VIII eta Elisabetez gorago. Bai, Aita-Sandutarra nauk; balin bahu untza bat adimendu, haizen bezalako ergela, ikus hezake sotanak balio duela jaka, eta Aita-Sainduak errege. Gorri hadi, ez duk adimendurik.

Eliza maite zuen gizon handi horrek ezin gehiago. Hartaz zioanean, nahi zituzken Gristino guziak ikusi soldadu. Gudu hortako lehen kapitaina zen bera. Sizatzen, zaurtzen, odoztatzen zituen bere hitz zorrotz eta ozpinekin protestanten bilkhuia galdu eta ozarrak: Gristino pulitak, erraten zioten! Zer egin duzue? Liburu eta ezpatekin oro nahasi eta odoztatu! Etzakiten bertzerik egiten zuen buruzagiek, eta ez ditutzue ahantzi hekien eskolak.

XI.

SINHESTE GABEA MIRAKULU HANDIENEN ASMARAZTALE

Jaun baten mahainetik lekhora, bestaleak hasi ziren Elizaz trufatzen: profeten erranak amets batzuek ziren, mirakuluak on hurren jostatzeko, erakuspenak zorokeria, egin bideak ahalez gorago. Bat zen bereziki mintzo guzien artetik. Ixildu zenean, han zen aita batek galdetu zion bere semeari, eian entzun zuen holakorik eskolan? — Ez, aita, ihardetsi zion semeak; irakurri dut hainitz liburu Elizaren aldeko, bainan etzen bat hainbertze Eliza altxatu duenik, nola azkenik mintzatu den jauna. Hori aitzean, sinheste gabea jauzten da oihuz: nik Eliza altxatu dudala diozu, nik? Handia da hargatik hori! — Handia da, bainan ez gutiago egia. Ezen, erran dezala izpiritu ozarrenak, nola Elizak egin dituen hain gauza handiak, zuk diozuna balin bazen.

Jaunak etzuen jakin zer ihardets; hirri egin nahi zuken, ohitu bezala; bainan hura ere joan zitzaion. Gelditu zen bi berga sudurrekin.



XII. EZ DEZAKE NOR NAHIK EGIN ELIZA

Elizak ungi guziak erakusten ditu, eta gaizki guzien etsaia da. Ez dezake etsairik izan jende onetan. Egia badu nonbait ithurria: non izan dezake Elizaz kanpo? Elengatzen da nola gizonek egin detzaketen gaizkiak; bainan ezin sinhetsia da norbaitek, fede onean, ukha dezakela Elizaren argi egjazkoa. Egun batez Marseria, gizon argitu eta itzuli handitako bat, ethorri zitzaion Napoleon lehenari, Angeles buruzagien izenean. Napoleonek etzuen deus nahi hekiekin; bainan Marseriaren arabera, etziten ezagutzen; bere axkide hoberenak zituen; etzabiltzan gerlaren ondolik, hark iresten zuenak geroz Angelesa eta eman ezin nola jokatu kordokan. Erran zion, uste baino hobeak atzemanen zituela, nahi baino ungi gehiago hari egiterat ekharriak zirela, bainan bakea ematen bazioten bere artean. Zer bake edo batasun eman diozaket nik, galdetu zion Napoleonek? Atzeman duzu gizona! — Nihor ez da hoberik, ihardetsi zion Marseriak, hitzak ungi xehatuz: Angelesa barneko minek iresten hari dute, bi sinhestetan da, eta biek dirauteino, ez duke onik; batek edo bertzeak behar du bide egin; hortako ez da nihor zu bezalakorik: emazu Franzian Protestanten sinhestea, eta katolikoena akhabo izanen da Angeletarren. — Katoliko naiz, ihardetsi zion Napoleonek, eta katoliko sinhesteari itxikiren diot Franzia: Elizarena da, Franzia, egjazkoa, aita-amek erakutsi dautedana, eta enea. Urrun da beraz deus egin nahiko dudana haren kontra; aitzitik eginen ditut haren alde egin ahal guziak. Marseria itzuli zitzaion itxura min batekin, erranez: Zure burua gathetan ezartzen duzu, Erroma izanen da zure nausia, zu baino gehiago izanen dire aphezak, hek ibili nahiko zaituzte, ez duzu nihoiz eginen nahi duzuna, hestu eta neurtuak izanen dire zure ahal guziak. — Badire bi nausitasun, erran zion Enperadoreak: Lurrekoa aski da enetzat, eta haren zaintzeko, badut ezpata. Zeruko gauzez doanean, Erroma nausi da; eginen du nigabe, eta ungi eginen du. Marseriak hartu zuen oraino hitza, errateko: Bainan etzare nausi izanen lurrean ere, ez bazare Elizako buruzagi; horra zer behar zintu duken jarri, Franzian emanek darraitzun sinheste bat. — Eliza bat egin, ihardetsi zion Napoleonek! Hortako behar liteke Galbariorat higan, eta ez da ene xedea!

XIII. TESTAMENTA EZ DA GUZIEN MENEKO

«Testamenta, Testamenta behar dugu agurtu eta ez gizonak, erraten zion Protestant batek Katoliko bati. Zertako ez duzu han bilhatzen egia, zure errotrak bezala? Bada han aski». Katoliko hura nekhazale bat zen, eta ihardetsi zion: «Testamenta bera ez da aski; behar da irakurtzen jakin, eta irakurtzalek behar dute buruzagi bat. Luther beraren arabera ere, erroa behar da uste izateko bat bederak elenga dezakela Testamenta bere hedaduran. Atzeman letzake han bakhotxak nahi dituenak. Gaxtagin guziek handik athera lezakete bere basen erkhatza». Ariusek han ikusi du Jesus ez dela Jainkoaren seme, Mazedoniosek Izpiritu-Saindua ez dela Jainko, Vigilanzek ez direla sainduak ohoratu behar, Berangerek Sakramendu-Saindua ez dela hitz huts bat baizik, Sozin eta Serbetek Jesus gizon bat zela, Albienuar eta Kataresk ur benedikatuak garbitzen zituela hekien ohointzak, Viclefitek ontasunak ohointza direla, Henri VIIIak, nahi bezainbat andre har zitekela, beldur gabe hilarazteko higuintzen zirenak. Luther eta Calvinek ezagutu behar zuten testamenta. Bada harekin hari ziren elkhari: urde, debru eta sathorka! Harekin behar zuten ilhabethe guzian *Kredo* berri bat! Harekin egorri zuten Siberiarat Karlostald: zertako? Zeren erran zuen, trufaz, Lutheren Jainkoa okhin batek egin zezakela! Bainan zertako jazarri nahi zioten, Testamenta aski bazen, eta han atzeman bazuen zioena? 1529an, Luther, Melanxton, Ekolanpade eta Zuinge bildu ziren Marpaty deithu hiri baterat, elkhar aitzeko xedez. Bainan hain gauza bereziak atzeman zituzten Testamentean, non lau alde jarri baitziren!

Hamaseigarren mendean ikusi dire itsuseria lazgarrienak; Testamenta omen zuten argi orduan Eliza nahasi eta zaurthu dutenek: odola zarioten, biluz gorriak zabilzan jendei harrika, bere ona zuten gurutzefikatuz lagunak, nausiei buruak ebakiz, errotu arte jauzika; berthute zitzaizkoten hordikeria eta katoliko heriotzeak.

Irakur diteke Testamenta; bainan bururik ez luke behar, uste lukenak Eliza guziak baino hobeki elenga dezakela berak, ahantzi balu ere Jesussek eman dituela egiaren zain eta elengarztaiek.



XIV.

ELIZA EZ DITEKE UTZ KHORO BATEN GATIK

Napoleonek erran zion egun batez Montesquiou Andreari: horra Bernadote errege; etzaitzu handi dela? — Bai, jauna, ihardetsi zion; bainan gauzari ikusten diot itzala: khoro baten gatik, utzi du bere aiten sinhestea. — Hala da, erran zion Enperadoreak, eta etzait eder. Urgulutsu batentzat hartzen naute ni, ez naiz nihoiz aski gora diotenaz; bada ez nuke sinhestea utziren lurreko khoro guzien gatik ere.

Ematean Andre berari semea arthatzeko, erran zion: eskuetan duzu ene haurra, horri darraizko behar bada Frantzia eta Europako onak: egizu Gristino on. Aldeko norbaitek hirri egin nahi izan zuen; bainan Napoleonek erran zion goraki: badakit zer diotan; ene semeak gristino on behar du izan; bertzenaz ez liteke Franses on.

XV.

ELIZAREN ERAKUSPENAK HAUTUAK, EZ SINHESTEN GABENAK

Elizaren erakuspenak hautuak dire; nihork ez ditu ostrikaturen, hobeago izateko xedez, bat da hori; bainan oraino bertze sinheste guziekin badute hetan irabazia, gehiago dena. Heriotzean ez da josteta edo haurkeriarik: nor ikusi da bada Eliza Katolikoa uzten orduan, beldurrez etzadin egian izan? Bainan zenbatek ez dute, oren handi hartan, besarkatu haren sinhestea? Egia nonbait bada: ez da nihon hain segurki, nola Eliza Katolikoan. Zorokeria da erratea: gizonak hil behar duela sortzeko sinhestean; ezen frogatu dugu Jainkoa agertu eta mintzatu dela. Hark egorri du bere Seme Jainkoa; Semeak egorri du Izpiritu-Saindua, Elizaren giderra. Egiaz dioanean, nork ditu Elizaren argi eta indarrak? Nork zer nahi du erakutsi hartaz kanpo? Non ditu erroak? Noren izenean mintzatuko da? Ez sinhestekotz Eliza, ez da behar nihor sinhetsi: duenak janen du, ez duenak ebatsiren, bakhotxa nausi da, ez da muthilik, predika diteke nahi dena. Bakhotxa bere! Ez bada Elizarik, ez da egiarik; egiarik ez bada, ez da bertze bizirik: lurrean dire beraz on guziak, atzeman ahalak atzeman.

Jainkoak erakutsi zituelakotz bere xedeak, asko arantze jasan zitezken; bainan ez bada mintzatu, zertako jasan, zertako bizi nigar edo neketan? Lurrak guzienak dire, egin dire partilak gezurrezko mendetan, bainan etziren han orai deus ez dutenak, etzituzten onhetsi egun goibeletako lanak, eta lehenago sorthuek etzuten indarrak ondokoen gainean! Jaun, andre, nausi, muthil eta nor nahi den, orre beretik dire, bakhotxa da bere errege, ez dio nihori agurrik zor!

Hori liteke zorigaitz guziei atheka idekitzea.

Bizkitartean badire gizon handi, aita eta, bere ustez, burudunak, Elizari asikiz hari direnak! Apezak ixiltzen balire, berak mintza litezke hek bezala, eta oraino khar gehiagorekin! Zein hobendun diren! Burdinetan diren asko baino hobendunago.

Egia sainduetarik dute bere ona emazte, senhar, nausi, muthilek. Emaztek behar dute sinheste ona, bai senharrek ere. Gorakoek nahi dituzte amarrak azpikoentzat, senharrek emaztentzat; bainan nondik dukete nahikunde ozar hori? Jainkoak eman ditu edo ez lokharriak; eman baditu, guzientzat dire; eman ez baditu, nihorentzat.



Eliza gabe, oro lerrakor dire. Harekin emazteak har dezake laguna eta maita non nahi, arantzen erdian ere, bainan ez bada egirik, zertako paira? Gozamina behar da bilhatu, eta erran: goza edo hil! Nahiago liteke naski goza eta ez hil, bainan hil behar denaz geroz, erdi bizitzeak hirritsa guti du: goza edo hil beraz! Labur eta on! Hortik heldezko labasia. Atseginak ustelduz gizontasuna, akhabo litezke laster mendeak: ala norbaitek athera lezake ezpata, errateko, marra bat eginez gora-beheren zurubian: horraraino da zilhegi atsegina, beherago direnek egin dezatela barur?...

Elizak pizten ditu erresumak. Bere haur ditu lurreko gizon eta emazte garbi, zuhur, berthutetsuenak, aphezak bere mihi. Guduan da sei mila urthe huntan. Soldadu zituen, mende zaharretan, salbatzailea igurikitzen zutenak. Badioazko buruzagiak Pio IXtik Jondoni Petriraino, eta handik goitik, aphezez aphez, Aaron, Moises eta Adameraino. Nihoiz ez da izan hobeki, ez hedatuago. Sendatu zaizko zauri handiak, sorthu adar berriak, urrundu mugarri izpiritualak, arimen gatheak hautsi, ungi bideak errextu, aphezpikuak argitu, erresumak alde jarri, Eskaldun aphezak Amerika behera joan, bere anaia mintzo berekoen ondotik, mintzatu gabe doiean ezagutu tokietarat dioazen apostolu eta ordenatu diren aphezpiku berriez. Haren erranak eginez dire gizonak hobekienik. Ezen berek zer asmatu dute bilkhuien ontzeko, nigarren xukatzeke edo justiziari bide egiteko? Miratu dituzte fede-gabe zenbaitek mundu zahar eta berria: zer ikhasi eta erakutsi dute? Orai ez bezalako azturak zirela lehen eta etzirela buru hezurak arras orai bezalakoak!!! Elizaz kanpo mintzo diren jakinek, ez dakite duela bi mila urtheke paganoek baino gehiago arimaz eta haren ethorkizunaz. Badakitzaite behar bada hobeki populuen izenak, neguko zokhoen berriak, guduen tokiak, hirien lanak, izarren bideak, eremu handien frixtan iragateak; bainan zer behar dute hoitarik gizon gehienek? Zerk arinduko diotzate bizi guziko lanak? Zerk ekharriren ditu elhorritan ixilik lanean haritzerat, hek iduri bertze hainbertzek bizia hirriz eta jostetan daramakatelarik? Adimenduaren mendea omen da: bakhotxak badu berea, eta ez dio nihorenari zorrik: hark dio egiak guzientzat direla edo nihorentzat! Ez ditezke gizonen meneko, bethikoak dire; ez baziren lehen, etziren izanen gero, edo oraino asmatzekoak izanen ziren behar bada! Noiz nahi ergel batek jakin zezaken, egunetik biharamunerat, agure zuhurrenak baino gehiago. Eskolatik lekhora, semea trufa ziteken Aitaz. Oren batetik bertzerat, egungo nausia izan ziteken biharko muthil, egungo profeta biharko zozo! Iguzkia zeruan bezala da egia lurrean: ez dute

aitzakiek hiltzen! On dire aitzakiak gizonen jostatzeke behin, bainan zorigaitz hetan baratzen direnei! Ungi bizi nahi ez dutenak dire egiazen etsai. Hek dituzte goibelak: etzuten Euler, Leibnitz, Kleper, Bossuet, Fenelon, Newton, Mallebranxe, Deskartes, Bakon, Agustin, eta bertze izpiritu handi eta erregek.



XVI. ZER ERAKUTSI DEN ELIZAZ KANPO

Zer nahi dute Eliza entzun edo sinhetsi nahi ez dutenek? Othe dute argi hobeagorik, nausi seguragorik? Detzagun ager sinheste-gabek handien daozkaten jakin zenbait. Ni sinhetsi nahiko ez nautenek, hek sinhetsi detzatela: Jainkotzat daozkate!

Zizeron hula mintzo da: Zein da jakin behar bezala egiten duena? Guzietz urgulu eta zorokeria dariote. Ez dute berek egiten, erakusten dute-na bertzei. Ikusiz hekien arinkeria eta guriopiek, errateko da hobe izanen zela deus ez balute ikhasi. Hazten dituzte jauira tzar oro, eta guzien nausi izan nahi dire.

Gauza ederrak erakusten ditugu, dio Epiteetek; bainan nork sinhesten ditu, nork egiten? Zein da jakinenen bizia? Ungi lo egitea, nahi denean jekitzea, jostatzea, aphaintzea, liburu tzar zenbait irakurtzea eta tzarrago-ko zenbaiten egitea, bere buruaz mintzarazteko xedez. Jainkoak daki nola dioan gainerako denbora edo ephea; beiratuko naiz gauean sartzetik. Mintzo dire zuhur eta prestuak bezala, eta jauira edo egintza itsusienak darraizkote. Ganbiatzeko dituzte hitzak edo egintzak. Ez ditezke ager gezurrez Erromano, eta utzi behar othe dire, hartzean prestu izena gaxtagin lanekin?

Benedikto XIV gizon aitua zen, sinheste gabeko jakinen arabera ere; hark dio: nigarra jauzten zait ikusiz Frantzia bethetzen izpiritu handi, sinhestea sobera zaiotenez edo sinhesteko beldur direnez, jakina denean sinhesteak egin dituela Frantziako izpiritu zahar hautuenak. Ahalkea handi zaiote, trufa adimendu, ozarkeria argi! Lurra dute zeru, naturaleza Jainko, gaua egun. Omena nahi zuten ardietsi nola nahi; erasi dute, gaua nahasi, lazdua eman. Gauzen xehatze eta argitzea maite ez dutenek sinhetsi dituzte eta Jainkotzat hartu. Nola erakuspen errexak baitzituzten, oro zilhegi hiltze eta ebastez landan, lohikeria bandera, etzen eskas jende prozesionean.

Jainkoaren ondotik beldur gehiena sinheste-gabek eman behar dute: Jainkoa utzi duenak, laguna ukha dezake. Galianik erran du goraki: izpiritudun nausi-gabeak oro gogorak ziren, etzuketan nihor jasan; dugun egin hek bezala. Jasanen ditugu behin buru herbelen makhurrak; saretarat eraman behar dire emeki, utziz azpikoei buruen altxatzeko astia.

Istorioak galdetzen ditu egiaren bahiak, zion Voltairek. Hori on da Benediktinoentzat. Nik erakurtzaleak jostatu nahi ditut, erranez nahi dudana... Kafea behar du ene izpirituak, hark izertarazten du, eta xortak egortzen diotzatet Fransesei; egia guziak baino nahiago dituzte: bakhotxari eman behar zaio dioakonetik... ungi axola dut sinhets nazaten edo ez, baldin erakurtzen banaut!... Ez da beldur behar, bururat heldu denaren errateko... Thiriot aphezpikuaren Meza laguntzen hari ahal da, nik ez dut Mezarik laguntzen, ez entzuten... Nahi nuke ania bakhotxak bere zakhuko eztenak sartzen baliotza Elizari, nihork ezagutu gabe... Ez duzue aski khar, ithotzen ditutzue indarrak. Iduri luke urrikari duzuela higuindu eta ehortzi behar duzue. Zer gusta litzaitzueke haren lehertzea, jarriz lau lerrotan, eta gordez esku zaurtzalea? Emozue azken tiroa; eginazazue atsegin hori zahartzean... Gezurra on da, bidegaberik egiten ez duenean; ungia ekhartzen badu, berthute handiena da: Ardiets beraz berthute, erranez gezur, debru batek bezala; ez beldurrekin, ikharan, eta behin, bainan bethi eta burua gorarik.

Zer dire oro dakitzatelakoen erakuspenak, dio Rousseau aipatuak sinheste nahi gabekoez? Plazetako enganatzaila batzuek dirurite, oihuz alde orotarot: zatozte ni ganat, ni naiz egiazko gizona. Batek dio ez dela gorphutzik, bertzeak oro gorphutz direla, ungia eta gaizkia bardin, oro asmu, oro amets. Otsoek bezala, elkhar iretsi nahi dute. Badakitzaite hekien sinhesteak, mintzo dire ozarki, erakutsiz bere sinhesten ez dituztenak. Oro badakitzaite hitzez, eskarnioz hari dire elkharri, eta hor bakharririk dire egian eta ados. Ozarrek jo behar dute, ahulek jasan. Lehen lehenak dire barriatzeko lanetan, mokokari hautuak, bainan hekien mokokek sinhe- tsaraziko diote sinhesten ez duenari. Izpiritu eskasak eginarazten diote haro, eta harrabotsaren puntzoin heldu zaiote urgulua. Erakuspen lazgarriak dituzte: egiozue ihes. Deus ez dute berek sinhesten, eta nahi lukete guziek sinhestea hekien erranak. Khentzen diotzate nigarrei xuka-bideak, aberatsei jauira tzarren gatheak, gaizkiak ez duke beldurrik, ez ungiak saririk, eta diote gizonen axkideak direla! Ez omen da egia nihoiz kaltekor, eta hori da enetzat bahi hoberena ez direla egiaz mintzo.

Horra nola mintzo dire Elizaren kontra bandera altxatu dute izpiritu hautuak. Hoiek edo Eliza behar dire segitu; ez da hor harat-hunatik. Ez naiz mintzatu *azken erregeren hertzeaz azken apheza urkhatu nahi zukenaz*. Badut hura gabe aski, egiteko lege ukigarriena, beldur direnentzat oraino agurtzeko Eliza. Jainkoaren eta Elizaren manamenduak nahi ez dituztenek, behar dituzte bereak, eta huna zein sortzen diren hekien erregen erakuspen eta egintzetarik, ithurritik ura bezala:



Atsegina adora zazu, halaber zure burua maite xoilki.
 Arneguak eginen ditutzu, ixildu gabe huzkurki.
 Igande egunetan lan egizu, Mezarat joan gabe ederki.
 Aita-amak utzatzu, bizi zaitezen hobeki.
 Hitzez ala ezpataz zaurtzazu laguna ozarki.
 Pailardiza eginen duzu gogoz ala obraz likhiski.
 Bertzena ebatsiren duzu eta ez bihurturen zoroki.
 Gezurra erranen duzu non nahi den trebeki.
 Bertzen esposei bakerik utziko ez duzu, hori delakoan gaizki.
 Hauzoko ontasunari egiozu ahal orduz asiki.
 Gaizkien aithorrik eginen ez duzu, ez izanen urriki.
 Komunierik eginen ez duzu, biziz bederen garbiki.

Eliza bertzela mintzo da. Behar dire maitatu Jainkoa eta laguna. Haurrek behar dituzte maitatu eta lagundu burasoak, burasoek ere ungi altxatu haurrak. Nausi eta muthilen artean badire aria onak. Buruzagiek behar dute ungi ibili, eman bakhotxari berea. Ez ditezke itsuak izan gidari. Gizon guziak anaia dire, aita bera dute. Ez dire bi izaritan ikusten egin-tzak. Gezurra bethi gaizki da. Etzaio zilhegi mintzari eder bati aphaintzea hauzi goibela egiaren soinekoz, ez agintzea egin dezaken baino gehiago, ez bi eskutarik hartzea. Bakhotxak behar ditu ezagutu bere eginbideak. Behar da hitzeko izan, hisia utzi bazterrerat, lana egin adirazi bezala, ez jakina argitu. Gaizkia etzaiote gehiago zilhegi handiei, xumei baino; ez detzakete soldadu egor gazteak zuzen kontra, ez sobera itxikaraz, ez herriak sakhailaraz nola nahi. Mirikuek jakin behar dute sendatzen, behar orduan lagun argi galdetzen, erien ikusten behar orduz, ematen sendakailu ezagutuak behin, aski ezagutuak gero, eta azkenean, ezin bertzez, on egin dezaketenak. Ezin onhetsia da saltzea erremedio indarrez gabetuak, egortzea ere baxera handi gauza on gutiz betheak, galde sobraniatuen aitzakia bahi, helden eskasez egitea errenkura. Ez dezake lana gaizki egin aldebaterat hari denak; ez luzeki, egunka denak. Ez da gehiago galdetzerik gauza ezagutzen ez dutenei. Senhar-emaztek bihotz bat dute, elkhar bethi maite, elkhar laguntzen, bat bertzearen kontra deus ez elengatzen, betan othoitz egiten, ondorioa arthatzen, zeruko premu bezala, ezeztatu gabe Jainkoaren xedeak, haurrak galduz edo izartuz sortzean.

Elizaren etsaiek egin nahi dute ungia, dioakoten bezala. Ez dute nahi Elizaren nausitasunik, iduri Eliza gizon itsu edo ezpata gorri bat dela: Eliza Jainkoaren mihia, Jainkoaren hitza, egien bilduma urrezkoa! Ohore

eta kontzientziak mintzo dire: ohorezko dire burdinetan izan ez diren guziak, nahiz baden bortz pulit kanpo dagonik. Zer da bakhotxak egiten duen konzientzia? Elizaren hitzek badute Jainkoaren amarra: zer amarra dute gizonen ohore edo konzientzia direlakoek?



XVIII. PUTTIKO ETA GAIZANDI

Unhatzen hasia naiz. Sinheste-gabek egin dutenean zerbait Ebande-lia bezalako, harturen dut heki ihardesteko lana, hitza izartuz. Bainan ez ditut ikusten bia bat direnak. Ez dute beraz egariak edo egiazen seinalerik. Lurreko sinheste-gabek beraz deus ez dakite, deus ez dute pisatu: *bulunba* batzuek dire! Hain errexki erran niozakete *Jakin horratuak*; ezen jakinak baino jakinago direla uste dute, bainan zimendu gabeko sinhesteak ez du horradurarik, nola maipolis folak ez zimurtzeko, aldagarri batek bulharrren edertzeko, kastor batek dorre egoteko. Geroztik bigarren izen hori trufa liteke, nahiz ez den gutiago egia. Jakin horratuentzat ez dire aski iztorio, xifra, gudu, Greka, Latin, Eskara, su eta haizen ezagutza edo lanak. Oihal horratu gabeak bezala litzaizkote bere buruak, ez balute horratzen jakitatea, jende xehek ez dituzten egintza eta solasez. Ez da aski izan zetzaten aldagarri, zapata, lephoko, izkilinba, buruko, kaxadura, orraze, bizar, eskularru eta agur bereziak. Ez, badituzte omen ariman horradurak! Bainan zer horradura? Hor ikus... Hobe dugu mintzatzea bulunbez: hetan ere badire lerroak!

Bada lau zangotako iledun bat. Ez da ardi, ez ahari; bien arteko. Haragiz nausi dute hartatik hoik biek mahain aitueta. Ez ditu ardiak haren gantza eta indarra; nausi du aharia hezurrez, eta bereziki adarrez. Bide hegieta nihon balinbada belhar onik, jauzia arin du eta pokadua segur. Badakit nola duen izena, bainan ez dut erran nahi. Ibiltzen du arthaldeko bulunba; ungiat bulunbaria behar ginduke deithu, bainan joaretik emanen diogu deithura. Menditik lerro lerro heldu direnean arthaldeak, bethi aitzinean da, burua gora, ixterrak arin eta zainhart, alderdiak guri, ilea dilindan eta herrestaka. Nahiz bakharrrik duen bulunba, lehen entzuten dutenek, erraten ohi dute: bulunbak hor dire! Deus ez da hobe-ki erranik. Bulunbari darraiko lau zangotako elkhar iduri guzia arthaldean.

Itsasotan buruz buru egin zuten bi untzik, batek zuen maxtru Gaizandi, mendia bezalako gizon handiena. Bigarren horrek eman zuen buruan, jokarazteko lehenari ikusi etzuen dantza bat. Gaizandik untzia bethea zuen bulunbariz, eta Puttikok galdetzen dio zubi gainetik hirriz, eian nahi duen bat saldu, bere diruan? —He, he, he, hasten da Gaizandi. Galde bera egiten dio Puttikok. —Jende xeheaz trufatzen ahal haiz, ihardesten dio Gaizandik: Hiri beira eta erran zukek hain ungi, ohoin bat hai-

zela, nola tratulari. Gutiek eman lezaketek moltsa altxatzerat: kopetan badakharkek haizenaren fiadorra! Puttikok iresten ditu laidoak, josten mihiari lokharriak, eta erraten dio maxtruari: hots, sal diezadazu othoi bulunbari bat, axkide maitea; urrikaldu behar da goseak hiltzen hari ditue-nez. Othoi beraz, sal diezadazu bat, baño: zenbat nahi duzu? —G.: Bulunbari ederrak dire, non da hulako ilerik? Ez dire guti xakhuto erregeak hautarik dituztenean soinekoak. Handiak ere dire, gizenak, denak gantz! —P.: Hala dela. Sal diezadazu bat. Beharretan naiz ezin gehiago: zenbat, hots? —G.: Hedazazu bertze beharria, bat ez duzu aski luze. —P.: Gero ageriko. —G.: Iduri du muthur zarela. —P.: Zuk erraten. —G.: Ez hasarra —P.: Hala aitzen dut. —G.: Nini zenbaiten jostatzaile izanen zare zu. —P.: Baditeke. —Ha, ha, ha, ungi hori, non zaite ene bulunbariak? be, be, be! O marraka ederrak! —P.: Xoragarriak. —G.: Untzi bat gasna flamenka joka nezake, hunako hunek zuk baino pisu gehiago duela: zerua lurrez joaraz zintzake girginetan. —P.: Emagun baietz; bainan ungi egin zinezake, zuretzat baino enetzat hobe, saltzen baninduzu baño, jaun handi eta ona. —G.: Ene bulunbariek ile berezia dute; haren aldean, linho eta sedak iztupa dire. Haukien larrutik egin ditezke marrokin hautuenak, bertzetarik xirribiken zurda hazkarrenak. —P.: Hobe, sal diezadazu bat. Orroituiko naiz non nahi zure bihotz onaz, ori dirua eskurat berehala: zenbat behar duzu? Huna gathilu bat urre. —G.: Ene bulunbariek ukitu landan, artho eta ogi hautak heldu dire; ez da halako lur ongarrizaturik: Ez dute gehiago ondu behar. Nonbait dabilta haukien ihintzetik hauts, ongarri, kisu eta marla! Eri sendatzeko ere haukien pikor batek balio ditu ehun Sangrado eta Apuntador, erran nahi da, ehun barber eta aiutatzaile. Ederki gostatzen ere dire! —P.: Sal-diezadazu bat, gizon maitea; ori urre ederra; ez da hau ere non nahi, alainxe! —G.: Haukien haragia, hezurak xurkatuz, iresten dute errege eta enperadorek. Ezin erranezko gustua du; heldu ere dire herri batetik zeinetan azienda-beltzak berak bixkotxekin hazten baitire. Lan liteke beraz hulako atzematea, diru truk ere. —P.: Zer nahi gostarik ere, emadazu bat; ez dut orai diruaz axolarik. —G.: Ikusatzu ungi, beira zer adarrak! Lehertzen bazintu su-burdinekin eta eragiten, noizetik noizerat ihintzatuz lurra, sor litezke hoitarik nihon ez diren khiuiak! Zangotan ere badute hezur bat: halako bizpahirurekin enperadore batek irabazi zituen gau batez bortz miliun! Zer erran haukien beso, azpi, bulhar, gibel, hertze, sabel, giltzurri, bare eta birikaz! Nondik atheratzen da gatzuntzia, zenbait aldiz, haurren jostetako pilota hutsa? P.: Aski; othoi, indazu baño. —G.: Aski ona atzematzen zaitut; izanen duzu bat; bainan gostako zaizu. —P.: Zenbat? —G.: Ehun urre. —P.: Ungi



gazitua izanen da. Herrian banituzke berrehun diru horrekin. Ez liteke sobera nihoiz galdetu behar; askok jo dute erreka, lasterregi aberastu nahiz. —G.: Zer diok, ikustate gabea? Ez diat ehunetarik bat aski galde-tu. —P.: Jaun ona, ez othoi hasarra; ori, ori dirua.

Gaizandik, alegia atzemana hitzean, buruan hazka, erraten diote lagunei: berrogoia, zer biligarroarekin ditudan lanak! Ez dituzte hortzak gaizki busti behar bertze untzi hortan! Itzuliz gero erostalea ganat, erraten dio: Zein nahi duzu aitzinean ditudan bi hautarik? —P.: Ezkerrekoa. —G.: Arranoa! hautatzen jakin dik, erosten baino hobeki. —P.: Ori soka, emozu adarretik; jauzaraziko dugu frixtan untzitik untzirat; lauzka edo haiazazu, nik helatzean. Gaizandik egiten du, erran bezala. Marrakaz hasi baitzen bulunbaria, lagun oro abiatu zitzaizkon ondotik. Puttikok ez dio barkhatzen sokari, eta berea jauzarazten du untziraino. Lagunak jarraikitzen zaizko akalamian eta marrakaz, batek jauzi, bertzeak jauzi! Bainan nola nihork ez baitzituen helatzen, guzia ura behera zioazen. Besta bat zen ikustea; ez da azienda zoroagorik. Nigarrez, izerditan, ez jakin norat buruz joka, Gaizandik nahi zituzken geldirazi bere bulunbari maiteak bainan sobera buruz ziren jauziari. Jadanik ikusi zituen bere mariñel guziak herrestatzen bulunbariek itsasorat. Azkenean bera lotzen da besoz eta hortzez bati hura bederen nahiz begiratu, bainan asko gathasken ondotik, nausitu zitzaion, eta biek egin zuten pulump!

XVIII. BULUNBAK

Zenbat putiko, zenbat gaizandi, zenbat bulunba, bi zangotako adimenduak dohatuak direlakoetan! Sinheste gabe batzuek trufatu nahi dute jendez eta gauzez. Ardiesten badute nahi dutena, orobat zaiote lagun, herri eta erresumak hondaturik ere. Hekien ona da sinhetsaraztea gaizoei berek sinhesten ez dutena. Beretu dituzten gaizoak baino axkide hoberik ez dute ondoan. Nihork ez dezake hitzik egin hekiekin, zeren oro bada-kitzaten, deus jakin-gabe: hekien hitzak dire onak, hekien bideak onak, hekien bilkhuia eta egintzak berezi eta nihork kontra deus ezin erranak. Etxe ederretan bizi dire; badituzte ontasunak, soineko aberatsak: maxtru dire! Batek badu ezpata, bertzeak pluma, bertzeak zaldia, bertzeak karrosa. Bat izan da Tolosan, bertzea Bordelen, bertzea Parisen! Batek irakurri ditu legeak, bertzeak nonbaiko berriak. Batek ikhasi du odol atheratzen, bertzeak lur izartzen, bertzeak zakhu pisatzen. Gardak ez dire soldadu, ez soldaduak izkribau, ez izkribauak miriku, ez mirikuak abokat, ez abokatak tratulari, zeren baxhotzak ez duen ikhasi darraikona baizik; bainan hoitarik gehienak sinheste-gabe dire, eta aphez Elizaren kontra! Nola bere aberastasun eta herrunkek egiten baitiote iguzki, milaka dituzte bulunbak ondotik. Jakitatez horratuak daukate, zeren izan diren herriz kanpo, ungi aphaintzen direlakotz, eta errexki mintzo besta, bazkari eta atseginez! Lehen Eliza sinhesten zuten, orai ez; bederen ez dute egiten nahi dutena baizik haren erranetarik. Nola adimenduz dohatuak baitire, iduri ere baitu hetarik haintzen izpirituak argitua, uste izateko liteke ez direla ganbiatu, nola nahi, eta segurantzarik gabe, ethorkizuneko bide hoberenen gainean. Zer eta non ikhasi dukete bada zakitena baino hoberik? Herriz kanpo izan badire, non izan dituzte astiak sartzeko sinhestearen hastapeneko bide edo zimenduetan? Egotu dire goizetik arrats zenbait saletan, eta han mintzo ziren, fedezko gauzez kanpo, bertze orotaz. Izan dire besta, komedia eta atsegin guzien tokietan. Zenbatenez gehiago barriatzen baitzitzaioten izpiritua eta beratzen bihotza, hanbatenez gutiago bilhatu dute Eliza. Nondik bada sinhets orai ikhasi dutela lehen baino gehiago fedezko gauzetan, ez erratekotz luma, xizpa, ezpata, aldagarria, bizarra eta itxura itzalekoak, argi eta jakitate direla! Zenbat gaizandi, eta zenbat bulunba hoikien ondotik!



Jaun batek lehia du mahain on, edari bero, gurikeria galduetarat; huse-
re zaizko xizkuak, higatzen indarrak; lege eta zuhurak kontra ditu; hale-
re auzo eta adineko jaun gehienak ondotik badioazko, itsurat, hirriz eta
farraz. Hola dioaz hainitz zahar, hainitz gazte, hainitz aberats, errege,
printze, ministro, deputatu, jeneral, prefet, bankier eta tratulari; buruza-
giak aitzinean, muthilak ondotik. Gezurtiari darraizko gezurtiak, ohoina-
ri ohoinak, bendekariari supiztaleak, bazkoz trufatzaile arloteak, iganden
etsaiei langile suharrak, gormantei gizen predikariak ortziraletan, neska
arinei ergelak, xirribikariei xori-buruak; ostez dire hein bateak kriketak,
ostez mihi zikhinak, lagun jorrazaleak, jokolari ezin unhatuak, aita itsuak,
ama lazoak, nausi gogorrak. Nola ikus eta hala ikhas, nola ikhas eta hala
egin. Nihork ez du galdetzen eian bertzek ungi egiten duten. Harotz eta
kantari zaharrek bethi khalda zuten zintzurtean, gaztek gaitz bera dute eta
salda bera galdetzen. Bada ja errota bezainbat lakhari on, dendari bezain-
bat oihal erosi gaben saltzaile, ostaler bezainbat arno sorraraztaile, xanfa-
rin bezainbait Elizako itzalaren etsai. Bai gaizandiri darraizko lagunak,
bulunba bulunbari: bat hasten da marraz, eta mila baditu ondotik: zen-
bat bulunba!

Dugun egin Parisainoko bat, eta entzun dezagun hango eskola emai-
le handi bat. Kopeta zimurtua du, bixta laburtua; horra non den aldaga-
rri ferde batean hetsia bere bizkar xorrotxa. Hartzen ditu miserak, eta
ezartzen dituelarik sudurraren bizkarrean, dio: Eliza akhabo da; Jesus
gizon bat zen bertzeak bezala! Entzuten dute hori Paris eta Franziaiko
jaun gaztek, eta onhesten, erranez hek ere Eliza akhabo dela! Nihoiz ez
da izan predikari, anaia, serora, othoitz, kobesio, komunione, karitate
gehiago; baina Eliza akhabo da; hala dio nausiak, hala diote aditzailek:
Zenbat bulunba!

Bertze nausi bat altxatzen da, kapa urdin bat bizkarretik, zur-xuria
bezain luzea, bakailaua edo xotxa bezain idorra, mintzoz koloka, xingola
lephotik jarian, dioelarik: Ebandelioa behar da ukitu, aphaindu, eman
ororentzat on den bezala! Gauza bera adirazten dute aditzailek, eskuak joz
eta marrumaz: Katoliko nahi direlarik, jakinak Kristo Jainko dela, eta
haren hitz bat baino lehen joanen direla zerua eta lurra: Zenbat bulunba!

Mendia bezalako gizon bat, mustarda gorri, ihurtzuriak bezain larri-
ko orro batekin, hasi da erakusten: ez ditu nihork egin gauzak, berak egin
dire! Gauza bera adirazi dute ehun mila hartz bulharrez hautuek. Beraz
Murillo gabe egin dire erretabla bortz egun mila liberakoak, hezkurrik
gabe haitzak, aitarik gabe semeak, nolatsu gorringoak haitz azpitan: zen-
bat bulunba!

Nausi batek erran du, izkiribatu ere: gizonak mekanika dire, maxina
bat, haize errotan anaiak, turnabroxen ahaideak, atabal bi aldetarik zilha-
tuak barnean errotekin, bi zangotako arrain iledun eginak, sorthu direne-
tik hogo menderen buruan! Gazte beroek agurtu dute erakuspen hori
oihuz, zalapartaka, jauziz, ostikoka, Waterloo guziak ahantzazten zituz-
telarik gasailan: zenbat bulunba!

Jaun xahar bat, xuriraino irindatua, jabota handi-larri bat paparoan,
mantxetak esku mutthurretan, zapatak burlekin, mintzatu da hulutsu:
bada izate handi bat, bainan jaun handiegia baita, lo egiten du gauaz eta
erregerena egunaz. Arthiki du lurra eremuetan, xori edo untzi gider gabe
bat bezala: Gero antola hor! Hori aitzean, Franzes jaunen erdiak abiatu
dire, xapelak eskuan, ximinoak iduri, itzulika eta jauziz, ezartzen zutelarik
ikhaspena buruko alderdi hazkarrenean, ahantz beldurrez, eta egiten dute
dioakotena, badakitelakotz geroztik Jainkoak ez duela nihortaz axolarik.
Lo egiten du, eta arte hartan, badioaz ohointzarat, ezpatarat, lohikeriarat,
piztoleerat, ura behera, pozoatzerat: zenbat bulunba!

Paris, Londres, Hanmurgeko nausiek badakite asko: Jainkoak baino
gehiago othe? Laster gizonak airatuko dire eta ibiliko *Balonetan!* Jakin
behar da zer diren, gizon gutik naski hekien ethorkizuna. Badakizue oiha-
la egos, jo, latsa, bihur eta idorraz dela, bokhata xuritzalen lanik han-
diena. Lehen hiru lanak eginak zituen emazte batek, bere iduriko guti
zuen barneko itzulietan. Baina egun oro ez dire bardin, heldu diren
arren bat bertzearen ondotik. Istripuei beira egoteko da bethi. Vatel urk-
hatu zen, saltsa bat etzitziolaketz mareatu, eta gauza bera egiter zuen
Krillonek, ez gerthaturik Arkueseko gudu. Emaztek behar dute asko
berthute, ez joiteko ura behera, lagore eta bokhata egunetan. Bethi zer-
bait makhur bada. Goragoko emazte horrek, bethi uria zelaketz, su baz-
terrean idorrazten zituen athorrek, intzirinaz eta sudur ziztuz. Khea sar-
tzean barnat athorrei, hantu ziren eta goiti abiatu: argi bat izan zen hori!
Berehala emazteari gogoratu zitzaion balona. Jadanik ikusten zituen gizo-
nak eremuetako aldamihoetan, hedoiak barna pasaio. Ahantziak ziren
geroztik Madrilat biltzen ziren andreak, gorthean zigarroto banaren erre-
tzeko, arratsean Bordelerat ere ziozenak, komedia eta bertze josteta age-
rietarat! Andre handi eta bihotz dunak airatu dire, jaunek ez diote parrik
utzi, sobera ikhasiak ziren, joan dire, joan hedoiatarat bertzek bezala kon-
tuak egin nahi etzizutenak, lau erregelen zuhurtziarekin: gorphutzetan
arimarik nahi etzizutenak! Balio zuen haragi puska bati beira egotea! Joan
dire... baina nor ez da joan lumadun, lantzetadun, kargudun handitarik?
Harritzeko da zein izpiritu guti gelditu den Elizaren parrapiotan. Ungi



ona behar da hedoietako bizia! Nola gauza xumetik heldu diren handiak! Hedoi ei edo balonari esker, miliunka dioaz nor nahi zorionerat... Bainan, hori balitz, itsuen argitzea gauerat eramanez, da ixter ebaki bat sendatu nahi izatea bertzea ebakiz, arinei hegal ematea pausatzeko, ohoinei oro uztea deus ez ebasteko: zenbat bulunba!

Jo dute Eliza hemezortzi mende eta erdiz; ibili ezpata zabalka, puntaz, ahoz, sahetsaz, ezker eta eskuin; jo dute sehaskan, jo handitzean, jo handitu ondoan. Ez diote hats onik utzi sala, eskola, kafe, ostatu, kanpo ala barnetan, ixilik edo agerian, nahiz hitzez, nahiz liburuz. Izan ditu bethi etsaia Erdaldun orotan, non edo han. Eskaldunek hargatik bethi sinhetsi dute, bethi haizatu dituzte bere artetik Higanote eta Juduak, orai artean, ez baitzuten elengatu ahal nola urrun ziteken gaizkia lurretik, oro zilhegi utziz, edo bilkuietarik, ungiarekin nahasiz. Bainan sarrixe, heki ere begiak idekiren zaizkote, sinheste-gabek agertzen diotzatenean hezur larri, burdin herdoil, eltze zahar, korradu eta adrilu ezagutzen etzituztenak. Badituzte argi ezin ukhatuak erraietan Babilonia, Egiptoia eta Niniba zaharrek. Bazituzten sahardea bezain handiko izkiribuak: jakiteko da hetarik athera lehen argiek eginarazi diotela hedoiarrei iguzkia goibelarazteko bekhurunde bat, eta ahoak zabalarazi diotzatela ehun erresuma eta emeretz mende klikarazteko bezainbat! Izkiribuak elengatzen etzituzteino, zioten: Moisek erran baino gorago dioaz gizonak, mendeak gezurtatu ditu. Bainan laster hedoietarik mintzo etzen jakin batek elengatu zituen hobeki izkiribu zaharrak, eta bat atzeman Moisekin! Bere ona eta deskansua dute, orai, ethorriko zaizkotela bertze argiak: zenbat bulunba! Hobeki liteke behar bada erratea: zenbat huntz!

XIX. HUNTZAK ETA BULUNBAK

Huntzek badituzte begiak, ez pulitak; aithortzen hori. Nihor gatik kaiolan ematen ditu bere ederrez. Buru handi, moko bihurri eta bultu ozen batekin, ez dute bildu nihongo xoriketarien bihotzik. Orok higuin dituzte haurretaraino. Hegastegi ahantzi edo dorre zaharretan egiten dituzte bere lo, ohatze eta umeak. Olio dute bere asea, ahal dutenean. Astelehenez edo Igandez, ez dute edari maiteagorik. Olioia kontra pozoina den bezala, nori zioaken hobeki haren khalda, mundu guziak etsai ditueni baino? Hortik athera diteke, huntzak ez direla bethi iduri dute-nak! Gauza ikusten dute, ez egunaz. Hekien begiek, egunaz zarpan lo dau-den arrosorio distiantak dirurite. Bainan gauza, zer iguzkiak! Ez da orduan halako sentinelik: kantatzen ere dute huntzek, gauaz!

Gauza bereziek egiten dute lurreko edertasuna. Ihizi guziak bardin balire, nihork ez liozake beira laster. Hartako naski gizon zenbaitek ez dute ikusi nahi gauean baizik. Oro ifrentzuz edo gaizki zaizkote argitan: Robespierre saindu da, hartza gizon, otsoa xakhur, igandea laneko, astelehena alferkeriako; ilhar, lur sagar, ahi eta gaztanbera, ortzegunetako; oilo, gaphoin eta azpikia, ortziraletako. Ikusiko dire oraino bi zangotako zenbait galtzen azpikoz gora ematen, buruz beheiti ibiltzen, beharritik jaten, sudurretik edaten! Lazgarriak dire Elizarentzat, bere mazela sarthu, hori edo gorri-minekin aldizka, mintzoa erlats, minkor eta ilhun, ahoa goibel, ezpainak hits, begiak barna. Ez dute nahi Elizarik, berak aski dire... Bat altxatzen da, dioelarik: Badakizu othe zer darasazun? Guk badakigu zer behar dugun sinhetsi eta zer ez. Ez dugu gaua nahi argitzat, eta Elizak ez du ilhunberik baizen; sobera galdetzen ere du.

Ageri da hola mintzo direnek hainitz ikusi dutela gauaz. Zer ikhusi othe dute? Damurik ez direla gaueko argiak, oihal busti batzuek bezala! Bihurtuz, ixurkinean atzeman liteke nahi dena. Eian egin diteken deus. Hertsatuz adimenduzko huntzen bokhata, huna zertsu darion: Ebandelioa zorokeria bat dela, eta ez gizonentzat eгина!

Entzuten ditut hirri eta karrankak bazterretarik; eian nork eginen dituen azkenik! Ebandelioa zorokeria bada, haur eta atsoen jostatze da. Den baino areago egin arazteko, eman diotzagun bizkarrean Heretiko, Xizmatiko, Judu, Pagano eta sinheste-gaben trufa eta hirriak. Egiten dute Pireneak baino gordoago den mendi hirrigarri bat. Hobe, izan dadiela



girstinotasuna, oinetarik buru eta hastapenetik akhabantzarat, hemezortzi ehun miliunetan mendi hoik baino higuin garriagoko zorokeria. Ozar izatea da; ezen sinheste-gabe handienek atzeman diotzate Elizari alderdi onak; ez diote bekhaizten haren ifernua bere etsaiei, ez kobesioa ohointza egin diotenei. Bainan nahi dut egin dezaten beltz eta itsusi ezin gehiago, eta erran gezur untzi bat dela, ez duela sos berriek zilhar baino egia gehiago. Mintzo bada nihor ene kontra, egonen naiz harri, ihurtzuriek ez naute mugiraziko. Eginen dut mirikuak bezala, ama hasten denean nigarez, ikusiz haurraren nigarrak, hortz atheratzeko mina gatik.

Elizaren kontra erran ahal guziak, erran ziren lehen lau mendetan. Geroztikako asiki guziak, salda arreberotua bezala dire: marraka berek bethetzen dituzte mendeak. Ageri da marrakariak unha ordu dutela, aspaldion xutik dire. Jar bitez beraz. Min dut bihotzean ikusiz hainitzetan jende xehea goizetik arrats unhatua: eian ez dudan urrikari behar argiak hedatu nahiz dabiltzanez hanbat mende huntan! Jar zaitzete, galde xume bat egin nahi dautzuet. Ez da haltzairuzkoa, bainan aukas ere, itxikatuzue adarrak buruan: Erran diezadazue nola girstinotasunak hartu duen lurrean?

Nihork ez du ihardesten, guziek bulunba belharrez tapatuak dirurite, batek min du sabelean, bertzeak buruan hatz. Batzuek zerbañt bazarasaten, bainan etziteken jakin zer, Babelen baino gehiago. Batek erraten du noizbait: ez dugu ungi elengatu.

Duela hemezortzi ehun urthe, mundua Pagano zen: nola egin da Girstino?

Bigarren batek ihardesten du: ez dugu elengatzen, mintza zaite eskaraz.

Etzait iduritzen hedoirik baduela ene galdeak, bainan huna zer nahi dudan jakin: Girstinotasuna zorokeria denaz geroz, eta ez gizonentzat, nola onhetsi du munduak hamabi arrantzalen hitzaren gainean, egun distiantenetan, nahiz orai bezala zorokeriatzat begirazi nahi zuten. Nola Pireneak baizen handiko gezur mendi baten iresteko, gizonak utzi dituzte ontasan eta atsegin ohituak, nola joan dire lehoinen ahotarat, presondegi usteletarat, su gorriat? Holako bestak izan dituzte Eliza sinhetsi dutenek Jerusalem, Athenan, Lionen, Erroman; eta baziren sinhestaletan konsul, senadore, jeneral, jakin eta aberatsak. Ez da nihon ikusi hola-ko gerthamenik; bederen nik ez dakit non izan den, eta zuek? Naski bai, huntzek ikusten dute bertzek ez bezala.

Hasten da bat eztulez, bertzea kadiran itzulika, hirugarrena zinzka; bainan etzuen nihork hats bat egiten: uli bat entzunen zen! Athera detzagun hestura hoitarik; bihotzak kalaka dituzte, eta bil letzakete enganioz

erraldiketariak, ustez eierak golkhoan dituzten. Elizak zorokeriak erakusten ditu, bai edo ez. Hala erakusten baditu, nola oro jarri dire haren sinhesterat? Oro zoratu othe ziren lurrean mende batez? Sinhestea egien bahia izan bada, marrakariak ixil ordu dute; ez da hor harat hunatik. Ez ahal dute uste naski apostoluak sorgin zahar zenbait zirela, hiru mendez xarmatzeko bazter guziak. Ez da izan ditekenik: Apostoluak Juduetarik ziren, eta Juduek asko dakite: egiten dute kobrea urre, eta bi soseko telapinta, perkal; ez izanik ere nihon erreka bat lur, badute bethi diru eskaintzeko eguneko hogoiean. Mintzo dire lehen mendeak pozoatzaile eta enganatzailez: halakoek sorgin ite badute! Damurik ez dugula largabixta handi bat mendetan ikusten duena! Jakin ginezake norat biltzen ziren Apostoluak sorginkeriako gauzen ikhasteko: Zugarramurdi, Guadelupa edo theilatuetarat! Badire Parisen kanoia bezain handiak. Bainan adimenduaz behar dugu ikusi: zer iduritzen zaitzue: sorginak ziren Piarres, Thomas, Andres eta hoikien lagunak?

Hoik ez dute baitezpada sorginak iduri.—Zeinek bada? Matheo, Markos, Lukas, Filippe eta Barthomiok? —Ez eta ere. —Nork bada? Nihork ez dio deus? Nik banakike ene ustez nola iragan diren gauzak, bainan beldur naiz eskas atzeman dezaten ene ikuspenean, nahiz nor nahik athera dezeken hitz on bat: nahi duzue jakin nola ikusten dudan gauza? —Orok baietz diote. —Atso zahar batek errana dut: orobat zaitzue? —Ba, ba, ba. —Huna non den: mizterioak adimenduaz gorago dire, eginbide hertsia Elizan. Hartakotz, bat eta bia hiru diren bezain segur, Girstinotasunak eginarazi ditu intzirinak hastapenean, sinhetsia izateko. Errexki deithu zuten zorokeria, gogorregia eta bertzerik. Bainan irule ezin unhatu batek, Mariattok badaki nola sinhetsi duten jaun eta andre, jakin eta tontoek, gazte eta zaharrek: Elizak kopetan zituen mirakuluak, eta nola hets bihotza mirakuluzko predikuei? Zer diozue atsoaren atheraldiaz?

Ikusten ditut zenbaiten mixkinak, erran nahi balute bezala: atsoa zoro bat da, ez du nihork egin mirakulurik, ez nihork ikusi. Ez da izan esku zabalaren gainean baino gehiago, orai, ez lehen. Egin balire nihoiz, herrestatuko zituzten oro Elizarat: ez da halako Pikasari edo Haranbururik, Xareten lehia emateko. —Bainan etzaitzue Ebañdelioa pokadu handi eta minkhorregia zela iresteko, mirakulurik gabe? —Ondu zuen zerbaitek, sinhestalek bazuten saria. —Sari onak jende biltzeko azoteak, presondegiak eta heriotzea! Lehengo jendeak, oraikoak bezala ziren: nola egin dire Ebañdelioaren haur? Emadazue egintza ezin ukhatu horren gakhoa; atzemazue nonbait, zoazte Parisat: han da Akademia, oro dakitzana Abezetik yzetaraino. Errex da gauzen ukhatzea, bainan ez egitea. Erna



beharriak: huna mirakulu asko batentzat: Ilkhitzen da heiatik kalea berri eta arin bat. Luma diruri. Lerrarazten dute lau garainok, enadek hegalez, lehoinak indarrez. Eskutik dituzte hedeak bi muthil Paristar buru ernek. Eguna eder da, zerua garbi, bidea xuko eta sala bezain legun. Ximiztan doa lau arrudetakoa, aitzinduz eta gorriraziz, lasterlean, burdin bide-tako hegastinak. Hoberenean dioalarik, atheratzen zaizko hogoi ohoin bide itzuli batean eta porroskatzen diotzate lau arrudak. Kaleak erori behar zuen eta gelditu han berean: gelditu zen? Ez, ez; ikusi dut ene begiz, ikusi diodan bezala, ikusten den bezala, ikusi joaten aitzinat nihoiz bezain laster: ez da mirakulua hori? bat. Ohoinek khentzen diotzate kalexari garainoak, eta halere badioa bi mila lekhoa urrun: ez da hori mirakulua? bia. Ohoinek hiltzen dituzte bi muthilak, eta kalea ez da makhurtzen, badioa abiatu tokirat, itzulika guzien gatik: ez da mirakulua hori? hiru. Ohoinek bidean egin zituzten zilho eta erreka zabalenak, eta kalea joan da bethi, mirail baten gainean bezala: ez da mirakulua hori. lau. Ohoinek hedatu dituzte bidean harrokak, bortz ehun urtheko haiz zaharrak ere, Belatetik aizanetan herrestaraziz, eta kalea ooren gatik joan da: ez da hori mirakulua? bortz. Ohoinek baratu zituzten egun orga ile Asturiatik heldu zirenak, bakhotxak bazakharken berrogoita bortz kintal karga. Eman diotzate kalexari guziak gainerat, bultuaz beraz lehertu behar zuten, eta joan da aitzinat: ez da hor mirakulurik?

—Ametsak dire hoik guziak, ez da izan holakorik: gezurrak, gezurrak! —Ah, gezurra baitiot! —Bai, eta ez xumea. —Zabal othoi beharriak: kalea Eliza da; garaino, muthil, arruda, leze, mendi, orga-ileak, dire Apostolu, predikari, bilkhuia, presondegi, eta persekutatzaile khoroaatuak. Abiatua Auguste enperadorearen egunetan, badabila oraino, Napoleon hirugarrenaren egunetan, nihoiz bezain berri eta arin, itsaso, morthu, negu eta iguzkiz. Altxatu zaizko kontra handi eta ttipiak, nekhazale eta erregeak, gizon basa eta jakinak. Zehatu dute gordean eta ageririk, biluzi janari eta liburuz, jo eta ferekatu: eta bizi da! Ez da hori mirakulua? Zoro eta buru-gabeak ziren Apostolu eta hekien ondokoak, huntzen arabera, eta hedatu dute Eliza. Galdu behar zuten luzerat, eta ez dire galdu. Etzuten beretu behar emazte bat, eta beretu dute mundu hoberen guzia. Ez dutenek nahi mirakulurik, bitoriaz bitoria ibilarazten dute Eliza, ahalik gabe. Mariattok baino sinheste errexagoa dutela zait. Ez ahoa zabal, nola zordun gaxtoek, ethortzean Pillardok sarienta atherat, argi ezin ukhatuekin: Apostoluak zoro eta buru erreka baziren, eta halere Eliza ungi eraman, mirakulua da; preso egon direnek preso emaleak garaitzea, mirakulua; harma-gabek harmadunak garaitzea, mirakulua; itsuek jakinen argi-

tzea, mirakulua: oro mirakulu. Hoik guzien egitea mirakulurik gabe, mirakulu handiena! Elizak hartzea mendetan, mirakulurik gabe, mirakulua behin; haurrak galduz edo hilez berratzea, mirakulua bietan; gauzen sinhetsaraztea, bahirik gabe, mirakulua hiruretan; bi zotz gurutzean emanik, hamabi zorok belhaunikaraztea errege eta harmadak, mirakulua lau, bortz, sei eta ehunetan. Zenbatenaz egiten baita Eliza zoroago eta galde-tan higuinago, hanbatenaz mirakulua handiago da bitorian. Nik erraten hori, eta ez daukat ene burua zorotzat, edo biba adimenduzko zoroeria! Ez da ezin eginik egiten, eta gizonek sinhetsi dute Ebandelioa, bere galde hertsita eta minen gatik. Bada hor izateko Pio IX bezain katoliko, bada lephoa pikatzerat uzteko Elizaren alde: ezin izanak izan dire, ezin joanak joan, ezin garraiatuak garraiatu: mirakulua! Atso zaharrak bazakien zerbait, erratean: Elizak mirakulua kopetan zituela.

Eskarnioz hari dire esker eta eskuin, hori eta gorriak, beltzaran eta ñabarrak. Ez oro hargatik. Sinheste gabe izateko, behar da bederen ezpata gerrian, bizar zama bat sudur pean, jaka maite, aberasko, bederen izan hiritako zamalzain; bainan harritzeko da zer batasuna den hein batean Elizaren kontra: etziren batago Fransesak Napoleone enperadore egitean! Huntzek eguna bezala, ihesten dute askok Ebandelioa, batere ikusten badute egia; bada non egin sare bat aski handia atzemateko azkon, hartz, otso, sathor eta axeri guziak, eta oro betan arthikitzeo itsasoa behera, sinheste-duten gizonekin. Hoik guziak erraten ditut, zeren, otso atzemateko, egin behar baita orro hek bezala! Gure aitzinekoek sinhetsi dute Eliza; ona zitzaieten, eta guk ere ona atzeman dugu orai arte; bainan sort-hu da gazteria bat, eta hura baithan adimenduak ez du iguriki urthen adina: zaharrek baino gehiago daki: ez da hala? Ikusten dut zenbaiten arpegia arintzen: hanbat hobe! Holatsu arintzen ziren Wagram edo Austerlitzko soldadu errenkuratiak, Napoleonek ematean gurutzea bere eskuz. Erien itxura onak maiteago bihurtzen du miriku ilhuna, eta niri ere on egiten daut, oraino, sinheste-gabeak egiten dautan begitarteak. Behar dugu egun xuritu arras sinhestearen bidea. Ene izpirituak hurbil ditu zedarriak, eta denetan ere baditu lanbroak; bainan sinhesteaz doanean, hedoi guziak behar dire suntsirazi. Eliza ez bada egia, ez da aphez beharrik; bainan egia bada, nor nahik behar du entzun haren errana. Elizak hertsatzen ditu jauirak, galdetzen eginbide zenbait ez dioazketenak; eta horra zertako dioten ez ditekela gizonentzat. Ez da aski erran dezaten: nola hartu du bada lurrean, nola lehiarazi ditu haurrak bere ganat?

Parisko erdian badago xutik lau ezkinetako harri bat, asko ezkiladorre bezain gorakoa, nahiz ez duen araberako zabaltasuna. Ez da pus-



kaz; dena harri bat da, Egiptoan sorthua duela 4320 urthe: adin ederreko ninia beraz. Xutik egon zen morthuan 2000 urthe, kosaka gardian bezain tieso. Ez luke behar bihotzik, erranen lukenak, etzuela etzan ordu halako gorphutz batek. Egun batez, Mehemet-Alik buruan eman zuen altzarazi behar zuela, eta egorri Franziaiko errege Karlos X garrenari. Etzen lehenbiziko atabal soinan altxatzeko soldadua, ez attona lo ezin eginez bethi jeki nahia. Nahiz etzuen behar zapata, polina, aldagarri, xizpa, gerriko, sakolako mozkanes edo dirurik, hainbertze luzatu zuen abiatzeko, non hura Parisat orduko, errege ihesi joana baitzen herri atzetarat. Legarrezko haurrak kokarda xuri bat zuen bere soineko guzia. Khendu behar izan zuen, hartzeko hirur itxuretakoa: bertzek bezala egin behar da hainitz aldiz, ez joaitekotz gela beltzerat: non eman zuen xuria, ez dakit. Lo egon zen untzian zenbait egun zabal eta luzakara. Ganbarek, ikhusiz etzela haur gaxtoa, eginarazi zioten Filipperi Karlosek behar agurra. Ungi mintzo ziren, bereziki orduan, eta bazakiten, agur egiteko, xutik behar dela, eta ez ohean! Harrizko ninia etzana zen: nola xutikaraz? Han ziren zinak eta minak; bainan buruz direnean, Fransesek oro badetzakete: mendiak zilha, zelhaiak mendi, itsasoak huts, errekek itsasosta. Nola gudu handi bat hastean muthil artekoek ere joan behar baitute soldadu, halatsu bildu zituzten Parisat, Egiptoako niniaren altxatzeko, nihongo bide, zubi edo erreketan ziren inginadore ahul, onxko eta hautuak. Eskal-herri guzian, beldur naiz etzen utzi Lixero baizik, Donibaneren zaintzeko itsasoaren hurrupatik; bahi bat zen Parisko bihotz onena: gaizki izanen zitzaioten arrainei uztea Laphurdiko lilia. Bildu zituzten oraino Parisat atzeman ahal sokak. Egiten zuten Esnaurko mendiaren bultua. Etziren eskas gathe, zur eta harri-koskoak ere. Milaka ziren gizon hazkarrak, milaka izpiritu soseko, bi sosekoa eta zilharrezkoak. Erregen jauregiko ezkaratzean, baziren gaitziru urreak, saristatzeko inginu eta lanak. Lothu ziren langileak soka eta palenkei, bainan doidoia atzarrarazi zuten Egiptoarra. Oihu khirats zarion inginadore bati, xiztu min bertze bati. Mentan ziren sorbalda, zango, beso, buru, hortz, erri eta thuak. Bainan jadanik gizon hartzenak, izerdia zurrutan, marrumak betan eginik indarren ez galtzeko, etsitzen hasiak ziren deus onik egiteaz. Zenbait athorragorri, itsasoko lehoinak, hurbildu zitzaizkoten, eta erakutsi zioten alfer handienak xutikarazten zirela, sokak bustiz. Etzituzten pipira gaxtotik athera zenbait inginadore. Hekien ohorea zen jakitateari indar atzematea! Xutitu zuten harria. Han dago estokik, inguruan lagunik gabe jelsiaren bazka. Bardoizko seme Larzabal, gardia inperialeko tanbur-majorra 1858, doiean da haren bizkarrereko izkiribu zango bat baino gehiago. Bada beraz zerbait haurtto hura.

Etziteken bera higgi eremuan, ez bera ibil itsasoan, ez bera xutik Parisen. Bainan araberako indarrek ibili zuten, eta etzen hortan mirakulurik; bazela hor mirakulu, nihork ez lezake eman erripitina suan hamar bihiren errateko denbora. Zer diote Elizaren etsaiek? Harri hori obeliska deitzen da: bera xutitu da?

Jaun bat altxatzen da, ez dauke nihon, ezker-eskuin dabilka bere gorphutz lerdena, behin aitzin alde ditu buru eta bulharrak khurrean, gero jartzen da sahetsaren gainean. Bihurtzen ditu bortz edo sei gathu bizar ondo, ezpainenetik dioazkonak, eta dio: Obeliska bera xutitu da! Oro altxatzen dire, erranez: ez diteke, hori sobera da, erro behar da horren errateko, bulunba, huntza!



XX. EGIARI ARGÍ DARIO

Sobera bezala itxiki dut irakurtzalea moko urean, bainan ez da ahantzi behar, aingirak buztana duela gaxtoenik larrutzeko: akhabantzan naiz. Obeliska har dezagun Elizarentzat, nahiz deus guti den haren Paris-ko eremua, Elizak hartu duenarekin Donibane, Hasbarne, Garazi, Maule, Iruña eta Donastian. Oraino bada hoik ere deus guti dire Elizak mendetan duen dorrearen aldean. Mendetan Eliza, Laphurdi, Nafarroa, Bizkaia, Xuberoa eta Gipuzkoaz bertzerik da. Ursuia, Larrun, Belate eta Altobizkar pilotak dire haren aldean. —Nork pisatu ditu? Aragok behar bada? —Ez du hark pisatu Ilhargia baizik. —Nork pisa zizaken Eliza, nork pisatu du? —Zuek, Elizaren etsaiek, izartu diotzat zue alderdiak, gainbeherak eta hedadura, eta erran duzue: pisuegia da gizonentzat, egin bide dorphegiak ditu, ezin altxatu edo garraiatua da. —Ez dugu holakorik erran. —Ez naiz itsurat mintzo. —Ez guri erranaraz erran ez dugunik. —Ez duzue erran Elizak sobera galdetzen zuela, etzitezkeela egin haren erranak? Egia bazi-noten, nihork etzuen sinhetsiren, lurrean egonen zen. —Bai, behar liteke gizon baino gehiago haren erranen egiteko: nola barkha etsaiei, nola aithor bekhatuak? —Etsaien arabera ere, lehen Eliza-gizonek mehe zuten izpiritua, bazen soseko hainitz: nola egin dute jakinek baino gehiago? Elizak lurrean behar zuen: nola xutitu da? Lehertu behar zituen oro: nola garraiatzen dute Aita-Saindu, aphezpiku, Errege, aita, ama, seme, neskatxa, martir, kobesor eta birdina herbalek? Ez duzue nihoiz gogoratu gauza hori; bainan Beabak etzinakitzatelarik egia handienetan, erroskilekin jostatzen zinetelarik nola haurrak, galdetu diot ene buruari nola altxatu den Eliza, nola egon xutik, haize, xirinbola eta ifernuko gathaska guzien erdian. Milaka dire Elizaren haurrak Jerusalem, Erroman, Londresen, Madriren, Bostonen, Othaitin eta iguzkiak argitzen dituen bazter orotan. Abiatu zuten ahur bat gizon erromesek, ibili erriotan, eta eman guziei ganean, khoro bat bezala. Etzuten nihor alde, eta halere oro belhaunikarazi zituzten eta estali Eliza mendiaz. Gizonek lehertu behar zuten; khaxatu ziren asko, abiatu Elizaren iharrusten; bainan hain ungi lothu eta sarthu zitzaizoten, non iduri baitzuen hekientzat egina: nola dago xutik Eliza, gizonek ezin garraiatua? Hegatsa iduri harri handi bat ezin ibili eta eman da xutik bera, eta ez da huntza behar errateko Eliza bera eman dela xutik, ez ikusteko Jainkoaren lana dela?... Ezpainak luzatzen dituzte zenbaitek, ostria iresteko bezala: zer egin? Tiroa galdetzen du otsoak, eta tiroari darraiko zauria.

XXI. OHORE EGIAREN PREDIKARIEI

Garratza izanen zaiote hainitzi mintzaira hau; bainan ezagut detzateleda xedeak. Hainitzen harmak ez dire trufa baizik egiaren kontra. Kasko arinek ez dute bertzerik elengatzen. Denbora galtzea liteke heki, gizonen bezala, mintzatzea. Beren harmekin izartu ditut, batzuetan hirriz, eta bertzetan hitz gordinekin. Sistakoak mingarri atzeman detzakete; bainan jakin dezatela, onek mingarriago baizik ez dituztela atzematen hekienak, hain errexi bizi litezkelarik lazo, hertsiki eta beldurrez bizi direnean. Aphez bezala gehiago jazarriren derautet: ez dakite zer den apheza! Oro jasan eta iretsi behar ditu, minik ez balitz bezala harentzat! Ez dakite zer den: Zaurtzen dute guzien zauriek, hitz edo solas ona dario, nigar guzien xukatzen badaki, eta harenak nork xukatzen ditu? Egunazko ikuspenekin zilhatzen diote bihotza oherainokoan, eta ikharan dago hitzak edo urratsak gaizkirat itzul diotzaten. Nor nahik beltz eta asik dezake: ez du harma edo ukhabilik. Oro bihotzean ditu, bainan bati egiten badio bertzeari baino on gehiago, jelsiak bilhatzen du. O aphez gaxoak? Zein guti ezagutuak zaren! Etxeko zedarrietan dituzte aria eta solas gehienak, musikari oilhar, uso kurrunkari eta xakhur sangariak; solaseko lagun, ilkhitzetan, zenbait laborari unhatu; gozamen, bidetan, haitz non nahi sortuak, xirripa lohitsuak, zuhamu ostoa metak, ur-bide makhur eta kaltekorrak. Bada hor izpiritu aphaindu batentzat bazka arrai eta eztirik! Ez dire Bahaio, aita-amen zorion, ezkontzak bozkariozko? hala da, bainan atzo bathaiatu haurra eta benedikatu andre gaztea, biharko hilak dire, eta aphezak behar ditu xukatu aita-ama eta senhar zaurthuen nigarrak. Aiztian atsegin gaindiz zuen, haur multzu bati erakustean zeruko egiak; oren berean, zilhatzen diote bihotza, ekharriz berri, gaizki handi eta itsusi bat egin dela herriko bazter batean. Ehunen iraupenak ungian baino, min gehiago egiten dio baten erorikoak, eta erorikoak husu dire. Izan diteke apheza hotz, axola-gabe eta nagia, higana bere ustez zurubiaren gainerat, ez duena gehiago irakurtzen, egian ohitu edo unhatua, herriko aitaren erraiak galdia: Halere burua altxa dezake, egiten du nihork bezainbat ungi herria: ez da aztura tzar eta hitz goibelen lauzka. Bainan aphez gehienak bertzelakoak dire; ohore diote bere presuna eta eginbidei. Argitzen dituzte izpirituak, nahiak ontzen, bihotzak garbitzen. Maite dute egia, hazkar sinhes- tea, bero karitatea, iraka higuin. Arimez dioanean, ez da hekientzat gau,



egun, hotz, bero, uri edo basarik. Sartzen dire gela pozoatuetan, oro ihesi dioazelarik. Badire baldar-aphezak: zer egiten dute hoberenek? Emagun ez dituztela buru gogorak, ez bendekariak, ez hisi gaxtokoak: zeinek egiten dute aphezak bezainbat ungi? Badire jakin eta aberatsak herrietan: ez dire bethi han, ez eta ere aphez. Deus ez da ederrago, jakin eta aberatsak ungi egiten baino; bainan bethi urrun da hekien ungia aphezarenetik: hura da guzien eta bethiko gizona, bethi aitzindarien trunpeta, eta aitzindari ditu aphezpiku eta Aita-Saindu, argi ezin hilak.

Nik egin dudana beharra zen: eginen othe zuen bertze nihork? Uste izan banu hori, utziko nion bidea zabal; bainan ezagutzen ditut Eskaldun asko. Behar bezalakoak diren arren bere egintzetan, gutik egin nahiko zuten lan hau, errexa iduri duelarik. Zenbaitek egin zezaketen nik baino hobeki: oraino bederen, nahiago dute distiatu bertzelako izkiribuz.

Ene lana deus onik balin bada, Jainkoak dituela eskerrak; ez bada ona, barkha dietzadala egun galduak hortan, xede ona gatik. Bainan oro othoizten arimaz, ez jazartzeaz aphezari: badu minik aski, gehiagokorik gabe. Jainkoaren aitzinean erraten dautzue, gaizkiari nahi ziola burua behitirazi, eta guti da, hitzez bederen, nahi duenik gaizkiaren bitoria. Ez duenak nahi ikusi gaizkia nausitzen, egin beza hobeki: ni ixiltzen naiz, hasi bezala, Aitaren, eta Semearen, eta Izpirtu-Sainduaren izenean. Halabiz.